

ZALDUPE'KO TXIKIENA

AUGUSTIN ZUBIKARAI



BIZKAIKO ALDUNDIAREN LAGUNTZAGAZ

Augustin Zubikarai
Legezko gordetza: BI-1.937-1991
Irarkola: Flash Composition, S.A.

Elbarri au
erdi egi da ta asmatua beste erdi.
Gauza asko bizitzako egi,
beste asko egi antzeko irudi.
Tokiak eta izenak bardin,
batzuk inguruko, besteak buruko.
Iñok ez begi bere bururik bertan ikusi.

Egilleak.

ILTEGIAN

Negu ateko goıza.

Egualdi illuna.

Likin, laiño eta busti.

Kanposanturako bidean, apaindura barik, ordu ez-egokian, ari-ñeketa baten, anda bat.

Abadea, akolitoa ta lau erriko langllek, -kale garbitzailleak- erodako kutxa.

Iru ume atzetik eta oial baltzez goitik bera estalduriko andratxo igar eta makur bi.

Gizonik ez, serbitzariak besterik.

Iltegira eldu ta bereala, kutxa lepotik eratsi-ala, lurrean egiña egoan zuloan sartu eben.

An laga ta lurrez estalduten asi baiño len, abadeak ezpan-arteko otoi arin bat egin eban. Latíñez.

Umeak, neska bi ta mutil bat, irurak be amabi urtetik berakoak, ez eben negar andirik egin. Muxingak, inkeza bako negarrak.

Andrazkoak ez eben oialik jaso.

Zabaldu be ez eben egin kutxarik azken ikusi bat emon edo azken agurra egiteko.

Lizun usaiña zabaldu zan inguruan.

Egun bat baiño geiagoko illaren ondakiñak, ondo egin eta josi bako kutxaren lotuera eta tartetatik iges egitean lagaten daben atsa artu eta zabaltzen zan.

Abadeak berbatxu oneik esan eutsezan neska-mutillei: la, txo-txo, emendik aurrera zelan konponduten zarien. Zeuon artean eta zeuon auzokoekin.

Eta antxe bere roketea kendu ta akolitoari emon eutsan sakristi-
ra eroateko-ta.

Bera, altzakuelloa kendu, paparreko izerdia zapi bategaz batu, buru gaiñea be igortzi eta zigarrotxo bat biztu ta erreten asi zan, ango atsik eztarritik zear ez artzeko.

Laster jaurti eban zuloegilleak kutxa gaiñean, parrastadaka, zuloa egiñeran alboan bastartu ta pillatuta eukan lurra.

Anda eroantzailleak, berba barik, ixillean alde egiten asi ziran. Batek esan eban orraitio: Azkenean au be geuk jaso eta geuk ekarri bear.

Eta besteak: Txarragorik egiten dogu. Bizien atsa bigunago ete da illena baiño?

Abadeak, Marta'ren ingurutik urtetean:
la zelako "tituloagaz" bialtzen daustazun, nire liburutan agertze-
ko be, eriotzako papera.

Botikarioen bizio paperak be sobre geratu dira orain onentzat,
jauna.

Errezena egiten dozue. Il dala ta or konpon,
Beste batzuk egiña be ez da gaitza: Paternoster ta amaitu las-
ter.

Zer da, ba, egin bear nebana?

Besterik ezean ume koitadu eta errukarri onei eskupeko bana
emon.

Eztarriko garramea entzun edo oartu jakon abadeari.

Eta andik aldendu zan.

Lur emontzailleak, lurra jaurti, landu eta gero:

Kurutzerik edo iñok ekarri dau?

Ba eukan kolkoan, erantzun eban alabetako batek.

Ez, baiña. Beretzat ez, lur gaiñerako baiño.

Umeak alkarrerri begiratu eutsen.

Bera izan da ori naiko kurutze, Martak. Emen ez ba da be,
Josafat'eko zelaian ezagutuko dabe beintzat.

Asko dakizu.

Ez dabe esaten, ba, emen dagozan ondarrutar guztiak ormarik
ezin billatuta ibiliko dirala an, lotsatuta, aurreko praille edo monja
abitua eukiarren, atzeko estalgarri barik kutxan bialtzen dituelako?

Orrek berorrek naiku euki dau munduko lotsari ta zer esanekin.
Eta berak eukantxoagaz, atze ta aurreko gonatxaekin bialdu dogu
beintzat. Emengo asko baiño obeto.

Umeak ez eben gauza andiririk ulertu. Oraindik bizarra urteteko
euken.

Jakin be ez erriko oiturarik.

Beste andratxoak, ordurarte berbarik egin ez ba eban be, umiei
begiraka egon ondoren:

Gauazen, guazen emendik, zeuon zorakeriekin "difunteak"
bakerik galdu ez dagian be.

Eta umetxoei esan eutsen: la, gaurkoa ez daitela izan amagaz
gogoratzen zarien azkena. Bera zan erakua ba zan be, eten-etenda
laga zenduen eta or azkenean.

Umeak ez eben esaeraren luzetasun eta sakontasunik artu. Ba
ekiezan len bere antzerakuak entzuten.

ERIOZ-AURREA GOGORATZEN

Madalena'ren umeak ez euken artu-emon andirik errian.

Euren bizimodu berezia eroen.

Zaldu-errekan bizi ziran, erritik zerbait aldenduta eta urrunduta, erdi uts, erdi lagata egoten zan etxe zar eta arrakalatu baten.

Eskoletara be ez ziran joaten.

Errukiz inguratzeko, iñoiz iru umeak alboan artuta, irurekin lbiltzen zan ama, auzo errietan zear.

Erritik agertzen ez zan denporaldiak eukiten zitun.

Eukan bizimodurako ez zan zikin eta loi ikusten. Nunbaitetik baliatzen zan beretzako eta umientzako aiña jantzi ta soiñeko baten.

Umeak be ez euken gose ítxura andírík, naí ta ke usáin eta ke kolore baltzeranez ezagutu.

Ori, bai, bizi narraza igarten jakoen, atsegin eta poz gitxiko bizia, eguna tatarrez bete bear ebenen itxurakoa.

Ez amak, ez umeak, sekula osagillerik ez eben ezagutu.

Euren beraldi ta makalaldiak, ama berberak amakuntza ta erdi-bitzetan euki zitunak lez, Marta "Baltzak" jakin, eta osatu edo erazten zitun.

Auzo erri txiki baten bizi zan, sorgiña lako andre igar eta argal a, eta bedar eta ostoen indarrez eta graziz egiten zitun bere egitekoak. Origaitik, "Baltza'Yen gain, deitura ori familitik etorkiolako, berari, bere zeregiñetatik ataratako beste ez-izena emotan eutsen: Marta ígarra. Eta burlaz ekiten eutsenean, Marta ígarra, Lekeitio bedarra, esaten éutsen.

Bear ba da bere osagarri ta enplastoak ainbat bedarrez gertuten zitulako.

Madalenagana deitu eutsenean, lauremiña zalakoan asi jakon lenengo ortarako bedar ur eta osabidetan.

Eta egun batzutara, on itxurarik artzen ez eutsalako, beste gogortxuago, baiña erremedio egokíago batera jo eban. Txokolatetan zorriak sartuta emoten eutsazan goizean. Eguerdian, ardaotan. Eta illuntzerako arto bizarrakin egindako urepeletan.

Artegatu eta estutu egin zan, ikusi ebalako orrek be beretik atara eragin barik, egun gitxitan asko argaldu eta indargetuta laga ebalá.

Konturatu zan otzen batek artu ebalá Madalena, eta alboringoa (pulmonia) be batu ebalá.

Eta orretarako larra bedarra emoten asi jakon, birikak leundu edo garbitu eragiteko asmotan.

Baiña Madalen errukarria, zearo auldueta, auleriak (makaltasunak) jan eban, berakada bixkor baten.

Azkenean ez zan konturatu bere seme-alabatxuei agur egiteko unea eldu jakonagaz be. Eta areik be, euren sasi arteko eta ardura bako umetasunean, ez eben amaren azkenik igarri.

Bildurtu egin ziran abadeari deitzen.

Kanpairikjoteko be ez eben agindu.

Biaramonean eriotza jakin ondoren, eta etxera gorpu billa joan zanean, abadeak itandu eutsan Marta'ri, ia zegaitik, beretzat baiño geiago zala gaixoa igarri ondoren, erriko osagilleari deitu ez.

Marta'k bere aldetik erantzun eutsan, ia zergaitik osagilleak, eurak ezer egin al ez dabenetan, bera lako andra ez-jakiñakana joaten lagaten dautsen. Beragandik osagilleagana jotakoen artean, ez ebalala iñor ezagutzen arek osatutakorik. Eta berak, aregaz ezer lortu ez eta eskutuan beragana joandakoak, atzamarrekin kontatu eziñala agertuko zitula, abade berberaren amagandik asita.

- Nire amarik ez aítatu.
- Nire errurik be ez billatu.
- Osasuna dabil tartean.
- Onenean lez zure amarenean.
- Ortarako dagoz medikuak.
- Gu ez gaitu areik lez erosi diruak.
- Ori beste kanta bat da.
- Dana da emen diru kanta.
- Mesedez, erioitzeari lotsa.
- Aleri be atara bear poltsa.
- Andra txotxiña!
- Entzuten nago kanpai txiliña!

Eta or, bata arrotxo ta bestea destaintsu, bata zital eta bestea petral, amaitu eben itaun-erantzuna.

Eta bata kutxaren aurretik asi zan kantari, eta bestea gorpuaren etzetik, oialpean zelatari.

Iltegian batu arte, len esandako eran.

LEGEAREKIKO GORA-BERAK

Egunetara, udaletxeakoak lur emotea eta lur tokiaren ordaiña kobratu nai izan eben.

Eta txartela bíaldu eutsen seme-alabei. Kontua.

Oneik, bildurrez, Marta'ri erakutsi eutsen.

Marta'k, amorruz, auzoko "sasi letradu" bateri.

Orrek, kapitalisten sístemako jokabidea zala ori eta egokiago zan denpora baterako ondo gordeta eukiteko.

Lur-emontzailleari deitu eutsen ta gogor ekin, zelako agiri ta nor-tasunez sartu ete eban asarrez.

Onek, len be orrelakuak gertatu zirala-ta, ia berak zer egingo eban atsa dariola eroan eutsen bategaz.

Medikuari eskatu eutsen il papera.

Medikuak berari iñok ez eutsala deitu. Lenago be, orrelako baten, on ustez agiria emon eta alboringoz il zala esan eban baten, autopsia eskatu ebala babes edo asegurantza etxe batek, eta ez bear bateko usteldura eta pasmuz lerturta il zala agertu zalako, "tituloa" kendu nai izan eutsela, ta ez egoala geiago olgetan ibilteko.

Eta orduntxe bertan, iñok ziririk sartu aurretik, berak salatuten ebala Marta Baltza.

Epaitegira (juzgadura) joan zan. Eta an be ez egoan ezelako agerkairik, eriotza orren konturik iñok emon ez ebalako.

Eleizatik atara bearko zala zerbait.

Eta abadeak be, aren ofrendarik eta mezarik artu ez eban lez, eta bitartean beste eriotzarik ez zalako gertatu, burutik joanda eukan liburua betetea eta ezer egin barík.

Akolituari deitu eutsan ia gogoratzen zan zein egunetan lurperatu eben.

Eta akolituak, San Andres eguna zala.

Ondo ekiala, ofrenda eguna zalako, eta bera iltegian gertatu zalako, opil barík laga ebelako. Eta etxean kokolotzat artu eta zapladak be emon eutsezalako.

Gañera, kale baserritarra zan lez, etxean txarri iltea euki ebela egun orretan eta berandu eldu zala. Eta egun guztia orren penetan eta bestien irriz igaro ebala.

Ori entzun eta abadeak esan eutsan:

Bai, mutil, San Andres eguna izango zan. "San Andres txarriak askan trabes" da-ta.

Eta pentsaten jarri zan.

Zelan edo zer idatzi jakin ez, eta ordu erdiren bat galdu eban, idatzi bear ebana biribiltzen.

Juezaren eskabideak akikuloen bat ekarri eikiola, auzia zerbait luzatu eikeala, ta orrelako burutasunetan ebillan.

Eta azkenean, aurrez lapitzagaz idatzi, eta errukiz eta luzera begiratura, onelako au bete eban Eriotzetako liburuan:

"X.X.Madalena.

Eri ezaupiderako, "Zaldupe'ko Madalena".

36-40 urte bitartekoa

Ez jakin nuntarra.

Naparroatik etorria zala esaten dabe.

Ustez ezkondu bakoa. Amaren solteratako alaba zala, zabaldua da.

Iru ume itxi dauz, neska bi ta mutil bat, karidadean zeñek artuko.

Jainkoak jakin euren aitaren barri, bat lez iru eikezan-eta "Ostiatim" eskalea. Ez eban euki agiriko ondasunik, odol beroa besterik.

Erukitik bizi zan. Origaitik bere ezereza laga dautse seme alabei.

Zaldupe'ko basterrean dagon etxe zar baten batzen zan gaberrako.

Eleizakork ez eban artu, ez ortara ukatuko zalako, il eta biaramonerarte ez eustelako deitu baiño.

Semeak bataiatuak dírala ba dakit.

Bere gaixoa, esaten dabenez, auleria. Ez eben ekarri agiririk.

Deitu ebenean, eukiteko ez egoalako, itoentzako gertu egoten dan kutxa baten sartu ta an eroan eben.

Meza ta illetarik ez jako eskiñi, iñok eskatu ez dabelako.

Iltegi eta obiratzeko laguntzak "pura misericordia" egin dodaz.

Aurtengo Azilla'ren azken egunean obiratu zan.

LENENGO EGUNAK

Egunak igaro zituen umeak, eurena ez zan, baiña jauberik be agertzen ez zan etxe zarrean.

Alkarri begira.

Marta'k egiten eutsezan etxeko zeregiñak. Illuntzetan.

Lenengotik Madalena'ren jantziak erre zitun. Beste gaixoen bategandik bera jaubetu zan koltxoe zazkarra be bai.

Mutillak lasto gaiñean lo egiten eban, ol zabal biren erdian laututako baster baten.

Neskak ba euken erreka ondoan billatutako katre zar bat. Alkarregaz egiten eben lo.

Auntz bat be ba euken eta iru lau ollo. Eta arratoitan gitxi lako katu bi.

Danak batzen ziran gabaz barruko orma ta ate bako aterpe zabal aretan.

Oiturazko eben erdi-erdian, iru-lau arrien artean, su egitea. Origaitik aize ta abar tartetatik sartu ta ibiliarren, otz andirik ez eben igarten.

Oiturazko eben egunero berakatz sopa egitea. Batzen zituen ogi otondoak an beratzen zituen. Eta gero patatak. Iñoiz dendetan emoniko txorixo zati ta ondakiñekaz gorritu eta gurituta.

Eguerdikoa kalean egiten eben. Bakoitzak bere aldetik. Oituta egozan orretara, Eskeko diruekaz lutzarreriak erosi ta eurak janda alaxe bizi.

Illuntzetan, egunez batutako diruak emon eragiten eutsezan Marta'k. Urrengo baten zerbait erosteko bearko zala-ta. Edo ta ama barrien bat billatzeko. Orma zulo baten gorde eragiten eutsan zati bat, bat-bateko zerbait gertatuta be.

Laster asi ziran euren artean txopinka.

Bezperan baiño gitxiago egoala ta ez egoalaka. Ba egoala andik artzen ekian mozoloen bat.

Eta alkarri tirrika asten ba ziran, biziak ziran irurak be, erpaka ta zirt-zarteko iru lau zaplada alkarrerri emoteko pentsateko denporarik ez eben galtzen.

Igarten eban Marta'k berak gero ta indar gitxiago eukala onelakoetan bakea egiteko. Lenengo egunetako lotsarik be ez eukala. Eta bereak be ez zirala ta ez eukala zetan ain sakon sartu, ba-ezpada.

Marta'k joan al ezin ebanetan, Kalixta joaten zan eurekana. Au zan iltegian egon zan beste andrea. Marta'ren auzorik urrenena.

Onek, etxean sartu, eurei begiratu eta besterik ez eban esaten bere arteko au baiño:

Emen iru, Ana, Mari ta Kirru! Beste lau bat iraungo zitun, ba, amak, eurok koskondu arte! Gero laster egingo eutsen eurok egaz, baiña...! Bitartean nokzaindu ume pongolok?

Emen iru, Ana, Mari ta Kirru!

Eta txikiak igarri egin eutsen, eta origaitik, bera atean ikustean, neskari gaztenak esaten eutsan: Kalixta, ez ibili kontaten. Emen gagoz Ana, Mari ta Kirru!

Kalixta'k, sorgiña lakoa zan-eta, ainbat ipuin esaten eutsezan. Esan, iruditu eta abestu be bai.

Entzunak, ikasiak eta asmatuak.

Asmatuetan zorra eta traketa zan. Irudimen gitxi eta estukoa.

Baiña bera be konturatzen zan, ipuin jatorrak esatean, umeak geiago eskatzen ibili eta nekezago loak artzen zitula.

Asmatu eziñetan, ostera, eguneko nekearen nekez, irudimenari laga ta lo konkorrean ariñago gelditzen zirala.

Origaitik, bi edo iru jator esan orduko, umeak baixen arin bera be loak artzen eban. Bera lenago batzutan, umeak baiño.

Lo zorrottoa egin, eta esnatu ta umeak lo lodian igartean, bere etxera joaten zan danak baketan lagata.

Lendik be ba ekien umeak gabak bakarrik igaroten eta origaitik ez eben bakarrik geratzeko keixurik eukiten,

Eta gaixoren bat ezik, nekez esnatuten ziran, ekaitzik gogorre-nean be.

Kalixta'k esan lez, euren izenak jakiteko sasoia da:

Ana, txikiena, zortzi urte. Baltzeranaz. Ule kiri-kolauduna.

Mari, erdikoa, amar urte, Gorrirka. Eta begi urdin,

Eta mutilla, ez ain zuzen be Kirru, baiña bai beragaz bertsoa egi-teko erako izenduna: Txeru. Ala ta be, Kalixta'ren esaeratik eta bes-terengaitik, Kirru esaten eutsen errian, Au be gorrirka zan eta trapa-lote sendua.

GAU AIZETSUA

Aize zakartxua ebillan.

Txistu eta puts, soiñu eta auts.

Etxe zarraren orma artetan dindilizkako amaraunakegan.

Tella banaken bat aldatzen edo jausten be oartu edo igarten zan.

Lorik egin ezinda, bere oean, Kirru.

Ana ta Mari be, alkarri bultzadaka, alkarregaz txopinka, egokitasunik ezin billatuta.

- Errezaten ba dakizu?

- Eta zuk?

- Ama izango da, bear ba da, beregaz gitxi gogoratu garelako edo.

- Bai zera be.

- Aizea arimea ez da ba?

- Nok esan dau ori?

- Ez dakizu Kalixta'k zelan esaten eban, arimak aizetan ibliten dirala, zeruetan tokia egin arte?

- Zerua estua dalakuan?

- Eta kanposantutik zelan joaten dira ba zerura?

- Arutzago joan zaite, ipurdia zuzendu, sakadaka neu oetik kanporajaurti barik.

- Toki asko bear dozu. Loditu egin zara atzotik gaurrera?

- Ni loditu? Begiratu zeuk. Oe guztia zeuk artzen dozu. Tokirik ez daustazu lagaten.

- Txeru!

Ixilik.

- Txeru, entzuten?

- Laga eidazue lotan, jo-pé!

- Onek oetik kanpora atarako nau.

- Guzurra! Manta guztia berorrek darabil.

Amesetan dabil, txotxinkeriak esaten, ama dabillala aizetan-eta.

- Zegaitik ez dozu sua pixkat amataten,

- Jaiki zeu eta zeuk egin.

- Urik ez dago.

- Ez da bear be.

- Ez dakizu amak, aizea egoanetan, zelan itzalduten eban?

- Ez daukagu ezer erretoko.

- Amak be ez.

- Arek bere oetik urrean eukiten ebalako.
- Egizu, Txeru, bestela bildurtuta lorik ez dot egingo-ta.
- La mar!
- Lenago be egiten zendun-eta.
- Joroba!
- Ezin au egin?

Eta Txeru'k, bere oe zulotik urten, eta arri batzuk ipini eutsazan suari gaiñean.

Eta orretan iñarduala, kaltzontzillorik erarbilten ez ebalako, bere zereko-zerak agirian erabillazalako, Ana'k, bere mantaartetik, deitu eutsan:

- E-eup, popa bistan!

Oituta egoan Txeru orrelakoak entzuten, eta ez eutsan jaramonik egin ez erantzun.

- Aterpea illundu zan.

Oera biurtzean zerbaít jo ta aí-ene! mintsu bat urten eutsan eta lengo "la mar!" eri, mekagoen bat geitu.

- Txeru!
- Zeuokaitik.
- Min?
- Jo-pé! Oe ertza jo dot belaunagaz.
- Odolik?
- Batek ba daki, ez da ezer ikusten-eta.
- Igarri be ez?
- Ez.
- Zegaitik berba txarrak esaten beti?
- Neuk lez artu ba zendu...!
- Baiña berba txarra esan dozu.
- Zer esan dot, ba?

- Amari agindu zeuntsan orrelako barbarik ez zendula geiago esango.

- Ixilik, e? Nik, ointxe be, Kristo'ri baketan laga dauzat-eta.

Eta laga lo egiten, oraindik gaba dalako.

- Zer ordu da?

Eguna etorri arte lo ez da egin bear ba?

Auntzak beee egin eban.

Entzuten? Ori egon ezinda asten ba da nok atarako dau?

Danak ixildu egin ziran.

KEZKETAN

Ixildu bai egin ziran.

Lo naian buruak estaldu zituen.

Iñor ete ebillan atean?

Bai zera, aizea.

Korroskadaka asi zan laster Txeru. Mari be tontor geratu. Baiña

Ana urduri egoan.

Aiztatxujota...

- Dardaraka nago.

- Mielgal

- Bildur andia daukat.

- Merengea!

- Kaka gurea be bai.

- Egin.

- Lagundu.

- Baita zera be. Ume mantokua ba ziña be!

Poto zarra artu ta egin.

- Ez dakit nun dagon.

- Billatu.

-Nun?

- Edonun. Edozelako poto zar bat. Eta poto ta guzti lenengotik jaurti leiotik erre kara.

- Bildurtu egiten naz.

- Eutsi, orretara.

- Ezin baiña.

-Ene ba...!

Ez, aizea izan da.

- Zikiñal Joan zaite emendik. Atzo be txokolatea jan da jan ibili ziñan eta nunbaitetik urten egin bear.

- Puskarra izan da.

Zarata bakua. Txarrago. Usteloi! Kendu, kendu nire ondotik. Nor egon zure onduan?

-Maril Parkatu...

- Etxe guztia atsez beteta, parkatu?

- Orí ez. Ez dozu atean zerbaít igarten?

- Aizea izango da.

- Ez da, ez.

- Brastaden bat.

- Ez da, ez.

Begira... bai... begira...

Zabaldu egiten da.

- Ezin. Aize boladetan da ori.

- Ez da. Norbaiten eskua igarten da. Trangala zabaldu naian dabillala esan lei.

- Begitanziñoia.

- Ezetz!

Auntzak be irutan beee egin eban.

- Txeru!

- Ez zaitetz txotxiña izan eta ixildu.

- Norbait dabil atean.

- Baita zera be.

- Baietz.

- Begiko kanikak lanbrotuta eukiko dozuz, zuk.

- Benetan nabil.

- Mari! Kalenturia dauka Ana'k?

- Barru ustela bai.

- Norbait dabillala, sinistu.

- Iñor ba dabil, aterpea nai daben eskaleren bat izango da. Amaren lagunen bat.

- Ez zan iñor gabaz etorten.

- Moskorren bat izan lei.

- Zetan etorriko dira ba onera?

- Eta ama ba litz?

- Burutik zabiltz?

- Ezin leike, ala?

- Beste iñori ez eta guri?

Ama izan ba litz dei egingo eban, ate josten ibili barik.

Ba ebillan, benetan be, norbait, atadian.

Argi ta guzti. Argi motel, erraz itzaltzen zana.

Aize brastadetan baliatzen zan atea zabaldu naian.

Umeak, ikaratuta, eupadaka eta kanporaka asi ziran, barrutik.

Eta zana zalakoak iges egin eban alako baten, umeak urdurí eta kezketan lagata.

LAPUR MAKALA?

Kalixta eldu zan goizean, beste egunetako orduan.

Kanpotik eskua sartu ta trangelik ezin billatuta ibili zan. Konturatu zan bere tokitik alderdi bat urtenda eukala. Baiña goizaldeko aizearen zirikadetan bere zulotik urten eta jausiko zala pentsatu eban eta sartu zan.

Urduri eta larri billatu zitun umeak.

Sartu orduko esan eutsen zer ikusi eben, gabean zer gertatu jakoen.

Sinistu nai ez.

Baiña irurak ziran eskua atean ibilten igarri ebenak eta irurak ziran argi illun bat bertan oartu ebenak.

Bata bestearen gain, bildurra etetearren edo bildurrak eraginda, goizaldeko gertaera kontatu eben. Mozorro, sorgin, aker eta iruditzen zituenak geituta.

Kalixtarentzat eskalaren bat izango zan.

Baiña goizaldeko ordu orreitan aterperatu barik ibili eikean eska-lea, nor izango? Ez eban iñor ezagutzen inguruan ordu orreitan ibiltentzanik.

Txala saltzen errira etorritako baserritarren bat izan eukean... Txalaren diruak zoratuta, moskortu ondoren. Baiña txal saltzailleak eguerditako moskorrak izaten dira, ez goizaldetakoak.

Inguru aretan Tomas izan ezik, gaitz zan beste bat gertaterik. Eta ain zuzen Tomas'ek ez eban txalik saldu. Ziur ekian, eta urten be ez etxetik egunotan, gaixo ebillalako.

Ta lapurrak izatekotan?

Edozein be lapur makala, orrelako aterpe baten ezer egon eikeala pentsatu eikeana.

Moskorren bat?

Moskorra kaleko txurlaria da eta ez mendiartekoa. Urrun egiten da toki a kaletik eta bakartadean. Moskorrak portu aldeko karkabak maiteago izaten ditue, eta euretan egoten diran bela eta sareak, bigunean lo egiteko be.

Eta Kalixta be, umeak poztu eta gertatuari indarra kendu naian alaitsu agertuarren, bere kezka eta bere barruko arra erakusten asi zan.

Ezin eskutatu zurbiltasunik.

Egun ori erdi kale ta erdi erreka ondo, beste gaitz andi barik igaro eben neska mutillak.

Zaldupe'tik urrundu barik eta inguruko larrarte eta arbola atzeei begirik galdu barik.

Gaberako ziran kontuak.

Ez eben nai aterpe aretan lo egin. Betiko sopa be gogo barik jan eben. Igarri barik ok egin,

Dardaraka egozan.

Azkenean be Kalixta'k ez eban beste erremediorik euki berak ondo ezagutzen zitun Garoa'koei zerbait esan eta mesedez iru-lau gauetan antxe lo egiten lagateko eskatzea baiño.

Onak eta borondate andikoak ziran Garoakoak. Baiña ez eben nai izaten Zaldupe'n batzen ziran ijito, motxale eta bizibide narraze-ko jendeekaz traturik euki.

Eta ez emonkorrak ez ziralako.

Ume oneik andik ibiltzen ziranetik, esanda euken atean sartu barik, aurreko aulki baten lagako eutsela egunean emon eikioen jatekoa. Eta alaxe iñoiz lapikoko ondakiña be lagaten eutsen.

Baiña artu-emonik ez eben nai.

Antxe egin eutsen, orraitio, aterpea, sabaian, neska bie. Mutillari ez.

Euren siniskeretan, nai ta anai-arrebak izan, ez zan itxurako alkarregaz lo egitea.

Origaitik Kalixta'k Beitiz'en be oles egin eban eta ango andreak bereala erantzun orrelako gertaera baten baserriko aterik iñori ez jakola sarratu bear.

Alaxe igaro zituen egun batzuk.

Ez asko.

Eguna alkarregaz kalean eskean ibili eta gozo jaten igaro ondoren, naigabez banatzen ziran gabeen.

Txeru'ri luze eta nekez joaten yakon gabaren itzala eta ixilla. Eta atsekabe ori agertzen eutsan Kalixta'ri.

Euren gogo eta ekiña ikusita, Kalixta eta Marta'k umeak barriro euren Zaldupe'ko aterpera eroatea erabagi eben, nai eta gabetan, txandaka, eurak geratu, bietako bat, lagun egiten.

Ba ekien, gaiñera. Garoa'n ez ebela nai kalean ezer jakiterik, euren bizi zirala iñokjakiterik.

Orgaitik zerbait esanda egozan eta edozein egunetan andik aldatzekotan.

AZKEN GABEAN

Garoa'n igaro bear eben azken gaua zan.

Itargi barri.

Illun.

Epeletik otzera bitarteko giroa.

Gau geldia.

Zabal lo egiten eben neska biak an, etxeko aguraen baten katre zarra gertuta eukelako sabai egalean,

Sasoiz joan ziran lotara. Ia ango zarrak aginduta edo bialduta.

Etxeko mutil zarragaz olgetan be ibili ziran. Gaztain erre batzuk be emon eutsezan onek.

Eta azkenengo gaua zalako, bestetan ez lez kontu kontari eta jolasean ibili ziran.

Goizeko seirak aldean, Mari itxartu zanean, bere aitzaren utsu-nea igarri eban.

Deika asi zan,

Eta erantzunik ez.

Jaiki zan, egalen baten premiñaren bat egiten egongo zalakoan.

Deitu barriro ta erantzunik ez.

Larritu zan.

Urten eban etxe ondora. Ez zan an ezer igarten. Txakurra be zaunka asi zan,

Negarrez asi zan.

Ixil lenengotan, baiña gero ta intziri ta ulu zoliagoz.

Garoa'ko zarrak zerbait igarri eta urten eben, parola bistuta, Neskatoa billatu eben.

Zer gertaten da?

Ana falta da.

Zetan kaleratu zara?

Ana falta da. Ez dakit nun dagon. Ez dakit noiz urten daben. Oean ez dago.

Noiztik falta da?

Ez dakit. Esnatu naizenean ez egoan.

Etxeko guztiak urten eben, batzuk deituta, besteak zerbait gertaten zala igarrita.

Arteगतu ziran.

Ez eben ezer oartu gabeen.

Txakurrak be ez eban zaunkik egin, goiza arte. Baiña ordukoa Marigaitik izango zan.

Eta Mari'k, negar eta inkesa artean, ebagitako berbakin, jakin erazi eban, esnatu zanean eta bakarrik ikusi, orduntxe asi zala aizta-
ren billa. Bestela bera ez zala urtengo.

Inguruak aztertu zituen.

Etxeondoko soloan mallastoak egozan bakarrik. Bestelakorik ezer ez. Eta mallasto artean be ez zan agiri. Ez eban erantzuten egi-
ten ziran dei eta eupadei.

Beitz'era be joan ziran, bildurtuta edo beroen batek zoratuta, nebarengana joan ete zan.

Errekondora be joan ziran. Ango ia eta kañabera artean esku eta makillaz tarteak zabaldu eta dana arakatu eben.

Eurentzat olakoxeren bat gertatuko zan. Burua galduta urten, edo egalen batera urtenda galdu.

Bide luzean ikusi eben ibai ertza.

Txanela lotzen eben agaetara eldu ziran.

Aga luze artean eukiten eben ibaia igaroteko erabilten eben etxeko txanela.

Inguru areitako baserritar guztiak eukiten dabe orrelako bat.

Etatxanelafaltazan.

- Morroia etxean ez dago ba?
- Etxean ez, emen naukazue.
- Eta gure mutilzarra?
- Atzetik dabil, guk ikusia obeto aztertzen.
- Eta ama eta Kontze be etxean ez dagoz ba?
- Danok etxean egonda, zelan dago txanela beste aldean?

Zeiñek erabili eikean?

Morroiak ez eban euki iñok agintzerik.

Laster ikusiko dot, neu juango naz bertara, esan eban, eta igarri-
riko dot zeñek laga daben an.

Txanela lotzeko eratik igarten eban, oituraz, zein ibili zan azke-
nengo.

Berez.

Eta urandirik ez egoala-ta, mare berakoa be ba zalako, sartu zan errekan, soiñeko ta guzti, eta egaletan ez, baiña erdi aldean ia gerritik gora urez beteta, lortu eban beste aldera igarotea.

Txanelak agei lotuta lagaten diran tokiak, beti be sakonagoak izaten dira. Origaitik, lenengo, lurra errez artzen zan tokira urreratu zan eta legorretik txanelera sartu.

Urduri eldu zan.

Sokak azkatu eta konturatu zan korapillo a ez zala etxekoen batek egiña.

Beti ebiltzanak ez beintzat.

Erramu bakarragaz, ondoa jo ta bultzadaka etorralla, konturatu zan txanel barruan txipli-txaplaka ebillan ur artean, zerbait ebillala.

Zapatatxu txiki bat zan.

Eta bere alderdiko ibarrera eldu baiño len, deika asi zan:

- Ez da etxekoa izan baiña ba dago emen arrastoen bat. Ana txikia txanel onetan eroan dabe.

- Zelan dakizu?

- Berea izan leiken oiñetako bat emen dago.

Alkarri begira geratu ziran.

Mari garraxika, negarrez.

Zarrak burua markutu eban, eta iñok ez ebala ezer esaten igarri ebanean, danak entzuteko eran esan eban:

- Lapurretan egin dabe Garoa'n.

Eta geurea ez dan zerbait ostu.

Egin kontu, ostatua emonda geunkanetik, gauza onetarako, etxeko lez artu bear dogula.

Ni bizi ba naz...

Garratza da au. Famili eta etxean izen ona laidotzeko bein edo beir gertaten dana.

Negargarria eta lotsagarria be bai.

Mari, ziur zagoz zapatatxu ori zure aitzarena dala?

- Zeiñena izango da ba?

- Ibilten dira kaletar umeak ingurura etorrita agure txaneletan.

- Uda aldian bai.

- Eta neguan ez ala?

- Aiztearena da, benetan?

Mari, negarrez, ikusi be ezinda ebillan. Eta abotsik ezin atarata. Berbarik ezin alkartuta.

Eta besteen itaunei alako baten be erantzun eutsan:

- Bai, Ana'rena da.

Etxera, Garoa'ra biurtzen asi ziran.

Norbaitek esan eban:

- Eta bera izan ba da?

- Zein, Ana?

- Dana pentsatu bear da.

- Ordu oneitan, bakarrik... Zeiñek sinistuko leuke orrelako kasketaldi bat?

Orixe, kasketaldia be...

- Ez, ez eban orrelakorik pentsaten, ziu dakit, bldurtu egltan zan gaiñera txanelean ibiltan, esan eban mintsu eta dardarati, Mari'k.

Eta etxeko zarrak be, bere ustea bide orretatik ez eioala esateko aiña agertu eban itaun au egitean:

- Zortzi urteko ume txiki batek, neskak gaiñera, egin ete leike berak bakarrik orrelakorik?



ZUR JOKATU NAIRIK

Garoe'ko zarra jakintsua zan,

Berezko doaiez.

Berezko etorri eta ekarriz.

Bizitzako edozelako gertaeretatik, zentzuzko zerbait erraz ataraten eban.

Buruz argia, eta bizitzan, neurritz artutako bizitzan, irakatsi asko gordea,

Esaera zarrak erabili ta erakusten be, gitxi lakoa, Eta bereak be tartetan sartuta,

Egutegi, liburu, paper, eta ostantzeko, irakurri, gorde eta etxean biribiltzen eta agertzen ikasia.

Gizon zabala zan, kuntzurrenetatik lotu samarra.

Trapalotea ibiltzen, anketatik zapala.

Alaia eta egokia tratuan. Leun eta gozoa.

Une bereko gauzei ondorena lotzen oitua.

Entzuten ikasia, baiña agintzen be zalea,

Agintarien gogoko, Lotsakor beintzat.

Eguzkia nora zapiak ara, ez zala irriz artu bear esaten ekian, gizonak berez eta eskutuko indarrez eban joera lez baiño.

Agintaria, ondo autua ba zan, birritan berbatutako gizona zala, esaten ekian,

Eta gizona zalako, erabagia be birritan pentsatu eta aztertu ondoren artu bear zala. Asko neurtuta.

Ori, askotan, bere etxe jauntzarako zurtasuna zela-ala erakustearren esaten eban.

Sarri entzuten jakon esaera bat gogoratzen: "Ez egik ezer, endorea, entzun artían bestea".

Orrelako esaera zurrak urrezkoak ziralta ta danak jakin bearrekoak, eta ormetan, beste tentelkeri askoren orde, idatzita egon bear ziran guraria agertzen eban.

Origaitik besteei itanduten eutsen, iñoiz zalantzaren baten ikusten zituanean:

- Zer egingo zenduke zuk orrelako gertaera baten?

Nori deitu, norajo, nun sartu, nun eten?

Garoa'ko morroia giputxa zan.

Mendaro ingurukoa.

Ez dakit mutrikuar ala elgoibartar. Berak sekula ez eban bereizten ainbesterik. Premiña euki ebanean, Azpilgoeta'ko eleizatik atara zitun paper eta agiriak, eta berak ez ekian besterik.

Beretzat Mendaro. Ta esatekoa esanda egoan oparo.

Mendarotarrak ba dauke euren esaeratoa: Bizkotxotan lan eta arriolatan lan.

Basatiazan. Basokoa, esan daidan. Baiñafiña.

Baserria lako eskola gitxi egozala esaten eban arrotasunez, kaletarrak asmotxak izango zirala geituz, baiña baserriarrak ego-kiak, egitsuak eta eratsuak.

Jai illuntzetan ba ekian tabernetara joan eta aste guztiko "ale-grantzia" billatu ta artzen.

Baiña astelen goizean, egunagaz batera, an egongo zan zere-gintxuren bat egiten.

Zarrak laster igarten eutsan nundik ibilia zan eta arpegira esan be bai, erdi zirika, erdi adar jote ta erdi erreprentsiñoa emoten: Ez dakit ba gaur egoki, egitsu eta eratsu asteari asiera emongo dautsa-zun.

Eta berak erantzuten eutsan: Zapatuak esango dau zein nor dan.

Artu-emon onean bizi ziran biak.

Ama zarra ogi bedeinkatua lakoxea zan. Danantzako. Gizonarentzat, morroiarentzat eta etxean neskazar geldituta egoan Kontze'rentzat.

Eta Kontze...

Neskazar geratu eta biziteko jaioa.

Berak naiku eta geiegi eukala san Antonio'ren kutun izanda, esaten ekian.

Eta pozik bizi zan.

Euki zitun mandatariak. Etxe jauntzarakoak eta dirudunak. Baiña ez eutsan iñori aurrerapiderik emon. Danei erantzun bardiña emoten eutsen. Bera pozik egoala bere zoriagaz.

Etxekoak ez eben asko zirikatu, Ordurarte euken bake ta zoriona ez zirala edozelan saldu bear eta urteak egingo ebela argi.

Orrelako etxe baterako oraingo gertaera au benetan mingarri eta keskatia zan.

Amak, jakin ebanean, ez eban ezer esan, baiña igarri jakon bere espanetan otoitzen bat ebillala.

Kontze, ostera, san Antonio'ri arrenka asi zan, iñok agertzeko-tan aretxek lortuko ebala zerbait jakitea-ta.

Gizonak beste erara ebiltzan: Zein izan eikean, zegaitik, zeren billa, zelan jokatu, nori esan, nun adierazi eta abar erabillezan euren alkar-jardunetan.

Alako baten Garoa zarrak, etxeko atadian sartu barik, danei begiratu eta esan eban:

- Zenbat gagoz?
- Zortzi.
- Bost Garoa'ko, besteak Beitiz'koak.
- Beitiz'en ba dagoz geiago, zer jakingo.

Dana dala, ba dakizue zer egingo neuken nik?

Danok batera jokatzea komeniko da.

- Ori, bakoitza bere bidetik barik, danok batera.

- Ba danok batera ixilik egon gaitezan.

- Ixilik egonda zer lortuko dogu, Garoa? Zure eritzia ona izan lei, baiña lortuko ete dogu ezer?

Eta Beitiz, zuk be bizimoduko kontuen barri ba dakizu-ta, berba eginda lortuko al dogu ezer?

Ara, egun batzutan, gure artetik ezek urteten ez ba dau, kanpoan esan eikenaren adi egon giñei. Berba bakar bat bera izango da jokabide baten bidea erakutsi leikena.

- Eta Marta ta Kalixta?, esan eban ordurarte ixilik egon zan Txeru'k.

Gaztetatik zatoz zur, esan eutsan, lepoan joaz, morroiak. Areikin be pentsatu bear da, egia da.

Nire kontu.



ZELAN JOKATU?

Zeñek ixildu eragin Kalixta eta Marta'ri, zer gertatu an jakin eragin eutsenean?

Ez egozan sinistuteko.

Ez baketan lagateko be.

Bereala asi bear zan neskatxoaren billa.

Alketeari jakin eragin.

Auzo errietara be deitu.

Kalez kale pregoia jo.

Ibai ondoa lagun askogaz azertu.

Mare gorakoak ez eukan indarrik. Baiña berakoan korrentak eroan eikean bere gorputza, adar edo zakar moltsoen baten lotuta edo estututa geratu eikean.

Neskatoa, Zaldupe'ko gabaren bildurrez, barriro gertu eikeanaren bildurrez burua galduta igeska asi ba zan?

Edo ta, itxura baten, txanelean joan arren, makaltasunak artuta, basterren batera jausita geratu ba zan, eta oraindik laguntza premiñan ba egoan?

Zeñek esan lapurren batek eroango ebalá, aizta biak lotan egon eta bata konturatu ez, onelako gertaera baten egin eikean atzerakada, didar, negar, indar, gogortada eta abar?

Eta Garoa'n txakurra egon, eta gabean ingurutan iñor ebillala konturatu ez?

Iñok ez eban entzun, beiñik-bein, bere zaunkarik eta igarri be ez bere urduritasunik.

Eta zegaitik ama il da gero, alaba ostu naí, len iru umeekaz tatarrez bizi zan artean, iñok eskatu ez da?

- Ori nok daki?

- Iñok jakitekotan, nik jakingo neban. Ba ekiazan Madalena'k ori baiño sakonagoak niri agertzen.

- Ortik ez asi, ortik ez, orretara eldu ezkerro laster arrapatuko zeunkedaz-eta,

Ba ekian Malen'ek bere gurasoak nortzuk ziran?

- Ama bai, ezagutu eban. Askok ezagutu gendun. Sotera ez zan ba?

Nungo Sotera? Doate, txikiña, Doate.

- Dana dala, bardin samar da. Bata nai beste, ondo gatza emonda geratu zan aren izatea.

- Ez dago itxurarik. Zeuk biztu dozu beintzat.

Eta aita... Ene ba! Asko da Garoa'ko agure jakitunak, erabili eban bolara erabilia, ez jakitea.

An, Errenderi atzeko etxe andiko ormak jakingo eben zerbait.

- Esaerak. Betiko kontu zistriñak. Gizaldien gizaldietan odolak bero iraungo ba leuken lez.

Gerrarako arra egotea da bat. Bizi barrietarako esnea eukitea bestea.

Etxe andi aretakoak be, gerrarako izan ziran lez, ume-giñarako ausartu ba ziran, galduko ete zan euren abizenik?

Gañera, au ez da unea antxiñako zapi zikin eta likiñak agertzen asteko.

Zital agertzen asi zan Garoa'ko zarra, besteen esan-mesanak entzutean.

Alaz eta Kalixta eta Marta'k eurenetik ez eben urteten:

- Agirikoa gauza bat da:

Neska, ume bat galdu egin dala.

- Ostu edo iges, eroan edo bera joan, galdua dala. Ez dala agertzen. Beraz galdua dala. Orixe ziurra.

Eta billatu egin bear dala.

- Asiko gara kalixta, biok, etxerik etxe?

Mesedez, ez egizue zorakeririk egin.

Gauza bat gogoan euki: Neska, edo umea, nai dana, berez joan bada...

- Ezin leikela ori.

- Zegaitik ez?

Mari'k esan dau len, loak artu arte, eguneko kontuak esaten ibili zirala, ezelako kezka, negar, urduritasun edo ardura barik.

- Bai, amagana joan bear gendula be esan gendun.

Lorak eroan bear genduzala bere lurrondora. Eta onek, Kontze,k esan euskun, zintzo eta onak ba giñan, berak atarako ebalá meza bat gure amaren alde.

Eta araxe be zelako jantziagaz joango giñan pentsaten ibili giñan.

- Egia, nik agindu neutsen ori.

-Ta?

- Ez dagola arrazoirik, neskak, berez, bere burutik, zerbait egingo ebalá pentsateko.

- Zoro aize bat ez al da naiko izaten?

- Aurretik kasketaldiak eukita.

- Laka daigun ori.

Danok batera jokatu daigun.

Ez dakizue Marku'ren irakatsirik? Au be zabal ibili zan ba jende artean.

Aldian erabilten zitun bere diruak. Orduko ogerlekotan. Gaurkoak baiño zidartsuagotan.

Batari ta besteei erakusten arro, era bateko gaixoak eukiten daben arrotasunez.

Ogerleko askotxo ziran eta norbait zirikatu eben.

Ostu egin eutsezan bein.

Marku'k ez eban ezer esan.

Egun beretik kalean ikusten zan. Betiko antzera. Etxean be ezer aitatu barik. Iñori agerbiderik txikiena be emon barik. Asmotxa zan eta beretarra.

Andik illetara, ezagun bat urreratu jakon.

- Kaixo Marku! Ako lenako diru eder areik ostu egin eutsuezan?

Zeu zara!, urten eutsan Marku'ri barru-barrutik.

Iñok ez ekian ezer, eta nundik ostu ete eutsezan-ka?

Berez agertu zan lapurra.

Bardintsu jokatu bear genduke onetan.

Ixilik ba gagoz, agertu leike norbait zerbait itanduten. Olakorik ba'litz, une berbertan txoria lakioan jausita geratuko litzake. Ez da egia?

Bestera...

Konturatu zarie, lapurrak bere atzetik iñor dabillala jakin, eta umea eskutatearren, txarrena pentsatu daigun,...

- Zer litzake txarrena?

Ume ori il edo nunbaitera jaurtiko ba leu?

Bildurra sartu eban esaera onek. Eta jarraitu eban:

Egun batzutan ixil egon gaitzezan.

Etorriko dira gero, gertaerak ikusita, gure jokabidea aztertu edo aldatu bearreko egunak,

- Orrela nai ba dozue... ni, garbi esatera nua, ez naz zuen eritxi-ko ta ez dot jakin nai izango ezer, esan eban Marta'k, zoli eta ia beretik urtenda.

Niri iñok ez dausta burutik gertaera au kendu eragingo. Eta ixilik egon bear ba naz... ba nua neure etxetxora. Laster jakingo dot zuek buru argiok zer lortzen dozuen.

LORA BARRIAK

Besteak laga ondoren, Kalixta eta Marta'k zer erabili eta zer erabagi eben... atzamarra sutan ipini lei igarri baietz. Gaitz zan arek bestien esanetara makurtzea.

Orrela, andik ordu gitxitara, erreka ondoan ikusten ziran biak, Alliri baserriaren azpi ingurutan.

Bear ba da iñok ez eban pentsatuko, an ikusiarren, gauza berezirik eta gitxiago gauza txarrik.

Askorentzat Marta bere osabide eta enplastuetarako bedarretan ibiliko zan, nai eta erreka ondo azertu eta arakatzen ebela konturatzean galdutako zerbaiten billa ete ebiltzan norbaitzuei burutatu.

Ez ziran luzaro ibili. Itxurak zaindu nairik edo, laster aldatu ziran.

Bildur ziran, bear ba da, Garoa'ko agureak, andik igaroeran, txotxin eta txatxalatatzat artuko zitulakoan.

Ikusten eben bere etxeko atadiaren egalean an egoala zur, zetan eta nun ebiltzan konturatuta.

Andik bide barrira igo ziran.

Bide barrian, mendi bidea artu, Kamiñalde gaiñetik Koskabil'dik zear igoten igarri zitun.

Etagorajoaten.

Kanposantura eta duaz andra zoro orreik?, esan eban beretzako.

Alaxe gertaten zan.

Atea itxita billatuarren, ba ekien iltegrira nundik sartu, atzeko atetik, linboko atea deitzen eutsenetik.

Madalena'ren illobi aurrera eldu ziran.

Eta biak, Aitarenka asi ziran, ao zabalik, alkarri begira, ikusten ebena sinistu nai ez-ta.

Lur gaiñean, lore txorta txiki bat egoan. Neguko lora bakar batzukín osotuta.

Bear ba da goiz aretan ipinia.

Begiratu eben illobi andietara, eta ain zuzen beste iñok ez eukan lorarik, igartutako txorta ondakin batzuk ezik.

Nor izan ete eikean, bere bostean, orretarajoan zana?

Egin ete eikean Ana'k orrelako egitadarik?

Berak ipinia ba zan, bizi zala ziurra zan.

Edo ta ume bakoen bat ete? Amaren maitasuna aitzaki artuta, umearen ontasunagaz orrela jaubetzea lortu eban lapur jakintsuren bat ete?

Orretara, ama ta umearen jatorria ba ekiana zan.

Baiña, jaio ezkeru, zortzi urtetan iñor arduratu ete zan ume orrei-kaz? Eta Madalena berberak iñoren laguntasunik artu ete eban, agi-rian ez ba zan be, eskutuan beintzat arduratzen zan norbait bitarte-an ba egoala erakusten?

Ziur egozan biak onetan ez egoala oiñarririk.

Bi esaten ziran Madalena'ren adiskide lez ume orren jaiotza gertatu zanean. Baiña berak ukatu egiten eban. Alaz eta itxas-ondamendi bat gertatu zanean, sekula ez-da Madalena illetara joaten ezagutu eben. Eta itxas ondamendi orretan ondatu ta itto ziran Manu eta Txeru, alkarren lengusuak, eta Ana'ren aitatakotzat izentaten zituenak. Izena bera, Ana, zerbaitegaitik ipina izango zan. Manu'ren ama Ana zan, izen bereko zan Txeru'ren arreba be. Beraz...

Ba ziran lau urte inguru ondamendi a gertatu zala.

Iltegiko arduradunari, zerbait esatearren, eta an ikusteari aitzakia bilatzearren, Madalena'gaz gogoratu zirala, areri jaramon andirik iñok ez eutsala egingo, eta ostera bat egin ebela, esan eutsen, kurutze txikien bat nunbaiten ba egoan ipinteko asmotan.

la seme-alabarik andik joaten ete zan be itandu eutsen, nai ta ziur jakin oraindik urreratzeko egozala.

Ezagutu be ez zitula ondo egiten, erantzun eutsen lur-emoleak. Eta lur azpian egoana obeto egoala gaurko munduan bizi bear diran asko baiño geitu eutsen, eta bera ez zala arrituten orrelako ume txikiak andik zear ez agertzeagaz.

Beste askoren ondorengo asko be ez zirala andik ikusten, nai ta lenengotan lore, marmolarri eta argitan, arrokeri eta maitekeri asko erabili.

Lore txorta bat ikusi ebela bere obi gaiñean eta orrek asko arritu zitula...

Sorginkeria irudiala, erantzun eutsen, berak andik zear iñor ez ebala ikusi-ta.

Jesus! Miraria dirudi, urten eutsan Marta'ri.

Miraria, andrea? Kanposantu onetan dagozanetatik ni-neuk ezneuke olakorik itxarongo. Emen, gauzak, lurpean dabiltz beti, bateko ta besteko esaerak beste zerbait erakutsiarren.

Oraindiño, niri beintzat, iñok barrerik ez daust egin bere zulotik. Eta emen daruadazan ogei urtetan millak ikusi dodaz.

- Aberatsak geiago.
- Emen danak bardin.

- Ikusi, esan nai dot. Areík erakutsí nai izaten dituez euren jantzi, pitxi ta abar.

- Danak bardin usteltzen dira.
- Barrerik ez dautsuela egin esan dozu. Eta negarrik bai?
- Miñik be agertu ez, iñoiz agiñak kenduarren be.
- Agiñak kendu? Norí?
- Ba dakie etxeakoak urrezko agiñen billa etorten.
- Ez egizu olakorik esan.

Urreak zoratu eragiten dabela ez dabe esaten? Eta zenbat eta arroago, zoroago. Ez dakizue esaera zarra? "Urrungoa urrez, urretik lurrez". Olakoxeak dira andiki lez agertzen diran asko.

- Eta au ikusi zendun?
- Ikusteko al egoan?
- Bestien antzean.
- Ez zegoezan biok emen?
- Buru ona daukazu.
- Biotza obeago.
- Alasinistu ezker...
- Ba dakit atsa dariola etorrara...
- Ekarri ebela.
- Bere seme alabak ez ziran ba etorri ziran irurak?
- Bai, mutilla, zarrena ta neska bi ondorengoak.
- Bizi dira?
- Ezjakin be...
- Jakin ez?
- Kalixta, bizi dira?
- Neuk beste dakizu, Marta.
- Eta nun bizi dira, Zaldupe'n?
- Kalixta, Zaldupe'n bizi dira ez?
- Marta, gaur ara joateko ez dira ba?
- Ez dira an bizi, ala?
- Zuek biok ez ziñen ba euron arduradun geratu?
- Nondik dakizu ori?
- Abadeak esan eban lengo baten.
- Ara, egia esango dautsugu.
- Kalixta, ni ez nua ezer esatera, e?
- Oneri baintzat esan bear dausagu, Marta.

Esan geinkena ez da orrenbestekoa be. Ez beintzat Garoa'ko zarraren naietan eukitekoa.

Gaiñera, ez al da berau euren amaren gorpuaren zaintzalle?

Eta Kalixta,
esan eta esateko,
kontu kontari asi zan,
bata amaitu orduko bestea biribildu eta itxuratzen.
Amaren illeta ondoren,
Zaldupe'ko aterpeko bakar egunak, baketsuak lenengotan,
azkenean gau bildurgarri aretan sartzeko.

Gero, umien ikara eta etsipena,
eta euren bildur eta kezka.
Umien aterpea aldatzea,
nun eta zelan lo egiten eben geroztik,
eta goiz aretako urte bagako gertaera sorgintsua,
sorgiñena edo deabruren baten egiñena,
edo ama baten itsutasunak alaba txikiaren burua artzeko aĩñako
zorabideren bat...

Eta Garoako'ko zarraren zurtasun naia, Marku'ren gertaera
baten antzera, dana ixilik eukita, zerbait entzunda jakiteko ustean,
txoriak nundik kantari urten leiken ezin igarrita.

Dana dalakuak onezkero jakingo ez dabelakuan.

- Zeuk, orrenbesteko ezaupidea ba daukazu ta, zer izan leikela
pentsaten dozu?

Neskaren zorakeria?

Lapurren baten gurari lizuna?

Sorginkeriren bat?


- Nik uste dot, orrelako giro baten, dana dalako txoriak, ez
dabela kantari ibili nai izango.

- Lorak ipintean euki dau ba makalaldiren bat.

- Nor daki zeĩnek ipiniak diran?

- Azeriak nekez ipiniko dau bere oiña lengo tokian.


Eta andrazkoak biak, jainkoak argi egioelaka urten ziran iltegitik
errirako bidean.



LENGO TOKIRA

- Ibili ta ibili Aítagure batik be ez dogu errezatu.
 - Emendik aurrera sarri gertatuko jaku atean jo ta astu.
- Eta Kalixta eta Marta'k, iltegitik urten orduko, barriro bertara sartzea erabagi eben.
- An ikustean Lukas arritu zan.
- Barriro?
 - Zer egiten dogun be ez dakigu-ta...
 - Gaurkoau izan be...
 - Ba dakizue olakoetan zer esaten daben Arrati'n? Gorbeia'ko akerra dantzan dabil.
 - Emen ez dabil akerra, demoniñua baiño.
 - Leike. Areik, nire erriko artzaiñak, asko dakie ta bestelako au bere sarri erabilten dabe euren kontakizunetan; Urbia aldeko artzaiñak oituten daben esaera dalakoz: Deabruak eman, deabruak eraman.
 - Ixi, xixi, iñor bildurta barik.
 - Bildurtzen danak bere burua izorratzen.
 - Mezedez, barritxuegi gabiz-eta.
 - Ni barritxu, zu larritsu.
 - Ez al da orrela egoteko?
 - Ez daukat ukatzeko.
 - Ara, Lukas, zaindu ondo illobi au, Guk ez dautsugu ezer eskiñiko, baiña iñoiz gaixorik edo estutasunez ikusi edo billatzen ba zara, pozik osatuko zaitut.
 - Nire burua gaixo igarri daidanean, ba dakit onena zer izango dan: Lenengotik ementxe zuloa egin eta bertan itxaron ze etorriko zain.
 - Fede gitxiko gizona!
 - Ez daukat sinismenik osagilletan.
 - Eta bedarretan?
 - Loiu'n aspertu nitzan bedarretan.
 - Zetan zabiltz, ba, emen, loratan?
 - Lorak be batu bear izaten dira mundurako itxuratan.
 - Ene ba! Naiko genduke bajakin nor izan ete dan illobi onetako lore ekarle au.
 - Jakin nai... oillarrak zenbat txis egiten daben be-bai zuok.
 - Mesedez, ez gara oillandak-eta.
 - Ba ziña obe.

- Zer ba?
- Oillandak zorriketan dabiltzanean, euria laster etorten dalako. Eta alaxe zabizela dirudi: zorriketan.
- Ez asarretu.
Nok daki gaurko gauza oneitan, gertatu diranen artean, guraso-
en bat ez ete dabillan?
- Eskaleak eukiten al dabe gurasork?
Lengoa gogoratuko dautsuet: Deabruak eman, deabruak era-
man.
- Ez egizu olakorik gogoratu, mesedez,
- Ez entzutekotan, joan zaitetze zuek be lengo bidez.



TXOTXIÑEN ASARREAK

Kalixta eta Marta iltegitik urten ziran.

Lukas'egaz bildurtuta.

Ixlik. Zerbait garrastuta eta barruko arragaz.

Ango kontu esateak minduta laga zitun biak. Bata ta bestea bardintsu.

Ba etozan mendi bidetik. Berbetan zein asiko.

Eta Marta asi zan.

- Txatxala andi bat izan zara.

- Ni? Orretan, zu, txotxin andi bat.

- Zeu así zara berbetan.

- Baita zu niri kirika

- Eta zu niri zirika.

- Zirika ala agirika?

- Berak be igarri zaitu kiñuka.

- Ez alperrik uka. Zeuk pentsatuko zendun ori, bildurak izututa.

- Gure gauza au, biar, edozenbatek jakingo dabe.

- Gaur bertan duda asko bage.

- Zetarako ezer esan mutil basati txikar orreri?

- Deabrua ta deabrua ez dabil ba? Lurra emon eikiolako orrela-ko bateri.

- Garoa'n eta Beitiz'en garbituko gaitue.

- Len be begiko al zaitue?

- Onezkero Garoa'ko zarrak zerbait pentsatuko eban.

- Aidean erabiliko gaitu betiko eran.

- Pekatu egin dogu.

- Ze pekatu?

- Ixlik egotera ez giñan berbatu?

- Zeiñen mesedean?

- Bear ba da gure kaltean.

- Zu izan zara, ba, azeri.

- Ni baiño lenago zu akulari.

- Ez daukadan errurik ez niri jaurti, txotxin!

- Jaurti ez? Akuluka ez zara ba ibliten txitxi-potxin?

- Eta orain zer?

- Zer? Zerak zeure pongoletan.

- Eta zertzetak zure kortsetan.

- Ba dakizu zeure berbak irakiten ipinten nabena?

- Lapiku txiki zarealako zeu orretarako lenena.

- Zuk gaur patxaran edo patxarra artuko zendun nunbait.
- Zeuk batutako okaranak daukadaz ortarako ainbat.
- Zerbait esan leike.
- Zu zeu zetan gangortu zeinke?
- Zeuri esatekotan nenguan ba! Ondo gagozanik esan geinke?
- Beiñobein egi esaten dozunean be! Binke!
- Zer dabizu zeuk! Ziria sartu ta adarra artu? Gero...! Ezagutzen dozu zeuk ondo Kalixta?
- Ezagutu ez? Jokuan be zeuk beti briska.
- Eta ezagutzen zeuk Marta?
- Obe neban jakin ez ba neu. Marta diñozu, Igarra'neko txalaparta?

Kalera eldu baiño len, andratxo bat billatu eban, bera errezuetan, iltegirako bidean sartzen.

Eta onek:

- Ba nengoan ba! Nongo trumoi otsa zalakoan eta zeuek ziñen? Ez eutsen jaramonik egin.

Bero-bero eginda eldu ziran. Eta kalean sartu ziranean, bata alde batetik eta bestea bestetik, ixillean igaro eben kale guztia, iñogaz be konturatu barik.

Zaldupe'ko bidea artu eben, era berean, ez jakin non gelditzeko asmotan.



LUKAS JOKOAN

Iltegiko lur emolea, Lukas zan.

Nungo edo nuntarra ete zan Lukas?

Arratiarra zala esaten eben.

Berak, berak erabilten ekiazan ainbat esaera zarren artean, ori esaten ekian: Arratiar zekorra, txikia baiña gogorra.

Txikia zan benetan.

Igarra eta zaintsua.

Zigarro ondakiña beti espanean. Asi ete eban iñoiz barririk edo osorik?

Berbetan motela, nai ta nekeza izan ez.

Lanean biskorra.

Il kanpaia entzun orduko, zulo giñan, Jakin be egiten eban nor ete egoan il zorian.

Eta jendea kanposantutik urten orduko, illa lurpean.

Ba eukan arrotasun lakoxea orretan.

Txori-erriko baserri baten egon zan morroi. Lujua'n. Goseak arrakalatuta. Origaitik andik iges eta onuntz agertu zan.

Ai ni kaiku eta mmolola, esaten eban. Bearra egin eta goseak koiu.

Ori nire errian, Arrati'n sari entzuten nebala: Asua ta Erandio, Sondika eta Loiua, bear asko egin eta arto gitxi koiu.

Eta geitzen eban; Onera netorrara jakin eragin nebanean, esan eusten: Ara?

Miseria besterik ez dagon errira? Lengo baten ori esan eustanari erantzuna bialdu neutsan: Erri alu eta miseriz betea dala Ondarru? Emen berdela ez ba da txitxarru.

Janaren faltarik ez.

Eta ontzi-jaubeak eta besteak be, euren illobaia zaintzearren, edo garbi eukitearren, abadiiei legetxe emoten eutsezan arraiñak. Ezpairik ez abadiantzat ontxuenak joango zirala, baiña Lukas bera pozik egoan alde orretatik.

Esan be egiten eban, Abadiantzat urdailla, niretzat zakatza, baiña ez dedilla falta ikatza.

Pozik bizi zan.

Denporaliei kaskarra erakutsita.

Bat lurreratzen eban egunean, antxiñako besteren baten azurrak atarako zitun, eta azurtegian sartu, edo ta familiak agindutako kuxatxuetan gorde.

Bostetarako udal etxera deia eukan aretan Lukas'ek.

An zan ordurako.

Ain zuzen be Madalenaren obiratzea zala-ta, isun (multa) bat ezarri eutsan alkateak.

Ukatu egiten zan ordaintzera.

Alkateari lotsa eta abar, baiña ez eban beretik urteten.

- Nik ez dot ordainduko.

- Datorren illean geigarri ta guzti.

- Lotsa apur bat, mesedez.

- Zuzentasuna ordaiñez.

- Ordaindu ezik ogibidea galduko dozu.

- Iñok ez dau bizi nai ta egunero eriotzaren atsik koiu.

- Papera egiña dago ta ezin lei ukatu.

- Kontu geiago papera egitean.

- Zein da emen onetan agindu bear dabena?

- Ez dot ukatzen alkatea dala izentauena.

- Baiña entzun niri: Zer da lenago? Atsa dariola dagon bateri lurra emotea, edo ta paper baten zain egotearren gaixoen bat zabaltzea?

Paperakaitik ba da, osagilleari kendu isuna, paperik beteterik nai izaten ez dabelako.

- Zegaitik?

- Zeñeri kobratu ez daukalako.

- Erdiak eta bi berari deitu barik ilten dira errian. Beste norbaitek ikusita. Eta beste erdiak berak ariñago bialtzen ditulako. Danentzat egiten ditu paperak. Igarri ordurako. Berak ez ditu beteten gaiñera, an daukan neskazarrak baiño.

Eta orriak izenpetuta daukazan lez, nonbaitera joan bearra euki ezkeru, berak ez neskak, egun bi lenago bialtzen ditu paperak.

Ori esateak zigorra ekarri leikizu.

Alkatejauna...

Esaten diranak ez dira danak egiak.

Nik neure begiakin ikusia guzurra ete da ba?

Eta gertaera onetan, Madalena'ren gertaera orretan, zegaitik ez eban paperik bete nai izan?

Marta sasi-osagillea ibili zala ta aitzakiz? Beragaz aiña ibiltzen dira asko Martagaz. Baiña Madalena Zaldupekoa zan, eskale bat.

Abadeak ikusi eban ilda gero ta ainbat lasterren lurperatzeko agindu. Zegaitik?

- Berarik komeniko jakolako.

- Kontzientziko zalako alaxe egitea.
- Eta ez zara jakitun, orain illa bi, gorputz bat egun bitan ezin ilda euki gendula an, kanposantuan?

Aren ildako papera aldian neukan.

- Esan dozun au salakuntza lez izenpetuko zenduke?

- Ori nai zuk osagillari lotsa sartzeko.

- Ildako papera benetan?

Kanposantura ez dabe bialtzen bizi-paperik. Ori beste nonbaite-
ra, zartzakoa artzeko-edo. Nigana datorren papera zuloagaz amai-
tzen da lur azpían.

- Ez dozu gordeten?

- Zetarako? Biziak txil eta illak íl.

- Baiña zetan diarduzu? Zeiñek jakingo dau gero zein nun dagon?

-Neuk

- Zuk? emendik urtetara?

- Bai, ta buruz.

- Eta gero?

- Gero otz ez dana bero

- Lukas, geurera. Ordaindu egizu isuna, ez da andia be-ta, eta bertan bera lagako dogu auzia.

- Ori ni izorratzea dan lez, naiago dot nik auzia loditu ta beste batzukauziansartu.

- Besteak? Nortzuk?

- Alkatea ta beste batzuk

- Ni? Zer dala-ta?

- Zaldupe'ko Madalena ori darabizue autuan. Bakoitzaren txiko-
tari errie emon nai ez-ta.

- Eta aren seme alabak nok artu ditu kontuan?

- Iñok ez dau ezer esan euren tratuan.

- Ezetz?

- Gaur bertan ez da ba galdu txikiena, zortzi urteko neskatxoa?

Zeiñek daki ori?

Galdu edo txarragoa, ostu. Ez jakin beintzat zer gertatu dan.

-Nun?

- Nun? Ementxe, gure errian.

- Nik ez dakit ezer.

- Jakin bear zendun

- Laster aleginduko naz

- Beranduegi

- Ikusiko dogu
- Baiña isuna zer?
- Ez dot nai jakin ezer.
- Artu papera ta ordaindu
- Nik papera koiu?
- Ze koiu ta koxu.

Ondarroa'n ez zara bizi ogetak urtetan?

- Pozik gañera. Benetan.

- Ba artu papera ta ordaindu keixu

- Orrela ba da, jauna, keixu egingo dodana beste gauza bat izango da: kanposantura joan, giltzak artu ta nai dabenarentzat emen laga. Ni baiño merkeagorik ez dozu bíllatuko.

Bildurtu zan alkatea. Makurtu. Ez eukan indar egiteko gogorik, nai ta berbetan zital jardun.

Aginpideko izena zaindu nai.

Konturatu zan Lukas'ek ez eukala txarto egiñaren kezkarik. Eta errua bitartean egoala.

Gaiñera ordurarte ez eban sekula bere aurkako ezer.

Izur egunetan be, zuloak egiñagaz batera, ildakoak eroaten be ibilten zala ba ekian.

Konturatu zan baita, Lukas'ek esaten ebana egiteko atzerarik ez eukala, ta egunean bertan egingo ebala gaiñera, ta gero, orrelako zeregin baterako lagun egokia billatzen buruauste eta burukomin ugari eukiko zitula.

Bost pesetako isuna zan; ogei errial; ordu bateko alogera dana be.

Lukas'ek Madalena eroan ebeneko egoera eta egin eban mese-dea gogoratzen zitun. An egozan kale garbitzailleak, beste iñok nai ez da eroan eben erriko langille ereik ziñaldari, orrelakorik bear ba zan. An egoan abadea be.

Danori ikusten eban alkateak. baiña beste alde osagillearen mar-marren bildurzan.

Alaz eta ordurarte jakin barik egoana ba ekian: iltzakotzat emon eta oraindik beste egun bi kanposantuan euki ebela jakiteak, osagillearen aurrerako beti irabazteko ordagoa emoten eutsan.

Azkenean be Lukas eta alkateak biak lagun baretsu amaitu eben ikustaldia.

ALKATEA URDURI

Ta alkatea urduritu zan

Zer igaro ete zan neskatxoagaz?

Deitu eutsan ertzain nausiarri. Ez ekian ezer, ez entzun eta ez igarri.

Beste ertzaiñak bialdu zitun arek, beriala, kalez kale ta inguruetara.

Arein itaunak entzunda, jendea orduntxe asi zan artegatzen eta keskatuten.

Laster, kalean, bolo-boloka, onelako itaunak entzuten ziran:

Zuk ba dakizu ezer?

Zaldupe'ko Madalenagaz gogoratzen? Eta aren alabarik txikiena ikusi?

Madalena'ren alaba txikia galdu edo ostu dabenik jakin?

Orduntxe asi zan autu-mautu kalean, kaletik balkoira, kantoitik karkabara, ibarretik edo arrabaletik zubira, nasatik txalopetara, kale erditako eskillaretan gora, andrak eta umeak eta gizonak alkarri itaunka.

Eta dendetan egozanak larritu ziran, eta tabernetan erdi-lotan etxerako orduen zain egozanak be garrastu, eta errekan libibagiñan iñarduen emakumeak, euren eun eta tresnak artuta, itsu-mustuan etxerajoaten asi ziran.

Sekulako zarrada egin eban erri guztian umea galdu, edo ostu edo ta antzerako zerbait gertatu zala jakin zanean.

Zaldupe ingurutan bizi ziran Kalixta eta Marta igaroten ikusi zituen batzuk, baiña iñori ez eutsen kalean ezer esan.

Garoa'ko morroia be tabernan ikusi eben. Arek be ezer esan ez.

Beitiz'ko etxe jauna be bizartegian egon zan. A be mutu.

Noiz, nun edo zelan igaro zan gertaera?

Sekulako esanalak esaten asi ziran laster. Zaldupe'n gantzeruak ibiltzen zirala, motxale ta ijito guztiak be an batzen zirala eta an lagaten zituela euren tresnak; erbestetik etozan bizi-alargun guztiak be lenengotan ara jotzen ebela.

Eta gero, Zaldupe ta Garoa ta Beitiz nun egozan ez ekienak, íruidimena puztu eben eta basamortuko etxe ta bideak ba ziran, lez, illunetako egitada larri ta lotsagarriak atara zituen, Zaldupe ama galduen aterpe eta ume errukarrien babesleku itzal eta aberearteko zala esanez.

Eta abadea be keixatu zan.

Len ez zan asko arduratu, itxura baten, baiña jendearen esan-mesanak entzutean, bere inguruan eukan karidadeko emakumeen taldeari deitu ta agindu eutsan, ordurik galdu barik, ume areikaz jau-betuten alegiñak egiteko.

Negua zan eta gaba be ba etorran.

Ezer egiteko erarik ez.

Zaldupe'ra joan zan ertzain burua nekez biurtu zan, ango base-
rrietan jakin eta batu ebana esatera.

Alkatearen aurrean eta beste gizonen artean misterioz bete eban arek goizalde aretako gertaera.

Beretzat, beste ezer baiño geiago, lapurren baten egitada zan. Lenago be alakoen bat izango zala, gertatua jakin eragin eutsen lez, Zaldupe'ko aterpean ibili zana.

Beste umeak, Kirru eta Mari, baserrietan etxeko lez artuko zitue-
la gau aretan.

Kalixta eta Marta, ume arein barri geien jakin eikeenak, eskutatu egin zirala nunbaiten.

Alkateak urrengo goizerako danak batzeko eskatu eban. Lenengo orduan. Eta goizean goiz beste ertzain eta borondate oneko gizonak urten egijela Gorozika, Asterrika, Errenderi eta inguru-ko baserrietan ea zerbait argitu edo ataraten eben.

Abadeak esanda lez, karidadeko andrak batu ziran. Eta neska, lenengotik, neska errukarriak artzen zituen konbentu batera Bilbo'ra bialtzea erabagi eben.

Eztabaidak egon ziran, orrelako neskak, urterik euki ezarren, aurreratuegi izaten dirala ta komeniko ete zan bizi-modu lizuneko neskatxa gazteen etxeren batera bialtzea. Gero be arek burukomi-ñak emongo zitula.

Dana dala, urrengo egunean andra bi neskatilleagaz Bilbo'ra joatekotan geratu ziran, eta egokiena zana, ango monjakin berba egin ondoren, erabagitekotan. Danen oniritzia euken orretarako.

Eta mutilla...bizimoduari lotsa artzeko, eta eziketa on eta buru-
tsu bat artzeko...

Amurrio'ra bialtzea izango zala onena, esan eban batek. Ango zentza-etxe edo erreformatorioan sartu.

Errian beintzat sekula ez zala bere gaiztekeririk jakin, orrelakoa izatekotan jakingo zala...eta bototara atara eben beragaz zer egin eta lau aurka ta iru alde, Amurrio'ko ori bastertzea erabagi zan, lenengotan beintzat.

Besteren batek esan eban ba egozala pozik artuko eben kon-
bentuak, batez be legotzako.

Asmo ori ondo jausi zan danen artean, eta arentzat orrelako zer-
bait ainbat ariñen lortzekotan geratu ziran,

Eta Jaungoikoari eskerrak emoten amaitu eben batzarra, urtee-
rarik egoki eta kristiñauenak orretzek ziralakoan,

Etxeetan umeak kezkatu eta negarti igarri ziran.

Gaitz izan zan ume asko lotaratzea lortutea.

Gizon batzuk, erritik urteerako bidetan eskutatuta gaba igarotea
pentsatu eben, lapurra ba zan gabaz ibiltzen jausiko zan itxaropenez.

Dana dala, edonun be, gau itzala eta luzea gertatu zan, errian,
bai erriko ta etxeetako arduradunen artean.



GOIZAKARGIRIKEZ

Goizean, zortziretako, Udaletxean, ainbat erritar egozan, erri batzarra egiteko asmotan.

Gabean kalera urten ebenak, ez eben bidetan iñor billatu ez igarri.

Geienak ez eben ezagutzen Zaldupe'ko neskarik. Ez falta zana, ez besterik.

Askok ez eben ezagutzen Madalena bere amarik, Irudi illun bat euken.

Batera eldu ziran Garoa'ko zarra eta morroi giputxa. Eurekin baita Beitiz'ko etxe jauna eta seme nausia.

Eta Mari eta Txeru (Kirru) anai arrebak.

Alkatea eta erriko agintari batzuk, an egozan. erri zain talde bat be bai.

Abadea eta karidadeko emakume taldekoak, alkarregaz sartu ziran.

Batzarren bat euki eben aurretik, Bilbo'tik urrutizkiñez esandako gora-bera batzuk alkarrerri adierazteko.

Erriko andra batzuk be nai izan eben zer esan edo erabagiten zan jakiteko an egon.

Bakarrik, egal baten, lotsatuta lez, Lukas, iltegiko lur-emolea.

Besteak baiño atzerago eldu zan Kasi jauna. Osagillea. Berak ez eukala ordurik, aitzakitizat ipini eban.

Abadeak esan eban, alako batzar baten umetxoak egotea, nai ta euren arrebaren goraberakaitik izan, ume arei betirako trauma bat sartu eragitea zala, eta bere aldetik, nai ta bere esana indar gitxikoa izan, ume areik ezer esan bear ba eben lenengotik esatea eukela ta gero ikusiko zala zer erabagi. Karidadeko andrak ba eukela beintzat bat bateko urteera, eta berak pentsaten ebalu urteera ori egoki eta zuzena zala.

Alkateak itandu eban, zein baimenez artu eben erabagi ori, batzar bat egin aurretik.

Bestetan be umezurtz eta bizibide lizuneko gazteekin iñor ez zala arduratzen bera eta bere karidadeko andrak baiño, erantzun eutsan abadeak.

Gauz onetan karidadea ez zala bakarrik dirutan, une bateko ondasunetan. Umiei aterpe on bat urtetarako billatu eta euren eziketaz lortzeko baiño.

Kasi jaunak urten eban kezcati, artu eban asmo ori ze asmo edo urteera zan-ka.

Karidadeko andretako batek jardetsi eutsan, ez eukala zetan konturik emon, ordurarte beintzat eleizarentzat nai erriko gauzentzat patxi-kontra zan gizon bateri.

Orrek ez dauka errurik, erriko gizonak baiña, urten eban beste andrazko batek. Aukeratu aurretik jakin eta konturatu bear ziran zelako arrano baltza ekarren errira. Gaiñera, geitu eban, lenago be errian, beti, osagille ezkondua aukeratzeko oitura eta agindua egoala ba dakit. Eta Kasi'k, Kasi jaunak, ez dau baldintza ori betetan, neska gazte askoren zer-esan askori bidea emonaz.

Zer esanak bakarrik? Eta galdubide (eskandalo) ez al da?

Galdubidea eurak dira eta eurak emoten dabe, gora-goraka urten eban Kasi'k, neska bat mutil artean ikusi orduko, andre lizuntzat etsi, eta andre galduak batzen dituen tokietara eroaten.

Eta euren arteko ta begiko gizon akulari ta...(ez nua esaten barbarik, batzuk baiño lotsa geiago daukadalako) ta akerrak, eleizko ikurriñak eroaten ipini ta bedeinkatuz.

Eta iñori barbarik artzen laga barik, jarraitu eban, ia Jainkoaren agindu bat bakarra dagon. Ia nor ziran mundu guztian azke diran lagun arteko olgeta ta maitekeriak eta atsegiñak, emen erri pekatu lotsagarri lez artzeko.

Alako baten be, danen gaiñetik, brtu eban batek txolin-txolin bere abotsa entzun eragitea, esanez, ia bera, Kasimiro edo Kasiano edo dana dalakoa, erriko neska gazteak zeozegaitik beragana joan nai ez ebena, ia bera norzan orretarako.

Batzarra asi baiño len, giroa goritu egin zan.

Barbarik txikienari be arantza blllatzeko eran.

Igarten zan ez zala euren arteko lenengo batzarra. Len be lotsak erdi galduta egozala.

Alkateak, bere artean osagillearen aurkako guztia atsegiñez entzuten egonarren, eta aginteen nor-norkeriz abadeari edo bere taldeari esaten eutsezanak be berebostean or daukazuez-ka artu, maia jo eban zaratatsu iru-lau bidar, eta danei ixildu eragin, zorrotz eta agintez, barrero asten zana kalera joango zala-ta.

Eta ertzain nagusiarri ara etorteko agindua be emon eban, bíldurra sartzearren.

Baiña ez egoan an irainduta geratu zirala esaten eban andrak iñok ixítzerik,ez eta Kasi osagillea bere aulkian geldi eukiko ebanik be.

Abadeak esan eban, berak nortasuna galtzen ebala alako baztar baten, bere izatearen santutasunak beste lotsa bat eskatzen ebala, eta gauzak beste bide batetik eroateko mai bururik ez ba egoan, bera iñok agindu barik.eta danak konturatu eitezan be, berba erdika bat geiago entzun orduko, kanpora joango zala.

Eta bitartean, Garoa'koak eta Beitiz'koak, eta Lukas lur emolea, eta beste erritar batzuk ixilik egozan albo baten, Mari eta Txeru euren artean eukezala.

Alako baten Garoa'ko zarrak dei egin eban eta ia berak zerbait esan eikean eskatu.

Alkateak pozik entzungo jakola eta aurretik be berba egin bear ebala esan ondoren, asi zan:

Jaunak, ni, Garoa'ko zarra, baserritarra, ezer be ikasi ez dodana, eskola-bakoa, gure denporan baserritarrentzat ez egoan orrelako aukerarik-eta, lotsatuta nago emen gizon "titulodun" eta erri gidari diran andre dirudun eta itxuradunen artean darabizuen eztabaida au ikusi ta entzutean.

Nik ba dakit mendian ba dagozala, nun-nai egon be, elorriak eta arantzak.

Emen, zuen artean, benetan be zorrotzak eta pozoidunak agertzen dira.

Garoa'ko jauna, mesedez, sermoirik egiten ez asi, naiko gara geu be orretarako-ta, urten eutsan erdi barrezka ta erdi irrika, baiña agintari abadeak.

Jauna, erantzun Garoa'k: Ez dakit barre ala negar egin, baiña "titulorik" ez dogunok emen sermoirik ezin ba giñei,...Guk be entzuten doguz ba, eta ixilik egotera beartuta, "titulodunak" artarako ez diran tokietan egiten dituen jardunaldi ikasibako, ganorabako eta politikerizko asko. Eta geure izerdiagaz batutako amaaren eta azikiñekin ordainduta gaiñera.

Musean jokatzera etorri gara, edo zer?, alkateak, barruko poza bere irribarre zirikalarian agertzen ebala.

Bateko enbido ta besteko ordago, zer da au?

Ba dira, ba orretarako, jokorako esan nai dot, beste ordu eta toki egokiagoak.

Ba dirudi aztu egin dogula atzoko gertaera. Eta oraindik gordin dago, bizi-bizi, danon lotsagarri eta kezagarri, ezer erabagi barik eta ezer argitu barik.

- Onezkero erabagi bear gendun zerbait.
- Bai, emendik bi edo iru kalera jaurtita.

- Zein kalera?
- Esan bearrik ez dago
- Alkate berbaz ez ba da, alkate makillaz
- Baiña zein?
- Lengoei gatza emonda be, lenengoz berba egiten dabena.
- Ez gara mutuak
- Erritarrak ez gara ba? Alkarren lagunak, ez?
- Lagun izanarren, eritzi bateko izan bear ete gara? Edo ta nundik dabillan eztakianari biderik argitu ez?
- Kasi jauna, ziriak gorde.
- Zelako ziriak?
- Ba dakigu zure berbak nora doazen.
- Nik diñodana da, zer egin bear dan, bildurtuta baiño ikaratuta geiago dagozan ume bi orreikaz.
- Ez al da obeto izango lenengo atzoko gertaera eurok bizi eben lez eurokandik jakitea?
- Atzokoa bakarrik ez. Zaldupe'n egozala be ez al zan gau baten ezer gertatu?
- Danon artean lau aukeratu daiguzan, esan eban Garoa'k.
- Ori, oril
- Eta eurei, aukeratuei, nasai eta zintzo, agertu dagioela ama il ezkeru euron bizitza eta euran egoera zer izan dan.
- Azkenean baserritarrak emon bear bidea.
- Lenengotik asi bear giñan orretan.
- Zeintzuk aukeratu orretarako?
- Alkatea bat.
- Alkatea aukeratu bearrik ez dago. Batzar guztietako buru bera da, arduraren eskubidez.
- Abadea, osagilea...
- Nik naiago dot kanpoan geratu, Kasi'k.
- Zegaitik?
- Etxe baten katua eta txakurra ez diralako ondo konpontzen.
- Eta Kasi jauna, ez dakizu gure errian esaten dabenik? Katua kanpoan, arratoiak festa? Ori gertatuko dan bildurrik ez? Sartu zaitte barruan, aukeratu zaituen ezkeru.
- Lukas zan ori esan ebana. Eta osagillea arrituta geratu zan bere aldeko uste ez eban aren zentzu oneko urteeragaz.
- Ba alkatea, abadea, Kasi jauna, Garoa'ko zarra eta...
- Ez, ez, ni kanpoan, barrero osagilleak.
- Orrela ba da, zure orde zuk zentzu oneko etsi dozun Lukas lur-emolea sartu lei.

- Umiei ez egiozue bildurrik sartu, Kasi'k
- Eriotzaren arpegia al daukat?, Lukas'ek
- Eta emakumerik ez? Nun ikusten da ori? Ain zuzen be karida-deko talde guztia emen egon eta gutarrik ez? Emen be arkeria?
- Nungo arkeria?
- Zer da arkeria? Orain esaten dan matxismo dalako ori?
- Gonadun nausia ez da aukeratu ba? Zetan zatoze arkeria ta tentelkeriak esaten?
- Kasi! Mesedez!
- Onezkero kalera atara neban tatarrez, alkate jauna.
- Bastertu egizu arkeriagaz nastau dozun gonadun nausia berbaori.
- Esana esana dago.
- Baztertutea nai dot.
- Aideangaldu da...

Eta barriro giroa zitaltzen asiko zan, Garoa'ko jaunak umeak artu eta iñori jaramonik barik, ia zerbait egiten dogun, esan, eta alboko gelara joaten asi ezik.

Aukeratuak jarraitu eutsen.



ITAUNKA

Mari eta Txeru, mai baten inguruan jezarrita ipini zituen. Eurekin batean alkatea.

Besteak aurrez aurre geratu ziran.

Ez bíldurtzeko esan eutsen. Kezka barik egoteko.

Euren onerako zala esango eben guztia. Zela-ala nundik lagundu alegintzeko zala.

Euren bizitza jakín nai ebela, gero, komeni zana edo al zana borondate guztiagaz egiteko.

Ana billatzeko be zenbat eta zertzelada geiago jakin edo agertu, obeto izango zala.

Origaitik, barriro be, nasai egoteko, euren bururik ez ikaratzeko. Iñok ez eukala euren aurka ezer. Bastertuta bizi izan ba ziran be, aurkakorik ez eukela, eta alegiña egingo ebala erriak nunbaiten toki egoki bat billatzeko, andi izatera eldu arte.

Alkateak abadeari esan eutsan bera asteko ereisten jakozan itaunak egiten.

Abadeak beriala:

- Zuk, izena Txeru dozu, ez?

-Bai.

- Ala ikusi dot liburuan.

- Nire izena liburuan?

- Bai, txotxo, eleizakoan.

- Eta zuk Mari.

-Baí.

- Zégaitik ez zenduen jaunartzerik egin?

- Amak esaten eban ori eleiztarrak egiten dabela. Euren gauza dala.

- Eta zuek, ez zarie eleiztarrak?

- Ez jauna, gu zaldupetarrak.

Barre egin eben danak

Alkatea asi zan gero:

- Ama zelan il zan?

- Gaixorik.

-Nun?

- Zaldupe'n

- Ze gaixo euki eban?

- Guk ez dakigu.

- Luzaro ebillan makal?

- Beti keixaten zan.
- Zenbat denpora da beti?
- Ez dakit, baiña nik ezagutu ezkeror. Beti ibiltan zan pastillak artzen.
- Osagilleagana joaten zan?
- Ez.
- Zeiñek ikusten eban?
- Noiz?
- Oean gaixo egoanetan.
- Azkenean amarren bat egun egon zap.
- Iñok ikusi barik?
- Marta enplasteria joaten zan.
- Ezer esaten eutsuen onek?
- Auleria eukala, baiña osatuko zala.
- Zerbait eskatuten eutsuen?
- Zetarako?
- Beretzako.
- Ez. Bakar bakarrik kalean gitxiago gastateko.
- Zegaitik?
- Berak ara etorteko zeregin batzuk laga egiten zitula eta andik bizi zala ta amarri lez berari be lagundu egin bear geuntsala.
- Askor batzen zenduen?
- Ba!
- Zenbat diru lez?
- Dirutan baiño ogitan edo jatekotan geiago emoten euskuen.
- Eta il zanean zer esan eutsuen amak?
- Ezer be ez.
- Agurrik be ez? Onak izateko be ez?
- Gaba igarota gero esan euskun Marta'k kalera ez joateko, ama il zala-ta.
- Eta egun aretan zer egin zenduen?
- Etxean egon.
- Iñor etorri jatzuen.
- Zein?
- Gizonen bat edo.
- Amaren lagunik be ez?
- Marta'k ez eban nai iñori deituterik.
- Abadeari be ez?
- Bai, andik kanposantura eroateko deitu eutsan.
- Ta?

- Pentsaten dot asarre egin eutsala ebadeak Marta'ri.
- Ta il kutxa noiz eroan eutsuen?
- Abadea etorri baiño ordu erdi lenago. Eroateko billa etorri ziran gizonak ekarri eben.

- Nun eginda?

- Ez dakigu. Marta'kjakingo dau. Edo Kalixta'k.

Onera eldu eta Lukas'ek esan eban:

- Il kutxa neuri eskatu eusten.

- Zuri?

- Bai. Kale garbitzailleak ba ekien kanposantuan beti egoten dala bat gertu, kanpotarren bat ittota ekarten dabenerako.

Eta alkateak agindu eutsan Lukas'eri, berak itaunduteko zerbait, ala nai ba eban.

- Ezagutzen ninduzuen?

- Batzutan, Asterrika aldean eskean ibili ondoren, zabalik ba egoan kanposantura joaten giñan.

- Zetan?

- Joan. Ez jakin zetan. Ikusten.

- Orrela dala, ezagutzen ninduzuen?

- Obiratzeko egunean be zeu ez ziñan ba lurra emon zeuntse-na?

- Nire zeregiña zan.

- Zegaitik amarik ez zenduen ikusi?

-Nun?

- Egun aretan, kanposantuan.

- Ezin zan urreratu bere ondora.

- Zegaitik ez?

- Atsa dariola egoan.

- Igarteko aiña?

- Kutxak be tartea eukazan. Zarra zan. Arnas estuka eldu giñan iltegira. Gizonak be ariñeketa baten ekarri eben, aorik ezin zabaldua arnasa artzeko be. Abadeari be esaten eutsen ariñago ibilteko.

- Entzun, alkatea?

- Bakoitzak bere sartañari emoten dautsa sua.

- Enbido!

- Zetara?

- Esan dautsut

- Ordagol

- Ikusten nirean ziur nengoala?. Gizon lez jokatu dot. Beti jokatu izan dodan lez.

- Prakan prakan ez dago gizona.
- Nigaitik diñozu ori?
- Aidean jaurti dot.
- Esaera zarra da. Gure zarrak ugari esaten zituen olakoak.
- Nik be aidean lagaten dot. Au be antxiñakoen esaera da, baiña lengo ta gaurkoa: Patxi, kakaegin eta bertan itxi.
- Zer da ori?
- Isuna ipini edo ezarri ta utsean garbitu alkateari ordagoa. Gure zarrak esaten ekien lez, bakoitzak bere erara ulertzeko lakoa.

- Jausiko zara.

- Leike.

Eta azkenean, zerbait geiago atarako ebalakuan, Garoa'ko zarra gertu zan iru-lau itaun egitera.

- Noiz etorri ziñen gurera, Garoa'ra?
- Ez dakit ziur. Zortzi bat egun?
- Zegaitik etorri ziñen?
- Kalixta'k eroan genduzan.
- Zegaitik?
- Zaldupe'ko aterpean lo egiten bildurtu giñalako.
- Bakartade gitxiago nai gendun. Obeto esanda, iñor bizi zan beste etxeren bat. Batez be gaberako.

- Esaten geuntzun ezer?

- Zetaz?

- Zuen ibillera, eguneko ibilte eta abar.

- Ez.

- Zeintzuk lo egiten zenduen gurean?

- Nik Beitiz'en. Onek eta galdu zanak, neska biak, Garoa'n.

- Etxe barruan?

- Etxea joten egoan sabaian.

- Bakarrik?

- Bai, neska biok.

- Eta ezer oartu zenduen an egon ziñen gauetan?

- Ez. Pozik gengozan. Txakurra be lagun gendun. Bertako mutizarra be adiskide.

- Eta gau aretan?

- Gau aretan be ezer ez.

- Zelan konturatu ziñan arreba falta zala?

- Esnatu nintzanean.

- Zegaitik esnatu ziñan?

- Eztakit. Berez.

- Alkarregaz lo egiten zenduen?
 - Egun aretan eta bestetan be, alkarri eutsita.
 - Zegaitik?
 - Zaldupe'ko etxean, gau aizetsu aretan bildurtu giñalako.
- Lotarako be dardaraka egoten giñan.
- Zer ikusi zenduen an?
 - Ikusi gitxi.
 - Ta zegaitik bildurtu?. Gose zengozen?
 - Esku bat bai ikusi gendun. Ondo gaiñera, atea zabaldu nairik.
 - Zein oartu zan lenengo?
 - Ana.
 - Ametsa izango zan.
 - Irurak amets bardiña? Eta esnatuta be, ikusi? Eta argi bat be ikusi gendun ate zulora emotan.
 - Zelako argia?
 - Farola edo linterna.
 - Ziur?
 - Auntza be beeka asi zan eta katuak be marrauka.
 - Zegaitik ez zan sartu?
 - Ana, Mari eta Kirru, irurok, zarataka eta didarka asi giñalako, eskuan billatzen genduna atera jaurtiten.
 - Ez daukazu ezpairik?
 - Zein zan ezin esan, baiña norbait zana ziur.
 - Ba eukan amak lagunik?
 - Zelako lagunak?
 - Ba...gizonakedo.
 - Gure ama neskazarra lakoxea zan.
 - Ta iru ume ekarri zitun.
 - Zer esan nai orregaz?
 - Ba...
 - Txori abirik ikusi dozu iñoiz?
 - Bai. Asko.
 - Arra ta emia inguru aretan edo bertan igarri be bai?
 - Batsutan bai.
 - Ta arra ta emia ez dira aita ta ama?
 - Guk ama bakarrik euki dogu.
 - Nunbaiten, gizon arroen batek, aita izan da be, mutilzarra dala esango dau.
- Parrokoa sartu zan bitarteko. Kontuz. Zillegitasunak (moralak) bere neurriak daukazalako.

- Ai ene! Neurri ori artu edo aztertu dozue, eurok nora bialdu pentsatu dozuenean?, alkateak abadeari.

Neska mutillak ez ziran konturatu oar ori zetatik edo zetarako sortu zan.

Azkenean alkateak Garoa'ko zarrari atara nai izan eutsan ia berak zerbait itaunduteak asarratuko eban.

- Ni? Zegaitik?

- Ez jakin. Iñoren baimen barik eta iñori ezer esan barik etxean artu dozuzalako. Ori bat.

- Sekula Garoa'n ez dautse sabairik lotarako iñori ukatu, eta askotan bertakoekaz maian jarterik be ez.

- Edozein izan da be ez?

- Borondate txarrekorik ba al da, ori egin bear ete dan edo ez zalatzen ipinten dabena besterik?

- Beste bat geiago.

- Esan naibeste.

- Ba zenkian anai-arreba oneik legetik kanpora egozala?

- Zetan?

- Euren bizitzan.

- Zegatik diñozu?

- Aitatasunik ez daukelako.

- Amar-amabi urtetan alaxe ezagutu izan doguz Zaldupe'n. Zegaitik lagaten zeuntsen erriarena dan aterpe a? Alkatea izan eta ez dakizu orrenbeste?

Eta ez bakarrik biziten. Kontu egin antxe bertan jaio zirala. Eta ez bat, irurak baiño. Eta erri onetako parrokian bataiatu zituela. Eta ez iñori errurik ezarri. Amabi urte daukaz zarrenak. Zuk alkatetzan amalau.

- Amalau?

- Urteak amabi illabetekoak ba dira bai.

- Parkatu alkatea. Nire errian erabilten dana gogoratuko dautsut "Amalau, ire ezkila gaur."

- Ondarrutar eran esan egidazu, giputx alu orrek. Sasosia da ta zuek giputxok errikidetzeko.

- Ba, oraiñarteko tantu guztiak gaur galdu dozuzala.

Ori gu-geuk be ulertu dogu, latin baiño jakin ezarren, mozorro lez abadeak.

- Auts eguna gogoratuko dautsut zuri be, alkateak.

- Ai enel Eta nik urtearen azkena: san Txilibristo besigu ezpane-tik dindilizka.

Ez aberatsak, dirudunak, alkateak eta abadeak bakarrik. Dan danok baiño.

Ziriakaitik ez ziran asarretu. Ez zan lenengoa. Lenago be oituta egozan, alkarri nortasuna edo arrotasuna kentzeko erako ziriak sartzan.

Eta bakoitzak bestearentzako esaerarik gogor eta beteenak aukeratuta eta noiz esango eukiten zítun.

Ala alkateak ete abadeak.

Edo abade eta osagilleak.

Edo ta osagille ta alkateak.

Lur emoleak zer esanik ez. Ainbeste tratu bestiekin euki ezarren, bakana zan orretan.

Gero, goizaldean gertatua falta zan.

- Nai dozue neuk esatea?, itandu eban Lukas'ek.
- Asko dakizu zuk, lotan ba zengozan.
- Beti eltzen dira borondate oneko esaleak.
- Andre txotxiñak.
- Zegaitik ez dagoz gaur emen, alkatea?
- Zegaitik euren burutasun ugari, geure lez eroan bear doguz?
- Ixil egon ba ziran, gaur, bear ba da, guk zerbait esango gendun emen neska txikiena dala-ta.
- Glu-glu irakiten dagon lapiko txikia lako andratxo ozkil eta zis-triñak.

Eta ez diñot emen andrarik ez dagolako. Ez daukat lotsarik euren aurrean esateko be: Andrak gizonari makurtzeko egiñak dira, eta ez gangortuteko, Entzun?

Eta bere esanari indarra emotearren, oraindik be, maia jo ta agintari, Garoa zarrak:

Ori ez da bakarrik Jaungoikoaren legeetan dagoana. Soiñaren legeak be ori agintzen dabe.

- Zenbatgarren aginduan sartzen da ori?, abadeak.
- Jainkoaren aginduetan eta mutilzarrenetan be bai, zentzunak esan eta erakusten dau ori, Garoa'k.

Eta besteak zain egongo zirala-ta, goiz aretan gertatua esan eban, lekuko Garoa'ko beste guztiak eta Beitiz'ko danak ipinita. Eta garbi esan be, on ustez nunbaitetik aizeren bat artu eta errezago ezagutzearren artu ebela ixilik egoteko erabagia.

Ori pekatu ba zan, bera zala pekatari nausi, esan eban, eta ez eioala iñori parkerik eskatzen, Kristo'k, eta geroagoko beste askok be, pozarren esaten ekien berba, "zeuk esan dozu" izaten dala.

Barre egin eban abadeak. Eta berak baiña teoloji geiago ikasi ebala Garoa'ko basartean eta antzerakoak esaten, lepokadaka erabíli eban zarra.

Egia esan, kontuak jakin baiña ez eben ezer erabagi.



BESTE ALDERDIAN

Bitartean, beste alderdian egozanak.ez eben ezer erabagi.

Osagillearentzat, andra areik eleizaren egitura batzuei makurtuegi egozan. Eta leioan egonzan denporarik geiena, andik errekarara begira, edo ta egunkari bateko itz-gurutzetuak atara ezinda.

Andrak lotsa edo bildurra eutsen osagilleari. Ba ekien arek brastata brastaka erantzungo eutsela, eta abadea alboan ez euken bitartean, ez ziran ausartuten berbarik egiten.

Ertzaiñen buruak bezperan entzun eta jakindakoaren zerbeit agertu eutsen.

Bildurtuta egozan danak.

Besteak agertu ordukoxe, andretako batek esan eban:

- Erabagi da ezer neskatoa dala ta?
- Zein neskato, galdua?
- Ez au dala-ta.
- Zer erabagi?
- Nora eroan-edo. Bilbo'ko monjaei agindu geuntsen gaur goizean eroango gendula.

- Nora?

- Adoratrizetara. Ondo egoten dira an, onen antzeko bizibide ariñeko neskak.

Garoa zarra zital jagi zan:

Ez dot berba askorik egingo. Gauza bat esango dautsuet: Sekula ez lizundu lorerik loretu baiño len.

Konturatu zarie zer egitera zoazen?

- Erritik kendu ta berari eziketa bat emotearren.
- Ama oraintsu il, beste arreatxoak galdu, eta geratzen jakon anaia be laga eraginda, kartzela baten sartu amar urteko neska?
- Nok esan dau kartzela dala?
- Txori kaiola, bardin da.
- Erriko borondaterik jakin dozue?
- Zeiñek nai errian orrelako bat etxean artu?
- Ospitalean ez dago tokirik.
- Komeni be ez erri onetako ospitaleko agure eta atso zar eta jausiekaz orrelako umerik.

Amar egunetan gurean egon da. Egia esateko, sabaian. Baiña zer esango zenduke, berak nai ezkeru, nire etxean artuko ba neu, etxeko lez, bere adinera eldu eta berak nai dabena orduan erabagitekotan?

- Or dago or, urteera, esan eban osagilleak.
- Zuretzat eleiza edo eleiztarren menpetik kendu ezker. Or dago zuretzat akats guztia.
- Len bi ziran eta iru-lau egunetarako aterpea emon neutsen. Ez daukat atzerarik etxeko gela zabal bat eskintzeko. Eta besteok dogun maian jazarri eragiteko. Ez naz aberats, baiña lurrak, alegiñaren beian, lan egin ezker, ez dau ukatzen egunekorik. Nik erriari gauza bat bakarrik eskatuko dautsat: eskola.
- Eskola eta zerbait geiago be bai, Garoa, erantzun eutsan alkateak.

Jantzia be izango dozu.

- Gu gara orretarako, karidadeko andrak, erantzun eban batek.
- Erriari dagokio premiak betetea, alkateak.
- Eta mutilla?
- Mutillarentzat ez dago kezkarik, urten eban ordurarte ixilik egon zan Beitiz'ek.
- Mutilla markiña'ko fraileak artuko dabe, andrazko batek. Pozik gaiñera, lego premiñan dagoz-eta.

Garoa'ri neska lagaten ba dautsazue, bidezkoago da mutilla niri lagatea, aren baldintzetan.

Orrela biak egunero alkarregaz ibili al izango dira, bakartadeko min eta naigaberik sartu eragin barik.

Andrazkoak ez eben pozlk artu erabagl orl. Euren asmo eta erdi-egiña baztertzen zan.

Eurentzako mutllak ez eukan etxe baten premiña bakarrik. Eziketa on baten bearra be an eukan.

Ez ebal a ezer ikasi, ez ikasteko asmorik. Eskale eta ume galdu lez ezia izan zala.

Karidadeko emakume taldekoak eurenean egozan. Konbentu baten, legotzako, iñun baiño obeto egongo zala Konbenturako mesede ta beretzako kezka barik biziteko aukera.

Konbentu baten daukana gurean dauka, tartetik Beitiz'ko jaunak. Eta an ez daukana.

-Zer?

- Mutil berberaren azkatasuna.
- Or dago akatsa. Zelako azkatasuna?
- Gaurko gizonak, edozein gizonak daukana.

Mutil bat baiño ez daukagu ta alaba bat.

Bata ta beste ez dira umeak.

Berori izango da etxeko umea.

- Morroitzan?
- Amalau urte bete ondoren, lanean geratu nai ba dau lanean.
- Zer da ori morroitza ezik?
- Eta konbentu baten lego sartzea, zer da besterik morroitza ixilla baiño?
- Bildur dautsazue konbentuei.
- Gurean, seme nausia, il zana, orretan egona zan. Baiña konbentuak ez dauka baserriaren aukerarik. Bere zeregiña bestea da.
- Baserri bion artean alde andia dago ondasunetan.
- Famili guztietako ondasunak bardiñak al dira?
- Ba dakigu Beitiz'en etxerako artzen dana, ez dala etxerako aiña.
- Entzun dozue guretarrik gosez il danik? Andre diamotxu demoniñenak!

Alkateak, berenetik, Beitiz'en lagatea pozik ikusten eban. A zan beretzako ume bientzat urteerarik egokiena. Eta andrak ezik, abadea ixilik, besteak orretan egozan.

Origaitik alkateak, amaitzeko, esan eban:

- Danok pozik egonda, zetan diardugu zalantzan?
- Amaitu da eztabaida.
- Beitiz, erriaren on ikusia dozu. Eroan zeugaz mutilla.
- Eta Ana'gaz gertaten dana gertatuko ba'litz?
 - Ori bardin gertatu leike Beitiz'en nai Goitiz'en. Eta Ondarru'n nai Mendaro'n.
 - Eta Kalixta eta Marta'k, euren aleginpean, Zaldupe'ko etxean euki nai ba litue?
 - Zegaitik ainbeste akikulu zorionean erabagi dan auzi bateri?
 - Zorionez? Ikusi bearl Denporak izango dira lekuko.
 - Andratxu orreik eurak bearko dabe, zoritxarrez, ospitalerako edo nunbaiterako bidea.
 - Nun dabiz eurak?
 - Ezjakin.
 - Ez ete dakie ezer Ana dala-ta?
 - Areik ekiena nik dakit, Lukas'ek.

KALETARRAK

Erriak benetako miña artu eban Ana txikiaren misterioz beteriko aldentzeagaz.

Gaba igaro orduko, ia egun sentiagaz batera, itxasoterik ez euken arrantzale asko, bateletan eta motorretan, ibaian gora asi ziran, ibai ondo eta egalak ikusten.

Sekula aterik itxiten ez eben etxe askok, eurenak zarratu zituen, kereta ta guzti.

Kezka eta estutauna ba ebillan erritarren artean.

Ume askok eskoletara ez eben joan nai izan, ume-lapurrak eta gantzeruak ebiltzala-ta.

Asko izan ziran Alliri aldera joan ziranak, batez be andrazkoak, ango ortu ta soloak ikusten.

Inguruko olletxe, txarritoki, soloetako txabola, ubide eta bitarteak begiratu zituen.

Aga luzeekaz ibaiaren ondoa joten eben txalopetatik batzuk, eta leorretik besteak. Ez bakarrik egaletan. Bateletatik ubidearen erdia be aztertzen asi ziran.

Oraindik mallastu asko egozan ertzetan, ujolak etorri artean, errekonduko ia eta urratzetan inkauta. Eta nasaitu zituen eta zabaldu, itxura barik tarteren baten egon eitekean.

Uretan billatzen zituen jantzi zar guztiak azalera atara eta ikusten zituen.

Gona txiki bat billatu eben uretan. Zikin samarra.

Berea ete?

Beretzaiko lakoa izan eitekeala ta arin joan ziran gazte bi Mari'ren billa Garoa'ra, ia ezagutzen ete ebenka.

Andik Udaletxera bialdu zituen, oraindik an egozala-ta. Eta ara eldu orduko danak ikusi eben. Eta Mari'ri erakutsi.

Baietz, aitzarena zala.

Nun igarri?

Besape bat urratuta dauka. Alaxe emon eutsen. Eta amak, ari urdiñik ez eta gorriagaz konpondu eban.

Alaxe zan. Garbi ikusten zan.

Kezka sortu eban orrek.

Zelan azpiko gona ibaian? Eta beste jantziak?

Ittota ete egoan nunbaiten?

Alkateak ibaia ondo aztertzeke agindu egan. Alegin bizia egiteko zulo ta tarteak ondo arakatzen.

Garoa zarra ixilik egoan.

Zar eta zur.

Berbak ondo neurtuta esaten. Esan baiño ixilik egoteko gogo geiagoz.

- Zuk ondo jakingo dozu, Garoa, ango barri.

- Nire burua ez dabil an, alkate jauna.

- Esaizu benetan, nun dabil zure burua?

- Bizitzak emon dausku kaskarra.

- Berari eusteko ona dozu bizkarra.

- Bertsotako umorea?

- Pozik salduko neutsuke okertuta naukan unorea.

- Esan benetan. Nundik asiko ziñake, zu? Nundik?

- Ibaitek ez beñik-bein. A eroan eben ibaitik. Nik ez daukat ibaian bíllatu leiken federik.

- Eta gona au?

- Txoritako lakioa. Tranpa.

- Ala uste?


- Uste eta siniste.

- Orretara zuretzat zer da, lapurreta?

Larri errian argia, esaten da, alkate jauna.

Emen be egingo da.

Denporak lekuko. Egon ziur.



EKIN DA EKIN

Alkateak agindu-ala, gizonak eta emakumeak euren lanetan jarraitu eben. Mare berako ta gorakoan. Urak eragin eikeazan gorakada ta berakadak igarrita. Noraiño eroan eikien konturatuta.

Jantzi ta guzti lotan egoan neskari, zetarako bide ori eragin, gero barruko edo azpiko gona kendu ta uretara jaurtiteko?

Eta gañeko jantzia? Eta oiñetako bat galduarren, nun geratu zan bestea?

Zoroen baten lana ete?

Edo ta endekaturen batena?

Zelan jakin, zortzi egunen buruan, umeak ethez aldatu eta gero nun lo egiten eben?

Eta txakurra zelan mendetu eta otsendu ete eben gauen edo goizaldian ixilik egotera?

Garoa'ko zarra etxera eldu zanean, beragaz eroian Mari.

Kalean ume askok begiratzen eutsen. bere ibillera itzalean, obeto ezagutu edo obeto beragaz konturatu nairik, aizta bietatik bata ta bestea nor ziran ziurtatu nairik.

Batzuk negar be egiten eben, une aretan artzen eben bat bateteko errukiz.

Zarrak ez eban iñogaz barbarik egiten. Danak ekien, lagun artean ezik, artu-emon gitxikoa zala.

Morroiak bai. Lagun artekoa zan lez, askogaz berba egin, gertatua kontatu eta gogoratu eta baten edo bestearen eritzi ta ustea jasoten eban,

Etxera eldu zlranean, zain egozan danak. Bere andrea, seme ta alaba, biak ezkongaiak.

Zarrak bere emazteari, atetik:

- Emen gatoz.

Oneik ekarriko ez daben frutua dakartzut nik: alabatxoa.

- Guretzat?

Nik, zuen borondatea ala izango dalkoan, atakoxe artu dot, beronek anditu edo koskotzen danean erabagi arte.

Jainkoak lagun gaitzala bere borondatea beteten.

- Ara, orain beintzat, nire gelan dagon beste oean lo egitea gura neuke. Igaroak igaro bakarrik ez dau naiko geratu ta zegaitik ez biok alkarregaz?

Naiko dozu?

- Lotsatu egiten naz.

- Zegaitik?
- Jantzirik be ez daukat, esaterako.
- Ez kezkatu.

Gure ama zarrak oraindik gordeta daukaz nire umetakoak. Komoda zar bat or dago bete-beteta.

- la ba, zuek ez zarie adoretu iñor ekartera be-ta. Ez nire odolak euki be!

Geiago barik, Kontze neskazarrak bere gelara eroan eban Mari. Eta an eukazan jantziak erakusten asi be bai.

Gelara sartzean esan bai: Aitaren eginda sartu, e? Or ibili diran pizti zatarrak eta arima gaiztuak uxatuta sartu zaitez.

Eta neskak esana egin eban.

- Beriala, bien artean, onen antzeko alkar-izketa sortu zan:
- Ana billatu dabe?

-Ez.

- Eztabe aurkitu, ez?
- Oraindik ez dakigu.
- Kobaen baten edo eskutatuko eben?
- Ori be...

- Jaten emongo dautse?
- Gose eukitera ez eben eroango.
- Zegaitik a eta ez ni?
- Ezin esan.
- Amak ez eban iñor bere billa bialduko, ez?
- Ama zuekaitik errezaten egongo da.
- Amak jakingo dau?
- Zeruan dana jakiten ei da.
- Gure amak ez eban sinistuten zeruan.
- Benetan?
- Pobreak ez ei dauke an sartzerik.
- Bai zera. Ez dakizu, pobre zeruko lorea, esaten dala?
- Eta gizonik faltsuenari zabalduen ei dautse angongo bidea.
- Zuen ama an egongo da ziur.
- Eskaleazan.
- Obe, an be errukia eskatzeko.
- Pekatari zala esaten eban.
- Zelako pekatari?
- Berak gizonik ez eukala...
- Aí enel

Ez zure barrurik mindu origaitik. Olakoetan gizonak izaten dira pekatari, Mari.

Eurekandik laster eldu zan Beitiz'era. Txeru, ango aita zar alargu-nagaz.

Seme nausia eta bere andrea zain egozan. Arraguetatik zear etorten ikusi ebaneko, zain.

Irurak ziran etxeko lagunak. Beste mutilla, igeltzeroa, kaletik ebi-llan lanean.

- Ia, amalau urte ez dira ba ezkondu ziñela? esan eutsen agure alargunak gaztiei, atean agertu orduko.

- Amabost laster.

- Etxera dakartzu?

- Konbentu batera bialtzea naiago zenduen?

- Aspertu nitzan nian.

- Orra ba. Komeni ba da etxerako.

- Zelako baldintzetan?

- Oraingotan eskola pixkat erakustea nai dau alkateak. Erriaren kontura.

Gero ikusi bear beronek nora nai daben alderatu.

- Len be iñor lotuta erabili izan da Beitiz'en.

- Ori ez.

- Jarrai ba lengo legeari.

- Ana dala ta ezer jakin da?


- Esaten dana, erdia naia eta beste erdia iruditua.

Eta Beitiz'ko aita alargunak, etxeko zala adierazi naian, eta oraindik an agintea berak eukala erakutsi eutsazan.

Eta bere arreba zetan egoan ikusi nai ba eban, Garaa'ra joate-ko, azkatasun guztiagaz.

Berak ez eutsala besterik eskatzen etxeko mutil zintzo eta esa-nekoa izatea baiño.

Orretan geratu ziran Mari ta Txeru, alkarren auzoan, baten nai bestean ezin obeagoko arreretan.



MORROIA AOLKARI

Garoa eta Beitiz auzoko ziran.

Baiña auzokoak eukiten ditue burukomiñik andienak. Batez bere baserrietan.

Gizonak ezik, beste guztiak dira auzoko bakearen etentzaille. Oilloak, auntsak, beiak, barruregi sartzen diran zugatzak, arbolak.

Une batzutan auzo lanerako gertu. Bestetan txikikeri batek itto. Jaubetasunaren ondorena edo akatsa. Beti be, goi-goian, norbere-reari eutsi naia.

Auzo bietan naiago izango eben artu zituen neska mutillak anai arreba izan ez ba lira.

Etxe bakoitzak bere bakartadea obeto zaínduko eban. Ori izan da euskal baserriaren pekatua. Bakartade miña. Bakartadea edo norbere izatea itsu-itsu maite izatea. Iru laurden norbere etxeari, beste laurdentxo bat auzoari, laurden onetan besteak aiña norbere etxea sartuta.

Anai arrebak etxeko bakartadearen nortasun eta ixiltasunik ez ete eben apurtuko?

Jakingo ete eben umeak, edo konturatuko ete ziran eurak, etxe banatan bizi zirala, lenago be, auzo izanarren bakoitza bere bizitzaren eusle, eta origaitik garrazkeri batzuk eukiak?

Edo ta jakingo ete eben etxe bietakoak umien batasuna eta anaitasuna ezagutzen, eta euren alkarrekiko kontu eta goraberak etan barik, anai arreba txiki umezurtz biren nasaitasun eta familiko kontu lez, ainbestean lagaten?

Etxekoak baiño kanpokoak obeto konturatzen dira orrelako goraberen uzkeriagaz. Batez be Garoa'ko morroi lepoandia lakoak.

Txeru bigarrenez Garoa'ra joan orduko, morroiak ikusi eban etxeko lez asi zala bere arreatxoari iturriko urak eta eroaten laguntzen. Eta deitu ta esan eutsan:

- Txeru, gauza bat esango dautsut.
- Ba dakizu nire izena? Zelan?
- Zu len Zaldupe'ko ziñan.
- Bai, antxe bizi giñan.
- Zu amaren seme ziñan.
- Bai, morroia. Parkatu, ez dakit zure izenik.
- Ni lakoak ez dogu eukiten.
- Orduan, morroia deituko dautsut?
- Bai.

- Ni morroia naz, baiña etxe onetakoa. Au da, Garoa'ko morroia eta ez danena, jakin?

- Ez dautsut ondo ulertu.

- Len, an bizi ziñanean, zuk eta Mari'k eta Ana'k, ama bat zaindu bear zenduen.

- Orain be bai.

- Baiña orain amak ez dauz ezer eskatuten eta etxeak bai.

Orain, zu, Beitiz'ko zara eta zure arreba Garoa'ko neska. Zuk a zaindu bear dozu eta onek au. Nai eta bion artean, zu ta Mari, odoleko anai arreba izan.

Gauza bat:

- Esan.

- Zeiñek eroan ditu lorak Garoa'tik?

- Neuk, Mari'k emonda, eskolara joatean amarentzat eroateko.

- Baiña lorak Garoakoak dira eta zuek Beitiz'en ez daukazue lorarik.

- Orixegaitik ba.

- Ba orixegaitik ez.

- Ez dot ulertuten.

- Etxe bakoitzaren alegiñak, etxe bakoitzeko biarrak, bere izerdi eta bere arrokeria dauke.

- Kalte egin dautsut?

- Niri ez. Garoa'ri.

- Asko?

-Ez, baiña...

- Asarretu egin zarie?

- Etxekoak asarretu diralako.

- Ba dakizu?

- Egun baten sartu egizuz lorak Beitiz'en.

- Naiko dabe?

- Atsegin izango jakoez Beitiz'en Garoa'n be ba dagozalako.

- Domeketan, Arraguetan, bazkalondoan, ango arbolapean, nik esango dautsut zelan egin.

Eta orduan zure arrebak Garoa'n artuko ditu lorak, amarentzako. Eta zuk Beitiz'en. Biok amantzako.

Eta iñor be ez da asarretuko.

Lorak lez sagarrak, sagarrak lez intxaurrek, eta kañaberak, eta iñoiz erreterik pentsaten ba dozu, aienak be bai. Perrexilla bera be bai, txoritxikiko gauza izanarren.

Bakoitzak bakoitzarenaz alkartasun eta bakerik ez dau apurtu

edo eteten. Eta zur egon eta zur ibili, orrelako baketan mutil andi ikusiko zaitue.

Biamamonean Mari'k lorak batzera eioala esan eutsanean... Txeru'k aurrea artu ta esan eutsan:

- Ez batu.
- Zer ba?
- Morroiak esan daust bakoitzaren izerdiagaz zaintzen diran lorak obeto loratzen dirala.
- Zuenian ez daukazuez.
- Ustez ez.
- Orixegaitik ba.
- Izerdirik orretan atara ez dabelako.
- Baiña laster eukiko doguz, Mari.
- Morroiak ba daki lorak emoten dautsudazala?
- Bai, berak esan daust.
- Eta asarre?
- Asarre ez. Baiña urrengorako be...
- Morroiak ala zarrak agintzen dau geiago zuenean?
- Eta zuenean?
- Gurean aita zarrak esaten dau erregiñak esaten dabena txistik barik egiteko.

Umeak, bigarren egunerako, euren etxe barriei pultsoa artzen asi ziran, orretan alegindu barik. Eta bakoitzaren etxekotasuna zaintzen asi.

Txeru Beitiz'era biurtu zanean, erraiñak esan eutsan:

- Gaur ez zara amagaz gomuta?
- Bestetan beste.
- Lorarlk ez dozu ekarri-ta.
- Beste baten eroango dautsadaz.
- Noiz?
- Lagako daustazu basterren bat neuk azteko?
- Zeuk?
- Ba dakit neure izerdiagaz obeto loratuko dirala,

Esan bearrik ez, erantzun au luze eta sartu zala Beitiz'en. Lenakoak lenako lagata.

EZAUGARRI GEIAGO

lñok ez zitun ikusi egunetan Kalixta eta Marta.

Zelan aztu ziran ain arin umeekaz?

Zaldupe'ra eroan bear zituen egunean, zelan ez bata ta ez beste agertu ez?

Ba ete ekien ezer Ana txikiaren goraberan?

Euren artean euki eben asarraldia oraindik zuritu edo bigundu barik euken.

Alkar ikusten ziran, jaramonik ez.

Alkarri esandako berbak aidean ebiltzan bata ta bestearen gogorapenetan: Txolin, txatxala, txalaparta,... Esatea bel Edo ta pongolak eta abar, berba txarreko andre moskorrak bakarrik erabilten zituenak.

Agertu ezarren, esan edo zabaldu eta kalean asmaten zana lasterjakiten eben.

Erri zaiñak eurentzako agindua euken. Alkateak ikusi nai zitula. Ez eben lortu egunetan agindu ori beteterik. Ez egozan erriko andran begiragarri ta irrietan sartzeko.

Ez ziran menditik beratzen. Errira etorten ez. Gero, eurak bizi ziran baserriak kale-baserri edo kale ingurukoak ez diran lez...

Kalera edo plazara jeisten ziran baserriar andrei urteten eutsen bidera. la zer iñoen errian. Ezer agertu ete zan. lñor baitu ete eben. lñoren atzetik ete ebiltzan.

Jakin eben Mari ta Txeru zein etxetan artu zituen.

Ez ziran orrelako erabagi baten aldeko. Orrela egotekotan kalean obe, baserrietan baiño. Eskola eta abar kontuan eukita.

Danak batera euki bear zirala.

Origaitik eurak, len, beste zerbait billatu artean, geftu egozala umei alkarregaz biziten laguntzeko:

Ba ekien Ana txikia ostua izan ba zan, ez zala Bizkaitik Gipuzkoa'rako baserrietatik zear igaro. Berbarik egin ezarren, bata alde batetik eta bestea bere aitzakiekin, goi aldeko baserri guztiak ikertu zituelako eta ango bizilagunen agerpenak artu.

Markina edo Lekeitio aldeko baserrietan...Eurak ez ziran ortik ibiltzen, banaketan ezik.

Ori, gaiñera, lapurtua izan ba zan edo norbaitek eroan ba eban.

Ez ete ebiltan tartean endekatu (degeneratu) en bat, abere antzera ume guriagaz baliatzeko?

Orrelakorik ez zan azpaldietan inguru oneitan ezagutzen. Izpazter'ko auzoren baten bizi izan ei zan aurrerako urteetan olakoren bat. Baiña a zearo zartu eta okertuta bizi zan, gordeta edo lotuta euken txabola berezi batetik urten eziñean.

Gaitz zan arek Zaldupe'ko barri jakitea. Baiña aren denporak joan da egozan. Ori zan garrantzitsuena: ez zala gauza ibilteko edo bere oiñen gañean ibilteko.

Moskorren bat?

Ez eban emoten zalapartaka edo ta traketz egiñiko gauza. Moskorra izatekotan egunagaz batera zerbait argitu edo igarriko zan.

Eta umea ilteko ba zan?

Ez zan orrelakorik iñoren buruetan sartzen.

Ikusera baten, ama be, eskale ta bizimodu narrazeko izanarren, ez eukan gaizto edo oker fama ta entzuterik. Ez eta lizun girorik be.

Endaz etorkion erabillan bizimodua.

Amuma be alakoxia ei zan, ezagutu eben zar batzuen esanetan.

Amumak Naparroa'ko agoteen miña eta naigabea erabilten ei zitun noz-nai. Sarri. Arein esaera eta ekandu eta kantak gogoan. Arein egiñak azalera atara naia.

Amumak ama sortu eban, mandazaiñen baten urez. Ala esaten zan. Eta mandazaiña bizar oneko gizona zan lez, eskupekoa egon zala bere izena aotan ez artzeko.

Aren arpegiko bekoki, sur eta begiondoak, aita berberarenak zirala esaten ei zan geroago be. Baiña esanak esan, izen emote eta abar alboan.

Amak Madalena ekarri eban. Potsuren bateko urakin garbítzean. Ala autortzen ei eban berak.

Eta Madalenak íru txikiok, argitara sortuak beintzat, bidetako keriza edo baserri edo kaleko gazte zezenkien bat edo batzuen berotasun eta kemenez.

Ez zan bera onetan tokí baten geratzekoa.

Endaz etorkion eskale izatearen nortasuna zan bidez-bide erabiltzen ebana, eta ziurretik uskeriz edo atseginorde jausten zan, eta bere eskeko bizitzari indarra emoten eutsalakoan txikien bat jaiotetan edo frutuen bat sortzean.

Familiko gaitza?

Familiko lorra bai.

Berezko lez artzen ebana.

Oriagaitik, bizitzako bastertu lez edo orretarako sortua lez, etorrena etorren lez artu bear zalakoan, bizi ortara mendutua.

Ala dala, lizuna zala esatea, ez litzake ain egoki, nai ta ala iruditu.

Odolaren gaixo eta gurasoen gurasoakandik bizitza baten makurpen mingotsari errua emon edo ezartea obe.

Zetatik artu eben Kalixta eta Marta'k andre onentzako begirapen edo errukia?

Geien bat tatarrezko bizitza narrazean ikusten ebelako. Eta eurak, gizon laguntzarik ezagutu ez eben lez, ba ekien zer zan andre bakar eta makur bat orrelako bizibidean.

Eta ortik neska mutillen ardura eta kezka.errukitzen ez dan gizarte nasai eta eratsu baten aurka.

Asko ekian onetan Marta'k.

Ez zan argia, baiña ikasia zan.

Barruko monjen konbentu baten egona, etxean alaba geiegi batzen ziralako eta orduko sinismenak eraginda an besterik ezean be txarrik ikasten ez zalako.

Gizartearen alde zerbait egin bear danaren arduradun zalako urten eban, barruko azaletiko mistikak lagata.

Origaitik asi zan, bere doaiekaz eta alegiñekaz baliatuta, osasun bedarrak ezagutu eta baserri ta kalean nekatu edo zortuen naigabeak arintzen.

Ez zan diru egarria bera. Nai ta bizitzarako premiña euki.

Beste era bateko zan Kalixta. Txotxin eta satorra.

Baiña asarretuta egonarren, gertaera arrigarri bat euki eban goizalde baten.

Armetxa baserrietan egozan, erdi ostatuan, lan truke. Bata baserririk baserri ibiltzen zan, jantzi zarrak josten eta konpontzen. Askotan bigaz bat egiten. Eta iru-lau egun egiten zitun etxe bakoitzean, denporaldietan, eskatu orde ta eskatu bako eskupekoen baten laguntza eta pozez.

Marta be, bere premiña edo bere bearreko gaixoen bat agertzen zanean, eskatu ezkeru pozik geratzen zan orrelako etxean, batez be baserrietan. Askotan, osagíllea andik igaroten zanetan, benetako arrisku etazer-ikusian.

Eta esana lez, egun areitan Armetxa baserrietan egozan.

An egozala, erdiko aterpe deitzen eutsen etxearen atadian, jantzi bat agertu zan, eguna argitzean.

Ololei atea zabaltzera eioala gertatu zan.

Deitu eutsan auzoari, aizeak eroanda edo, euren atean agertu zala jantzia.

Eurenean ez egoan, ba, jantzi orrentzako aiña txikirik, eta auzoan bai.

Bestekoak ikusi eta euren ez zala, ez uste beintzat, baiña Kalixta'k eroandakoen bat izan eikeala.

Kalixtari deitu eutsen. Jagita egoan bere gelatxoan, bere otoiak ezin amaituta, kafesnea artzera jeisteko.

Kalixta', eskuan artu orduko:

- Ene ba da ta!

- Nasteren bat?

- Bar zera! Ana txikiak, ostu eben Ana txikiak eukan soñnekoa daau.

- Ezin leike!

- Ondo dakit.

- Nun agertu da, nun?

Eta txilfoka asi zan. Eta bazterretara begiratu, tartean oles eta otoi dei batzuk egín, eta ots egiten eban:

- Ana txikiarena da!

Zelan ízan leike au?

Emendik ete dabil?

Eta danak zurbildu ziran.

Euretako etxekoandrak deitu eutsen ezin itxartuta ebiltzan senar edo ta gizonezkoei.

Eta ondo jantzi be barik, iñok agindu barik, inguruak aztertzeragertu ziran.

Ostera txiki bat egin eben, etxe inguru eta barruko korta eta abar ikusten.

Eta. ezer aurkitu ez ebenean, sorginkeri edo diabrukería zala, ziur egozala aren jantzia zala-ta.

Euren ziurtasuna aín bete-beteen erakustean, gizonak luzeago be joan ziran, bidez-bide.

Kostolamendi, aldera, Iturrino aldera, Kaltzakorta aldera, Katei'ra, inguruko bidetik, ia iñor ikusten ete ebenka joranez eta artegatasun biziz, ia andik igarotakoen bat igeska ete eioan.

Baiña an ez ebillan iñor, bideetan beintzat.

Eta egon ziran arboladietako argi-tarte eta zabalerak zaintzen be, begirik galdu barik.

Gabeko gauza izan zan.

Illunagaz balíatuta egiña.

Gaitz izango zala iñor ezagutu al izatea, bestea be bere kontua artuta egongo zalako.


Orduak egozan bitarteko, ziurretik.

Ain zuzen be, Armetxa beko andre zarrak, Marta'k zaintzen ebanak esan eban, berak, bear ba da goizeko irurak aldian, txakurraren zaunka bi edo oartu zitula, baiña ez ebalá ezer esan nai, bate-tik burutik ete ebillanka íñori lorik galdu ez eragitearren.

Irurak aldia izango zala, nai ta jagi ez, puxika beteta igarten eba-lako. Ta gitxi gorabera, ordu ori izaten zan bestetan be keixu eta premiña ori igarten ebanean.

Edozein izanda be, laster ígaro zala andik, txakurrak ots bi bakarrik egin zitulako.

Eta gaixoaren ordua geratu zan daneñ artean, zana zalakoak jantzi ori an laga ebanekoa.



KALIXTA ETA MARTA ADISKIDE

Kalixta izan zan Marta'ren albora joan zana, eta alkar artean, besteak ez igarteko eran, ixil-mixil esaten asi:

- Gure amak ba dakizu zer esaten ekian? "Neu nagusi edo musturak ausi".

- Zer diñozu orregaz?

- Ba ez dodala olakorik nai, nire aldetik beintzat, biok egunotan orrelako itxuran ibiliarren.

- Nik ez neukan gogo txarrik.

- Neuk be ez.

- Zeuk ez zendun begiratzen.

- Amaitu daigun. Ez datsut esan naiko argi ez dodala musturrekin jarraitu nai? Nik esaneran, zeozegaitik esan dot.

- Kittu.

- Azkenean Ana txikiak zuritu.

- Garraztu be beragaítik egin giñan.

- Odolak berotu ta labandu be miiña.

- Alaxe da, txikiña.

- Ta orain zer?

- Dana dalakoa gure atzetik dabil.

- Gu sartu nai katean.

- Nekez jausiko naz ni nastean.

- Ez dago ori bakoitzaren borondatean.

- Giroa egongo da kalean.

- Eta au jakitean?

- Joan egin bearko gara. Gaur arratsaldean edo biar goizean.

- Zegaitik ez gaur bertan?

- Ondo aztertu daigun danon artean.

Mutillak agertu ziranean, etxe bizitza bietakoak batu ziran.

Senide ziran, odol bereko.

Ez euken auzo arteko burukomiñik.

Bakoitzak berea zainduten eban. Eta iñoiz txikikerien bat gertaten zanean, alkarri agertu ta baketan konpontzen eben. Bardin kalteren bat jausten zanean. Alkarri laguntza eskintzen ekien.

Bestela, zarrak eta gazteak eta txikiak be, bata bestearen etxearen ondasun eta izateari lotsa eta begiramena artzen ekien. Berezko lez ikasita euken.

Danak batu ziran.

Zer nai ete eban jantzi a eroan eta an laga ebanak? Zer nai esan edo adierazi?

Larri ziran Armetxakoak autuan eurak sartu nai izango zituelakotan. Baiña besteak esan eben, ezetz; agirikoa zala zeliñentzat zan oarra. Ume orrein ardura eurak euki ebela, azken denporetan ama be eurak zaindu ebela.

- Purgatorixoko arimak ez ote dia izango?, esan eban Armetxa Goiko ama zarrak, giputxa zan lez, gipuzkeraz.

Danak dira an gipuzkoarrak, muga beste aldetik egiten dalako toki ori, eta nai ta egunero Ondarru aldera plazara etorri, eurak eurenari ten egiten dautse.

- Arimak izatekotan, erredura lagako zuten ezaugarri jantzi gainean, erantzun eutsan agureak.

- Lenago ere ikusi eta ezagutu izan ditugu arima eskeak. Baiña ba ezpadan ere, meza baten promesa egin dezagun lenbailen.

- Ixil zaiteze, mesedez, emen begi ta belarri asko dagoz-ta.

Umeakaitik esan eban.

Bestela be ba euken kezka ugari, arimak eta suekin buruak geiago gaixotu barik.

Edozatara be, zarrak eta gazteak eritzi bardiñeko geratu ziran. Komeni zala Ondarrua'ra joan eta lenbailen, angu agintariei gertatua jakin erazitera.

Eta esan be egin eben:

Dana dalakoak, gu katean sartuarren, edo sartzeko alegiñak egiñarren, onelako zerbait gu errira joan aurretik agertu edo zabalduko baleu?

- Ez egizu orrelako bildurrik, ez eta bildurraren aizerik be, Marta'k. Edozein ba da be, iñoiz kontatu izan dogun Marku'ren gertaera jakinda egongo da.

- Zer da ori?

- Ez dakizue?

- Ez gara konturatzen beintzat.

Eta aren jazorikua kontatu egin bear izan eban.

Entzunda euken zerbait Marku orreri buruz. Bere egitada eta bizibidea be zerbait. Beste ainbat edo geiago berak, urteak esan edo noiz jaioa zan batek esan eta jaiotzatik gure egunerarteko minutu eta segunduak buruz atarateko eukan doaia.

Baiña azken gertaera au ez eben ezagutzen.

Danak bat batera esan eben, Marku ori gizon argia zala. Eta burutsua, jakintsua ez ba zan be.

Bere gaixoak emoten eutsan doai berezi ori.

Entzun orduko danak esan eben merezi ebala orrelako gertae-rak zabaltzea, jende asko, aren gaiñetik dagozala uste daben asko, argitu daitezcan edo ikasi dagien zelan ibili.

Eta biaramonerako jokabidea itxuratu eben.

Andre gaztea, beti lez.plazara joango zan, esne eta etxeke ortuariak saltzera.

Beragaz joatearren, bere senarra be errira joango zan. Nai ta ganadu perratzaillea euren izan ez - albaiterua nun perratzaillea an, ori zan oitura-. Eureptzako Mutriku zan egokien, aibaiterua be an egoalako. Baiña "a"«&k len ipinitako perren ultze asko galduta eukazan.eta beragan etorteko asmoa ondo egoala esan eben danak.

Komeni jakoen perratzailleagaz traturik ez galtzea. Ondarroa'ko perratzailleak albaiteru askok baiño oitasun (pratika) geiago eukalako umegintza gertaten zanean arriskurik ba zan.

Kalixta eta Marta biak joango ziran alkatearengana. Orrela egoan eikezan asarre eta gaitz-ikusi esan-mesanak bertan bera eze-reztuko ziran.

Eta umearen jantzia eroango eben.

Alkateak, beste barik.esana sinistuten ba eban, danak pozik. Ez egoan beste ezerean bearrik. Danak pozik. Baiña guzurtzat edo ezi-ñekotzat etsiten ba eban, edo ikusten ba eben sinistu nai ezik ebilla-la, an egozan errian, bata merkatu plazan eta bestea perrategian, argi ta garbi zer gertatu zan azaldu edo egiaztatuko ebenak.

- Eta kartzelan sartzen ba gaitue?

- Nun eta zegaitik?

- Esan dot nun. Zegaitik, ba... egunetara joan ez garealako.

- Erantzun erreza dauka. Ez gareala errira etorri ta ez dogula guri deika ebillanik jakin.

- Eta emendik igaro izan dan norbaitek aginduaren barri ba dakigula esan ezkerok?

- Bal Nai dana. Edozer gertatuta be, alkateak ez dauka bizarririk ni kartzelan sartzeko.

- Ez iru bidar esan.

- Esan eta egiztatu.

- Ai Ene! Ez ziur kontatu.

Break eta bi entzungo lituke arek, askok baiño lepo andiango eukiarren.

- Ez asko esan.

- Zein da bera?

- Gernika aldetik etorritako bat.
- Erritarra ez.
- Bai zera. Gaur erritarrik egiten al dabe alkate?
- Zuzentza on bat egiteko erria edo erritarkeria izan lei kate.
- Legeak goitik datoz gaur, ez erritik.
- Esaten dabenez, alkate onek, legearen oiñarritzat, gauza bi ei daukaz.

- Lotsa izango da bat. Bestea... zer?
- Bai, zereko lotsa. Joan zaitetz ortik. Ba al dakie gaurkoak iñori lotsarik gordeten?

Orren oiñarriak oneik dira: makilla edo kartzela.

- Ixil zaitze.
- Ixildu?

Lagun baten ezkon aurreko aparrian.a gabeko amaiketan, "Boga-Boga" bat ixil-ixilik, bemol da guzti abestu ebela-ta, amarretik gora lagun eskoba kirtenak kalez kale ezin jasota erabili zitun arek. Erri guztiak daki ori.

- Zuzentza egitea ala erriari adarra jotea da ori?
- Adarra jotea domeka bat, bi, iru eta lautan bardin?
- Orrelako alkatea daukagu?
- Uren ganeko bitsean eta aren ganeko sitsean bizi ei da gure alkate ori,

- Ez da egia izango.
- Baietz, ziur egon.
- Urruneko intxaurrak amalau, bertara joan ezkerro lau, ez eta da gertatuko?

- Ezetz!
- Ziur zagoz?
- Orrelakoxe erria dalako gurea.
- Zeiñen kulpaz?
- Erritar guztien erruz.
- Erritarrak ez dabelako jokatu nai zentzuz. Beste erri baten onezkero kanpoan zan orruz.

- Eta beste jendeak zer diño?
- Batzuk, euzkia nora zapiak ara dabilzian artean...
- Ai enel Ba dakigu lenakoena:

Or goian landetan
eperrak dabiz kantetan,
Goiko erriko alkateari
kaka ein dautse praketan...

- Ez ete da emen onelako zerbaít gertatuko?
- Norbera il da gero?

Bildur apur bat artu eben Kalixta eta Marta'k. Olgeta-benetan, erabillen autu guztia, ain zuzen, bildurti bat kaka larritan lagateko erakoa zan.

Kartzela, zigorrak, eskoba-kirtenak, isunak, domeketan etxean egon eraziteak, goizetik gabera eskola etxean ur utsagaz euki eragiteak, edo ta berrogei eguneko erbesteratzeak. Bear ba da, batzuntzat, beste zigor andi eta gaiztoak baiño lotsakorrago eta mingarriagoak.

Onelaxe ebiltzala, Arantzamendi'ko morroia agertu zan, kezkatu.

- Nun dago?
- Zein?
- Ostuta eroan eben umea.
- Zer ba?
- Ondarroa'n zabal dabil Armetxa'n agertu dala.
- Zelan dakizu?

Txal bat eroatera joan naz goizean eta zabal ebillan an. Ementxe agertu dala-ta.

Erri guztia sekulako pozez. Sasoia zala zerbaít jakiteko eta ume koitaduren errukiz.

Ettxera biurtu naizen orduko, gure etxekoandreak bialdu nau egia ete dan eta umea bizi ete dan jakiten. Ba dakizue, bera egin barri da ta sekulako kezkak arek.

- Benetan zatoz?
- Zer ba, errekaizeak jota?

Alkarril begira geratu ziran danak.

Zer esango ete eban olako baten Marku azkarrak?

Pentsatekoa zan.

Ba ebillan norbait gauzak naastu edo errua beste norbaiteri ezarri nairik.

Zurbil egozan danak. Ebagita.

Lenakoana: atzamarra emon eta besua artu.

Baiña norbaitek jaurti eban ziria.

Eta besteak zer esango ebillan atsoak esan be bai:

Gogoratzen ez?

Guzur bat esan neban Gorozika'n.

Ni baiño lenago zan Asterrika'n.

Zeiñek billatu edo igarri pekataria?

USTE BAKO MANDATARIAK

Okerrago etorran.

Berrosasi eta Elordi bitartean gaitz ikusten zan bidean, zaldidunak igarri zituen.

Ertzaiñak?

Ala irudien an urrunean.

Ez egoan ezpairik, urreratu-ala euren nortasuna jatorrago oartuten zan.

Ertzain bi ziran.

Antxiña oiturazko eben ostera egiten?

Urteak ziran andik ibili ez zirala, bear ba da lenako oiturazko ibíllera egiteko aginduak lege iraunarren.

Umeak bildurtu ziran, ertzaiñak zirala ziurtatzean.

- Kartzelara ez gaitue eroango, ez?
- Arako biderik egin dozu ala?
- Posporua biztu eskolan.
- Noiz?
- Atzo.
- Ta? Zer erre?
- Atzamar punta au neuri.
- Betiko ume zistrin geldi eziña.
- Zistrin eta zirin.

Alakoxia ori. Esan be egiten da. Etxean zirin dana kalean be zirin. Egi galanta.

Onelakoxe buruasteak gero.

Nire billa datoz?

Beste iñok ez dau ezer esan.

Eta mutilla negarrez asi zan, eta zoratuta lez txilioka, eta iges egin eban kortan eskutatera.

Danak ekien mutillaren su-ziriak ez ekarrela ertzaiñik, maixuak olgetan zemai ori egiñarren.

Beste zerbait egongo zala tartean.

Bidea laburtu ala ezagunago etozan.

- Ume onek ekarri bear dauskuzan burukomiñak, esan eban erdi negarrez Marta'k.

- Geuk ezer jakin barik.
- Mesedeak baiño egin ez da.
- Nekatu zaitte mesedetan eta lo egingo dozu kartzeletan.
- Gizon asko eta prakadun gitxi dago egon be gure errian.

- Gonakaitik be zerbait esango genduke glzonok.
- Esan! Baiña gizonik egon ba litz onezkero an beian zerbait agertu edo jakingo zana... atzamarra Jokatuko neuke.
- Baserritarrak be artegatzen asi ziran.
- Etxean ez da konprimisuko gauzarik egongo, ez?
- Zer?
- Batek ba daki. Onelk datozanean arto uruna be gari urun biurtzen da ta.
- Beiak eta txalak udaletxean esanda lez dagoz?
- Ai enel Zeuk dakizu ori. Zeu ez zara orretan ibilten? Azkenen-
goa sartu zendun?
- Esne botikak kendu egizuez begi aurretik.
- Eta txo-txoren eskopetia?
- Txakurra katean lotu, burukomiñik ekarril barik.
- Gero ta urrerago ta gauza geiago gogoratzen, ezpai geiago, tresna geiagon ardura.
- Alual Esan be egiten dot nik gauzak artez eukiteko, baiña alperrik da zuekin. Olakoetan danok estu, gero, premiña eta erru barik.
- Egon ixil aita, baso bete uretan itto barik. Ez dakigu indiarrek eskatzera datozen be-ta.
- Urreratu ala, txakurrak be usaiña artuta, igarrita, zaunkaka. Ezin ixildu.
- Ertzaiñen zaldiak ikaratuta, zoratzeko eran.
- Bigun agertu ziran.
- Umore onez. Eta baketsu.
- Bide luzea zala, baiña...
- Zer, batzarrean?
- Ementxe, alkarregaz kontu-kontari, sasoi onetan zeregin askorik be ez dago-ta.
- Nun daukazue?
- Zer?
- Mesedez umea biar arte ementxe euki dagizuela eskatzen gatoz, erriko agintarien aginduz.
- Zein ume?
- Ana txikia ez da ba emen agertu? Agertu, edo, lendik al egoan emen?
- Emen ez. Ez dakigu ezer.
- Udaletxera dei egin dabe Armetxa Baserrian dagola. Baserri bi oneik ez dira, ba, Armetxa?

- Bai.
- Etxe bietakoak zarie?
- Bai.
- Danok zagoze emen?
- Mutiltxo bat falta, eta oean dagon amuma zar bat.
- Zengat urte daukaz falta dan mutillak?
- Amaika.
- Ta nun dago?
- Eskutatu egin da bildurrez.
- Otsoak al gara? Ekarri egizue.
- Karnetak?
- Zeiñenak.
- Danonak.
- Nik ez daukat.
- Nik be ez.
- Zenbat urte?
- Larogei nik.
- Bost gitxiago nik.
- Zenbat?
- Irurogei ta amabost.
- Besteak? Ekarri danenak.
- Ni ez naz emengoa.
- Nungoa ba?
- Arantzamendi'ko morroia.
- Jaiotez nungo?
- Itziartarra. Ala naizelakoan nago.
- Agiria.
- Ez darabilt aldian.
- Izen eta abizenak artuko dautsuguz gero. Urrengoan "partxea". Zetan zagoz emen?
- Goizean Ondarroa'n egon naz txala eroaten.
- Ta orain zetan emen?
- Ain zuzen be umea ikusten. Baiña ez dago.
- Ikusten eta ez dagola?
- Ze eskutuko darabiltzae?
- Guzurrrik ez daigun esan. Etxeak ikustea nai?
- Nai ez, baiña ala ba deritxazu ikusi ta jai.
- Eta ori?
- Zer?
- Jantzi ori? Zeiñena da jantzi ori emen orrelako umerik ez da agiri-ta? Zeiñena da ori?

- Orixe da agertu dana. Besterik ez. Eta guk uste dogu Ana'rena dala.
- Eta umea ez dagola?
- Egia, ez dago. Benetan diñogu. Gauzak argitzera biar joateko-tan giñan.
- Nor zara zu?
- Marta. Marta Igarra.
- Emengoa?
- Ez. Larruskain'en jaioa.
- Zer egiten emen?
- Ba... osasun bedarrak batzen.
- Esan dautsugu gaixoa daukagula etxean. Amuma zarra.
- Gaixoaren osabidean zu? Ez al dago osagillerik errian?
- Urrun egiten da Mutriku'tik etorteko.
- Ondarroa'koari deitu. Arek ba dauka zaldia be. Guretzako be urrun egiten da au. Baiña emen gagoz.
- Agiria?
- Ez daukat.
- Zu ez ziñan ba Zaldupeko andre gaztea il zenduna?
- Mezedez!
- Ba dakigu osagillea salaketa ori egin nairik dabillela.
- Ene ba da tal Nik egin nitun alegiñak a eskura ekarteko ta orain ori esan? Biotzik ez dauka osagille peseta zale orrek. Zegaitik bera ez zan agertu, gaixo egoala eta eskale zala jakinda?
- Eta zu?
- Zu be ez zara Zaldupe'ko umeekin egoten ziñana, eta gau baten sorginkeriak ikusi zenduzana?
- Zetan zagon emen?
- Josten.
- Zer josten?
- Etxeko jantziak. Nire bizibidea da ori, etxerik etxe orrelako utsunak beteten ibiltea.
- Agiria?
- Kalixta.
- Agiririk euki ezik Kalixta esan edo Petronílla zareala agertu, bardin da.
- Benetan. Zer dakizue umearen goraberan?
- Ezer ez.
- Zegaitik ez ziñen Udaletxera joan, andik deituta?
- Guk esaten dana baiña ez dakigu. Guri iñok ez dausku ezer esan, Eta baietz dagonik ba dago, gure aurrean esan dagiala.

- Beste bein itanduko dogu: Ana txikia, danok dakizuen umea, agertu da edo ez?

- Ez diñogu, ba, ezetz?

Etxea ikusi daigun. Basterrik laga barik. Korta ta guzti. Datorrela bat, lenengo, laguntzen. Besteok danok geldi, zirkiñik egin barik.

Ertzaiñak ezin sinistu eben.

Ilda ete egoan umea?

Etxe biak ondo ikusi ta aztertu, inguruko basterrak be arakatu zituen.

Bedar utsunea edo lur erabilia egoan tokiak be zearkatu zituen.

Dana alperrik.

Sinisten asi ziran.

Ez euken etxeokak, danak bardin, ainbestean zetan ukatu.

- Eta umearen jantzia? Nun eskutatu dozue len emen agirian egoan jantzia?

Kalixta izan zan besteak konturatu barik gorde ebana.

- Nun eskutatu? Zegaitik?

Eta etxe beteko atarraldia egin eutsen Kalixta'ri, uste oker barik egin ebalá ogei bidar eta parka eske esanarren.

Erabagi bat artu eben bat batean ertzaiñak.

- Umerik agertu nai ez dozuen lez, etxe bakoitzetik bat, zarrak kenduta edozein, Kalixta, Marta eta Arantzamendiko morroi dala esan daben morrosko ori, danok, orma aurrean jarri.

Danok zutik. Danok errira geugaz joateko.

- Ezer artu, jan edo jantzi barik?

- Danok errira, geiagoko berba barik. Egun bateko goseak kalterik ez dautsue egingo.

- Aldatu nai neuke zerbait.

- Aldatuko zara bidean.

- Mesedez, itxura onetan ezin geinke joan.

- Ez daukagu denporarik galtzeko.

Eta eurak, ertzaiñak, zaldietan jarri orduko, beste bost lagunei euren aurretik joaten asteko agindu eutsen.

Errirako bidea asi eben.

Ordu bi inguru bearko zituen, bitartean ezer gertatu ezik.

Zarrak eta umeak negarrez geratu ziran Armetxa bietan, Besteak asarre ta barruko garrazkeriz.

Batzuk eta besteak, danak, geroan zer izango kezkatu, eta ondorenen urduri.

Ez eben euren tokirik laga, Elordi ta Berrosasi bitarteko bidean eskutatu arte.

Angoentzat, ezer egin ez eta era aretan eroan bearra, negargarri baiño ittogarri geiago zan. Alkarri begiratuten eutsen, eta barbarik ezin esanda geratu. Armetxa'n ez ekien sekula eurenetik ertzaiñak eroanda iñok urten ebanik. Eta ori, garratza zan danentzat.



ERRIRAKO SARRERA

Kalandlko leiotatik konturatu ziran Zalduburuko aldatzean bera zaldi gaiñeko ertzaiñak etozala, euren aurretik gizon eta andrazkoak ekarrezala.

Batak batari ta besteak besteei oleska, beriala zabaldu zan errian barri ori.

Zubibbarri eta Zaldubide bateratzen diran tokian batzen asi zan jendea, ara noiz agertuko.

Umea billatu ebela ta pozik, batzuk.

Besteak umerik ez etorrara tartean eta zer gertatu ete zanka.

Baiña umea Armetxa baserrian egoala zabaldu zan lez, eta batzuk ba ekian lez biaramon arte an eukiteko agindua bialdu zala, zai egozan geienak uste eben, umearen lapurrak edo eskutatzaileak edo gordelariak zirala an ekarrezanak.

Zaldubide orren asieran gero ta jende geiago.

Ertzain bietako bat aurreratu zan eta errira sartu, ustez lagun geiagoren billa.

Laster joan ziran beste lau menditik etozanak geratuta eukezan tokira.

Orrela danen artean ekarten asi ziran, alkatearen aurrera Udaletxera eroan eta aren kontura lagateko asmotan.

Ertzain zarrak Ana'ren jantzia berari lagateko eskatu eutsan Kalixta'ri.

Eta berak eroan eban esku bategaz zaldi-ugalari eutsi ta beste-an jantzia erakusten, ezelako barbarik egin barik.

Lenengotan ixilik egoan jendea, zegaitik edo zer gertaten zan ezin konturatuta.

Ixilik etozanak be, jende artean, buruz-bera. Menditarrak beste-tan be errian lotsakor sartzen dirala kontuan euki ta iruditu zelan egingo eben olako baten.

Jendea, jantzia ikustean, artekatuten asi zan eta bere zentzu bako burutapenetan.

- Emen ikusten danez, umerik ez dator. Baiña bizi eta da? Zetarako dakarre jantzia? Basatikerien bat egin ete dabe or goietan ume koitaduagaz?

Eta lenengotan zuzmu eta kezka zan ori, iñok barbarik ez egite-an, egi usaiña artzen asi zan erritarren artean.

Ertzaiñak euskerarik ulertzen ez eban lez, ez ekian jendeak zer esaten eban, eta berak, asieratik lez, esku baten ume jantzia ekarren, ala erriari adierazi nairik besterik ez egoala aixe baiño.

Eta tinko joaten alegintzen zan, garaille bat lez, gauza andiren bat lortuta etorralakuan.

Zenbat eta erri barrurago ta beroago jendea. Ugaritu ala zenbat buru ainbat aburu. Edo ta zenbat zulo, ainbeste maratilla.

Ez jakiñak eta asmotxak berotzen eben giroa, euren pentsabide zoro eta nabarmenen ondorenez.

- Baserritar basatiak! Basamortuan biziteko obe dira eurok!
- Animalirik andienak eurok dira oneik!
- Zortzi urteko ume errukarri bat zelan ostu eta erabilí dabén moduan erabili? - San Lorentzo Asterrika'n erre eben lez, erre egin bear leukez orrelakoak!

Eta besteak, baserritar koitaduak, ezezkoak egiñarren, errubako zirala agertu nai arren, ezin eben geiago asmatu.

- Ezetz diñoë? Eurok ezetz? Zetarako dakarrez ba? Nun dauke eurok umea?

- Eta nor dira andra txotxin biok? Biotzik ba dauke eurok, andra txikiñok alakuok?

- Ikusten zelako sorgin arpegia daukan baltz arek? Barre egiten dau gañera, barre! Zezen bat aurretik bota bear leuskioe, ia danok tatarrez eroaten ditun.

- Gizon lodi ori goizean ementxe ez egoan ba? Zetan etorri da berori ondarrutarrok naastu naian?

- Lepo ederra dauka ba, galantak emoteko. Nun dira gure gizonak, euroi eskarmentu edo etsípen on bana emon barik? Zetarako laga alkateari, gero legezkoa au edo bestea dala ta danak barriro len lez basamortura bíaltzeko?

Eta pafil, arrautz bat jaurti eutsoen arpegira Arantzamendi'ko morroiari,

Onek, bat bateko urteeraz, alboan egozan andrakana bizi-bizi urten, bateri ezkeragaz samatik oratu, eta ia itoan eukita, zoli esan eutsan:

- Nai dozu nire ukabillak zelako takada emon leiken jakin? Esan, náí dozu?

An gertu zan matxinadea!

Andrazkoak asi jakozan euren atzazkalakin arpegíko narrua urratuten. Bakoitzak eukanagaz jo ta mankauta lagaten alegintzen ziran.

Odola dariola laga eben.

Ertzaiñak ez euken indarrrik ez ganorarik nastea eteteko.

Beste baseritarrak deika asi ziran, eurak ez eukela errurik, entzuteko mesedez, geldi egoteko ta orrelako agerbidekaz.

Baiña iñok ez eutsen jaramonik egin nai, esanalak esan eta zemaitu besterik.

Alako baten zentzu obeagoko gizon batzuk agertu ziran. Eta eurak be ertzaiñen gomakadak artuarren, andrazkoak atzeratu zituen gogor eta bero.

Zela ala pilloak, itsukerian ebiltzan pilloak, aldenabatu zituen. Batzuk ondesa eginda edo kirioak artuta geratuaren, ibilteko lez bidea zabaldu zan. Orrela Udaletxe aldera bizkor eroatea lortu zan.

Arrantzale batek Mitxel Armetxakoa ezagutu eban. Eta beragana urreratu zan.

Mitxel, gizon lodikote eta trapaloa izanarren, negarrez egoan, begirik ezin zabaldua, eta ainbat urte alkarregaz egindako Liburio ikusi ebanean, besarkatu ziran, eta ezin azkatuta egon, bere kirioen lotutasuna arindu arte.

- Zer da au Liburio?

Zer daukazue gure aurka? Zer esan dautsue edo ta zer nai dozue?

- Ez zarie txarretik salbatu, Mitxel.

- Baiña zer da? Zer egin dogu guk? Jakin leike zetatik sortu dan gure aurkako gorroto au?

-Zeukjakingodozu.

- Nik? Nik Liburio?

Eta erdi negarrez, berba asko itotasunak ebagita, kontatu eutsan zelan ekarri zituen, zer gertatu zan Armetxa'n.

- Eta origaitik ekarri?

- Sinistu lagun, ez dautsut ezer be eskutatuko, guré aldeko nai aurkako izan.

Eta bere ustez ertzain nausiaren arrokeri itsua agertu eutsan, bere gurenda bat ba litzan lez eurak andik ekartea, eta jendeari begitansíñoia eragiñaz kalerik kale pekatari edo iltzaille batzuk lez erabili nai izatea.

Eta andre batzun txolinkeriak be min emonda egoala esan eutsan, besteak berotzen iñarduen ez jakin batzuen ekiñak beretik atarata.

Liburio, Mitxel'en fede ona soladutzatik ezagutzen ebalako, sinistuten asi zan.

Ez bakarrik orí.

Bigarren olatu aldia etorrí baiño len, gauzak argitu egin bear zirala-ta, arín urten eban andik, eta kale ertz inguru baten ikusi eban lenengo lagun taldeagana joan.

Berak pentsatu eban lez, ba etorran bigarren olatu aldia.

Bata bestearen gain an ebiltzan asmo barriak eta jokabide barriak batu ta egosten.

Andreari au egin eutsela, berak ezin eikiala ori bertan bera laga; alaba zapalduta erabilí ebela; emazteari jantzia goitik bera urratuta laga eutsela; ez dakít zeíñeri artutako zapladakin arpegia anditu eta odol batuz baltzitu jakola...

Ez zan erreza ango esanak entzun eta ango irakiñak makaltzen asteko alegiñetan sartzea.

Baiña Liburio'k ba eukan bere lotsa eta bere itzala errian. Ainbat erri premiñetan beti izaten zan lenena agertzen. Estropada irabazi eta erriari ospe asko emona be ba zan.

Berbetan asi orduko, talde a errubakoa zala sinistu eragiten asi zan,

Mitxel'ek esanda lez, zer gertatu zan sits eta bits agertzen ekin utsan.

Ez eben sinistu nai, baiña berak bere berba emoten eutsela alaxe zala.

Ez egoala ume galduaren ezer. Agertu zala eta abar guzurrak zirala.

Ertzaiñaren arrokeri bat zala, erriari emen nagoka lez, ijito eta ez jakin lez talde a ekarte.

Ta zegaitik urten dau astokílo andi arek andra bateri samatik oratu ta ukabilkadaka asteko asmotan?

Aleri lez arrautza bat arpegira jaurti ta ia begia itsutu ezkeri, zer egingo zenduke zuk?

Eta arrautzaATEGAITIK kristonak emotera gertu? Zeiñeri eta emakume bateri?

Begia itsututa daukazula ikusten al da zeíñen aurka zoazen? Gañerajo ez eban egin. Zemaitu baiño.

Orrela, bigarren olatu aldía batu ta ugaritu bearrean, leuntzen asi zan.

Líburio'k ba ekian, barealdia zenbat eta luzeago, errezago mantso-tuko zirala kiríoak (nerbioak) eta bizitasunak zentzu batera jatarrago erakarri.

Eta errían adískerik ez girorik ez eukan ertzain buruaren jokoá salatu eta beratzen así zan.

Erriak, kontaratu barik, jokoan lagundu eutsala.

Eta, mintsu lez, geitu eban:

Geu be betiko andre bero, zital eta sorgintsuen esan-mesanei jaramon egiten gabiz eta...

Orduntxe etorran, Udaletxerako bidean, alkatea.

Erbestean egona zan arratsaldean. Bear ba da Ana'ri buruz zelan jokatu inguruko alkate lagunen bategaz aztertzen.


Kezkati etorran, egon ziran naste ta zaratei buruz bidean zerbait esan eutselako.

Taldearen ondora urreratu eta beriala asi zan oi eban aginpide eta destaiñez:

Zetan zagoze emen gizonak? Zetan? Barruan ez dagoz ba? Neuk, neuk egingo dot emen bear dan zuzentza.

Eta danok etxera, iñor berotzen ibilí barik! deadar egin eutsen.

Ez eutsen jaramonik egin nai. Baiña arek bat begitan artzen ba eban, pizti gaiztoa zala ta... lagun taldeak arintzen eta aldebanatzen asi ziran.



ALKATEAREN AURREAN

Ordurarte ixilik egon ba zan be, Kalixta txakurtu egin zan alkatea Udaletxera agertu eta euren aurrean jazarri zanean.

- Jauna, oneik ez dira Jaungoikoaren orduak eta au ez da kristiñauen egoera.

- Mezedez, andratxu. Egon zaite ixilik eta itanduten danari erantzun, besteak laga-ta.

- la larogei urtetara eldu ta nun ikusten da arrera eta jardun au?

- Andria, neuk itaundu arte ixilik.

Ixilik zorria egoten ei da, baiña berak nai dabena egiten.

- Lenengo, zein zara zu?

- Ni? Kalixta. Kalixta Larruskaíngo. Ondarrua'ra urak ba dakizu nundik datoza? Ba antxe bertan jaioa.

- Eta zer daukazu ze ikusi Ondarroagaz?

- Ori nai neuke jakin. Zetarako deitu dauste onera?

- Zeiñek deitu?

- Or ez diarduzu ba, inguru guztiei agintzen, Marta ta niri, biori, emendik agertzeko deia dakarrela jakin eragiteko?

- Nortzuk zarie?

Emen zagozen biok?

- Jauna, kontuz.

Ba dakizu zer esaten eban naparroatik etorten zan mandazain batek? "Atso zarra mokotsu, sobera barri dakizu".

- Ba nik ba dakizu zer esango dautsudan? "Atsoa, zuretzat kakamoltsoa".

Eta parkatu eta ixildu, mesedez.

Mai gaiñea jota, asarre bizian esan eutsan parkatzeko eskabide ori.

- Nik parkatu eta ixildu? Eta alkatea zara zu? Alkatea? Makilla garbia darabiltzu zeuk?

- Mendítik ekarria, andrea, menditik ekarria. Ez dakizu? Mendian azi, mendian bizi, kalera etorri ta bera nausi? Ba orixe.

- Oraintxe errazoaia. Bera nausi. Baiña ez zuzen dalako?

Besteak sartu bear izan eben Kalixta ixildu eraziteko.

- Eta zuek?

Zu, esate baterako. Begia baltzitura zagozen zu. Zetan ekarri zaitue.

- Zetan? Ekarri nabenak ez dau bear eban garbitasunik emon?

- Biar goizean, bear ba da.

- Eta biar arte egon bear gara?
- Legez bai.
- Dana dala, alkate jauna. Ni Arantzamendi baserriko morroia naz. Ba dakizu Arantzamendi Mutriku dala. Ni neu itziartarra jaiotzez. Ezagutzen ez?

- Erritarrik ezin ezagutu eta...
- Ondo dakizu ba Arantzamendi nun dagon. Ikusi zaitut nik andik perrotxiku naian eta... gure sukaldean arrautzakjaten.

- Kontxo! Ango morroía zara? Ta? Zer egin dozu? Zer egin?
- Goizean emen egon naz txala ekarten.

Emen jakin dot ostu eben umea Armetxa'n agertu zala. Gure Nikasi'ri esan orduko... Armetxa'ra bialdu nau zerbait jakiten.

Bera be oraintsu umea egiña da ba. Eta bildurretan bizi, esaten diranak entzunda.

- Kontxol Nikasi'k umea ekarri dau? Galanta eta baba lorea lakoxea ekarriko eban arek.

- Ba! Gure Txuri beia letxe. Iñoiz ikusiko zendun. Errapa andia ta esnerik ez.

- Zer zan, mutilla?

- Bai jauna, bai, antxoaduna.

Esanda lez, Armetxa'n nenguan zer gertatu ete zan ikusten. Ertzaiñak etorri dira. Ikusi dabe dana guzurra zala. Sinistu nai ez, ezetara be, umerik an ez egoala, Eta andik ona ekarri gaitue, beste geiagoko barik.

- Zetan ekarri?

- Testigantza emotera itxuraz. Edo ez jakin beste zegaitik.

- Umerik ez dala agertu, diñozu?

- Ez, ez jauna.

- Ezin ori. Goizeko bederatzietako albistea etorrita egoan.

- Nok emonda?

- Ez jakin. Orrelakoak eskutukoak izaten dira.

- Ba ez jauna, ez.

An ume jantzi txiki bat baiño ez da agertu. Eta oneik esan dabe arena, Ana'rena zala.

- Eta begi ori zeñek baltzitu dautsu?

- Andrazko zistrin batek.

- Emen?

- Ementxe bai, arratsaldean.

- Zerbait egingo zeuntsan.

- Umearen lapur uste izan gaitue.

Baiña... Niri arrautza jaurti? Egunen baten ortik zear arrapatuko baneu...

- Eta zu?

-Ni?

- Edozein. Bietatik bat.

- Ni Armetxa'ko Mitxel.

- Goikoa?

- Ez, au da Goikoa, Bartolo. Ni Bekoa. Baiña bardin da. Danok bardin eta leku batetik ekarri gaitue. Eta zure erri onetan benetan txarto artu.

- Nik ez.

- Orixe besterik ez gendun bear.

- Egunero etorten da nire andrea plazara. Uda ta negu. Baiña, jauna, emendik aurrera gure Mutriku'ra joango gara. Ez dogu guk iñolaz merezi gaurko emengo traturik.

- Gurí ori, zer gertatu dan be ez dakigun ume zoritxarrekoa dala-ta?

- Barriro be guk mutrikuarrok aidean erabilli bear entzun nai ez dozuen errepika: Ondarru txabillu erre beru...!

- Une bateko eta batez be brasta-brastadako egiturak ez dau bízitza guztiko izaterik ondatu bear.

- Ori diñogu.

- Baiña gaurko emengo nabarmentasuna...! Ez eta Lastur'go zezenen artean be.

- Eta benetan. Gauzak lenbailen erabagi daiguzan. Guzur eta eskutuko barik: Zer diñozue?

- Zer dala ta?

- Ume orren autuan.

- Guk ez ba dakigu ezer? Zer esan? Entzuna baiño ez ba daki-gu, zer?

Jaungoikoako!

- Baiña egia, zer da?

- Goizaldean, etxe bien erdiko aterpean, norbaitek, iñok ez daki zeñek, jantzi txiki bat laga dau.

Emen dagozan andra onein esanetan, ostu eben Ana umearena da.

Guk dakigun guztia orixe da.

Ba dabil norbaít azpitik.

Satorrak alaxe ibiltzen dira.

- Ertzaiñak zer billatu dautsue artuta ekarteko?

- Umerik ikusi ez daben lez, gu artu, gure ustez, eurak andik joan dirala ziurtatzeko.

- Gaba da. Etxera joan nai dozue?

- Baita goizaldea izan da be.

- Bildurrik?

- Zerbait eukitekotan emengo andra bizardunei.

- Kontuz berbakin.

Gure andreak baiño geiago. Ze kalte dago ori esatetik?

- Ba dagoz emen be andrak.

- Gu ez al guaz gizonekin?

-Ez.

- Zegaitik ez?

- Zuekin kontutxu asko esateko daukadaz. Nik eta ain zikin ikusi dozuen erri onetako alkate makillak.

- Emen geratu gu? Nun afaltzeko eta gaba egiteko?

- Ez estutu, asko ez dozue bearko-ta.

Eta alkateak iru gizonei aolku (kontseju) emon eutsen, ez geratzeko iñungo tabernetan, eta zubizarretik joatea obe izango ebela, erritik ainbat ariñen urteteko, kale-kantoietan geratu ziranen batzuk barru zarataka egin barik.

Bidean eiozala, eleizako orduariak dangada bakarra emon eban.

Bederatzi ta erdiak?

Ez ditu joten birritan. Amarren urrengo erdiak dira.



ESTU TA LARRI

Gizonakin ain bigun eta jator egon zan alkatea, zearo aldatu zan.

Kalixta asarreka asi zan:

- Berandu da.
- Bardin dira niretzat goizeko laurak be.
- Jauna, ez al dago kontzientzirik?
- Galdu zan. Edo galdu zenduen.
- Emakume gara eta adiñez aurrera goazenak.
- Kolko andiago dozue beste askok baiño.
- Gauzak garbitu arte ez dozue emendik urtego.
- Eta ezer ez ba dakigu?
- Guzurra ba da be esan. Egira eroango gaitun guzurra, besterik ezean. Baiña orixe, egira eroango gaituna.
- Zuek, bata ta beste, neskazarrak zarie?
- Urtetako neskak.
- Atsoak?
- Atsoa amuma ba da, ez dogu onetan parterik.
- Ez ziñen ezkondu?
- Ez.
- Eleizatik kanpora be ez?
- Alkatea, adarretatik?
- Erantzun.
- Lekukoa (testigua) eskatuko ba genduke?
- Zetarako?
- Gu andra koitaduak garealako. Eta emen, gauzak txirristadan duazalako.
- Dantzan egiten zenduen gaztetan?
- Dantzan obeto artajorran baiño.
- Mesedez, ez olgetan erantzun.
- Lagunik eukí zenduen?
- Neska laguntzarako geiegi.
- Eta lagunak, zeintzuk?
- Plazako onenak. Erritarrak, ingurutakoak. Onenak.
- Danak ezkondu ziran?
- Batzuk ezkondu, besteak il ta bat beíntzat urkatu. Orixo be bai. Jakín nai? Ba entzun dozu.
- Larogei urte oneitan urkatutakorik ez da ezagutzen emen.
- Ingurutara itandu.

- Zuk esanda errezago litzake.
- Gauza itzalak dira orreik gogoratuteko.
- Zu etxerik etxe ibiltzen zara?
- Eskatzen dabenetan.
- Sukaldean? Josten?
- Ordaintzen daben arduran.
- Ume bakarreko etxe asko ezagutzen dozuz?
- Asko ez, ingurutan, Zurtzillo pandangoak garbitzen ez dakien umeak obeto billatzen dira.
- Eta ume bakoak?
- Ume bakoak Kajatik ekarten dabe.
- Umeak nai dituenak ba dagoz orretara.
- Asko, baiña eurenak nai dituenak.
- Eta ezin ba dabe? Beste batena artuta kitu?
- Ni ortik azke geratu nitzan bai?, ta ez dakit ainbesterik.
- Madalena ezagutzen zenduen?
- Madalena Zaldupeko? Zoritxarrez.
- Zegaitik?
- Burukomiña baiño ez dogulako artu bere ezaupidetik.
- Ba dakizue bere atsegiñetara nora joaten zan?
- A joan ez. Bera joan ez, ziur egon. Billatu egiten eben. Orixe da egia.
- Umeak zeñenak diran jakin bai?
- Berak be ez eban jakin bera norena zan.
- Danak ez da be, irutik bat...
- Ain zuzen be irurak bere marka dauke ta ez beste iñorenik.
- Bakarrik ez zitun egingo!
- Esnetu ez kontixu. Baiña egin, sortu, bakar-bakarrik arek, iñori deitu barik.
- Bere inguruan ez zenduen iñor ezagutzen?
- Bideetan ibiltzen diran morroi, mutilzar edo ta gizon guztiakaitik txarto pentsatu bear al da?
- Sekula usteko ez neban batek artu nindun bein estu. Eta? Origaitik beti lizunkeriz pentsatu bear?
- Ezin jakin lei nor zan?
- Alkatea, mesedez.
- Abadeak be eskatzen ez dabena eskatzeko eskubiderik bai alkateak?
- Ume onen kontua abadeak ez dabe garbituko. Ziur egon.
- Kontzientziko gauza dalako.

Ez al dau kontzientziak ume errukarri baten alde jokatzera bear-
tuten?

Zure fitxa, zure nortasuna ba daukat, Marta.

Konbentu baten egona.

Andikbialdua...

- Fitxa ori ez dago ondo.

- Zegaitik?

- Nik urten nebalako, ez bialdu.

- Urten?

- Urten, bai, ez nitzalako asetuten. Beste zerbait nai nebalako.

- Ze bizibide aukeratu zendun gero?

- Andrena.

- Eskontza?

- Jauna, nik ez neban andik urten iñungo berotasunik eukiten
nebalako, jakin?

- Ba dirudi laban ibili nai dozula-ta.

- Labankeriak beste batzunak. Beste zerbait ez esatearren.

- Ze bizibide aukeratu zendun, itandu dautsut.

- Andrena, erantzun dot.

- Zer da ori?

- Etxetako lanak.

Eta osasun bedarren aitzakiz, sasi osagille.

- Zenbat umegintzatan ibili zara?

- Etxeko zeregiñak galerazota al dagoz?

- Baiña ume-sortzeak...

- Edozein andra burutsu baten zeregiña geiago da ori, eta
andrentzat lotsa gitxiagoko, osagille gaztena baiño.

- Zenbat eskutuko edo lotsarian ez jausteko ume aurrerakun-
tzetan ibili izan zara?

- Zirin bedarrak batzeko zeñek galerazoten dau? Or konpon
gero artu nai edo ez.

Ortik aurrera ez dakit ezer.

- Orrelako salakuntza daukat zure aurka. Eta emen nabil sala-
kuntza ori aurrera bialdu nai ezta.

- Orí egin ebanari esan, berak salakuntzaa bateko nik, baserri
askotako etxe-jaun eta andreak lagunduta, bi sartuko dautsadazala.

- Geldi, ez gangortu.

- Gauzak diran lez.

Zein dala uste dozue, biok, Ana Zaldupeko neska ori ostu edo
eraan dabena?

Gurasoen bat?

Lapurren bat?

Andrazkoen bat?

Gaixoen bat?

Ez dago erantzunik? Ez batak eta ez bestek?

Gabaz obeto gogoratu dagizuen lagako dogu, itxuraz, ori nai dozue-ta. Amabiak dira.

Ez ganora ta ez itxura.

- Ba daukazue nun lo egin?

- Ez nun jan eta ez nun etzan.

- Kalean ez gara geratuko, ez? Orixe be ikustekoa litzake.

- Ba dakit tokirik ez dagola ospitalean. Ordua be ez da ara joateko.

- Iñorako be ez.

- Nai ba zenduke kartzelan...

- Alkatea, lenakoana: Ondarroako gauzak ora pro nobis. Iarogei urte lepoan eta kartzelara?

Zaldupeko aterpea zabalik bá dago, naiago bertara joan.

- Biar, eguerdi ostean, barriro etorriko bearko zarie.

- Zure kontura lagako dogu taberna.

- Taberna da errezena, Kalixta. Lua da kakua.

Obea al da emon dauskuen tratua?

Amabiak jo zituenean, andrak baiño ariñago urten eban alkateak, biaramonean lanera joan bear eban aitzakiz.

Eta besteak, asarre: Zu lanera ta gu? Ori da pongolak jotea!



BASERRIRAKO BIDEAN

Zalduburu'n gora ez joatéarren, Burgo'tik eta Santa-kutz atzetik, Doistu gaiñetik zear jo eben iru gizonak.

Gaua zalako ta bide argi eta bardintsuago zalako, len ekarri ebena baiño.

Tartetan, batez be arboladien Illun aldietan, ota bat artu, su emon eta bere argiagaz baliatzen ziran. Bestetan itargia. Il gora zan.

Aldabe aldera eldu ziranean, Arantzamendi'ko morroiak bere bidea artu eban, etxeoandrea orduzkeru bere zain larri egongo zala-ta. Eta bildur zan, ikusiak ikusita, len makal egon eta makalago geratuko ete zan, batez bere begi baltzitua, eta arapegi urratua eta beste zauriak igartean.

Besteak aurrera joiazan. Eta Berrosasi ingurutik argi makal bat oartu eben, kandela argidun parol txiki baten argia, oraindik urrun, baiña eurekanantz.

Zein ete da inguru onetan orduak ordu dabillana? Gaixoen bat nunbaiten eta norbaiten billa?

Zapatu edo domeka gaua izan ba litz... gazteren bat izan eikean, edo neska laguntzailleen bat. Baiña urtetan be ez zan iñor eza-gutuko ordu orretan eta negu sarreran, besterik barik ibilten.

Argia urreratzen etorrara konturatuta, eurak ekarren otea ainkapean erabili, atzen eta amatauta laga eben, eta bide ertzean esku-tuan geratu.

Ume eta gizonen baten abotsak oartzen asi ziran.

Larritu egin ziran. Izerditan geratu. Tuku-tuku biotzak.

Norbait ete dabil emendik ostu edo galdu zan umeagaz?

Zer egingo? Eskutuan iraun? Bidera urten arpegia emon eta nortzuk ziran jakin?

Beste kezka: Ezer egin ete dabe etxeetan?

Egon ziran atzeraka egin, morraiazen billa joan, eta irurak beste tokiren batera joan eta an aurre egitekotan.

Baiña lengoak ikusi eta barriro nastean sartu?

Eta bidetik zerbait aldendu ziran, eta bidea ondo zaintzeko toki baten etzan.

Umearen abotsa gero ta garbiago entzuten zan gabaren erdian. Gizonarena illun.

- Nekatuta nago. Miñetan daukadaz ainkak.

- Eutsi. Laster aldatz bera ta errezago joango gara, eta ariñago.

Zuk usté dozu Ana bizirik egongo dala?

- Zenbat bidar gauza bardiña itandu?
- Pentsaten dozu?
- Iltea txarrena eta azkena da.
- Ta ilda ba dago?
- Orretarako ez eben eroango.
- Zetarako ba?
- Orixe ez jakin.
- Onerezko agertu bear zan, bizirik egotekotan.
- Bear ba da nunbaiten agertua egongo da.
- Baiña entzun dozu Armetxan zer esan daben.

Poztu egin zirala ez agertzeagaz.

- Zegaitik?

- Atzo agertu ba zan, eroantzaillea ertzaiñen tranpan jausiko zan.

- Zer egingo eutsen ertzaiñak?
- Ana'ri ezer be ez. Bai beragaz eioanari.
- Iño! Arantzaren bat daukat ainkan. Gero ta min geiago.
- Nik kezka biotzean, eta gero ta geiago.
- Zegaitik?
- Len argi bat agertzen zan urrunean. Ez dozu ikusi?
- Onerezko eldu bear zan gure ingurura.
- Ana'gaz dabillenak ete dira?
- Ez dot uste.
- Ala gantzeruak?

- Orreïn bildurrik ez euki. Amaitu ziran. Eurak be bildur izaten dira mendien sakonean.

- Izkilluz beteta ez dira ibilten ba?
- Izkillu bakuak txarragoak.

Gau ontzen bat, euren zarata entzutean, narraz eta zaratatsu egaztu zan inguruan.

Armetxa'ko mutil biak ziur ez, baiña ezagukotzat emon eben, baiña ez eben nai izan agertu edo euren bururik erakusterik.

Biak artega geratu ziran. Besteak zerbait urrundutean, barriro euren bidea asi eben, eta angoa ondo ezagutzen eben lez, egunero ebiltzan bertatik-eta, ez eben otarik biztu nai izan, igaro ziranak norbaitek ikusi zitula jakin ez egien.

Beitz'ko seme nausia zalakoan gertau ziran. Eurak giputxak izanik, bestearen bízkaiera laster igarri eben.

Baiña ordu atan eta mutil aregaz?

Ba ekien Beitiz'en ez egoala ume txikirik. Ba ekien bein itxaropenean egon zírala, baiña galdu egin jakoela. Plazatik andrak eroandako kontuetatik gogoratzen eben ori.

Eta Beitiz'koak ete ziran, ba, umea, goi mendian, Kostolamendi edo inguruko baserrietan eskutauta eukenak, egun egoki baten eurentzat artu al izateko?

Eta Madalena inguru orreitan ibilten zala jakinda, Beitiz'koak berak ez ete eban makalaldien bat eukiko, ta orain bera íltean, aitasuna emoteko nasaitasun bat billatu?

Eroien mutiltxoari buruz, eurak ez ekien ezer.

Etjera eldu zíranean, ez egoan iñor lotan Armetxa'n. Ez baten eta ez bestean. Eta inguruko barbaroa entzun eta txakurrak zaunka eta saltoka asi ziranean, poztu ziran danak, zer jakingo edo zer entzungo urduri.

Goikoetxean alkartu ziran danak. Egun aretan antxe egín eben artu eben berakats sopa be.

Eta gertatuak agertu.

Lenengotik esan eban ango Emeteri'k bera ez zala geiago Ondarroa'rajoango plazakoagaz.

Ango txori-txiki bi geiago lortzeak, ez eutsela penarik emoten. Baiña bere gizona entzun eban eran erabili bearra...!

Bereala aldatu eban lenengo pentsakera ori.

Bein bakarrik joango zala, eta goiz aretan bertan, gau erdia iga-
rota egoan eta. Lau berbatxo ondo esanak bezero batzuei esan eta agur egingo eutsela. Bide batez Armetxa'n egozan kalixta eta Marta ikusteko alegiña egingo ebela, izan be egun areitan euren zerbitsuan egozalako, eta euren alde zerbait egin al ba zan egiteko gogoz.

Andra biak, egunero merkatura joatean, ezaun eta adiskide asko egin zituen urteen buruan.

Alkateak berak, Armetxakoak ziralako, eta ango entzute ona eukalako laga eutsela gizonei geiagoko barik etjera joaten, geituten eban Emeteri'k.

Alkatea bera lotsatuta egoteko, zelako nabarmenkeria izango ete zan ango andrena? Orrek emoten eutsan barruko bizitasun garratz eta aierkorra.

ERTZAIN AGIRIA

Urrengo goizeko ia amaietan sartu eban ertzain nausiak Udaletxean aitatu dogun osteraren agiria.

"Aginduta lez Armetxa'ra joan eta Ana umeagaitik arduratu giñan.

Angoen aldetik erantzun illunak artzen asi giñan.

Ori ikusirik, eta Ana an ez egoala ainbat bidar entzun ondoren, bertako etxe biak aztertu eta ikertu genduzan, korta, bizileku eta ganbara ta guzti. Ez gendun umerik billatu.

Etxe ingurutan ba egozan une batzuk, lurra erabilia izan zanaren itxurakoak, eta egunetan zerbait agertu ezik, komeniko litzake atxurkada batzuk euretan emotea, obeto ziurtatzeko, nai eta gure uestetan, erabilketa orreik aurreragokoak izan.

Egun berbertan, goizaldean, neska jantzi bat agertu zala, eta nundik agertu zan jakin ezarren, Kalixta jostunak esan ebala ziur egoala ostutako Ana'rena zala, esan euskuen.

Ez eben argitasun geiagorik emon. Agertu egin zala.

Ertzain burua jaubetu zan beragaz.

Bertako gizon eta andrak betozkoz artu genduezan, agerpen andirik emon nai-ez-da. Origaitik errira ekarri genduzan, alkatearen aurrean ia obeto eta argiago agertzen daberen euren egoera.

Bidean, erriko kalean sartuta gero, erriko jendeagaz asarretu egin ziran, eta bat arro jarri zalako, arrautza txikien bat jaurti eutsen, eta geiagoko bariak, erria berotu baiño len, Udaletxean laga genduzan.

Armetxa bietako jaunarekin batera, Arantzamendiko morroia dala esaten dabena ekarri gendun. Oneri eun pesetako isuna ezarten dautsagu gurealdetik, karnetik ez eukalako. Eurekin batera, eta eurak an egotea dudazko zalako, Kalixta eta Marta etxerik bako andra zarrak ekarri genduzan, emen kontua artzeko.

Andra bi oneik merezi dabe errixeta bat, erriko jendea berotuta ikustean, itxurabako kiñu eta agerpenak egin zituelako, eta jendearen asarrea biztu eragin.

Eurekaitik eskuan nekarren Armetxan agertutako jantzia, jende artean galdu egin zan".

Alkateak eguerdi ostean irakurri eban agiria.

Bal Ez urik eta ez gatzik. Arro putsat!, esan eban ertzain burua-gaitik. Gau guztia igaroko eban agiri au egiten, galoiak geitzeko!

Onen begira euki be nitu baserritar gixajoak gaur goietakoak emen ziran aker eta guzti.

Txori-mallutzako be balio ez daberen ertzain asto-kirtena!

ZALDUPE'N

Erria gora-goraka eta asarre igarten zan goizean, baserritarrak libre laga zituela jakin zanean.

Urreak lorik egin ezinda, eta orretan nastauta egon ezarren, zerbaitetan parte euki leikien erdi gantzeruak ain arin azke laga?

Gaiñera bart bertan gertatutakoa ikusi eta ango jantzi-triskantza kontuan euki ta ordaindu eragin barik?

Areik zer ikusirik ez eukela batzuk sinistuarren, ba egozan oraindik asko, geienak, baretu bakoak eta gauza utsa bear ebenak barriro irakiten asteko.

Argi esaten eben batzuk ezer ez zala gertatuko, ertzaiñak zaldi gaiñean barik oiñez etorri, eta iñor konturatu barik gizon areik udaletxera eroan ba litue. Erriak aintzat be ez zitula artuko, zerbait jakitekotan ekarrita lez. Baiña era aretan ekarri, eta iñori argitasunik emon nai ez...

Emeteri eldu zan errira. Asto gaiñean. Bestetan erritik gorakoa egiten eban orrela, berakoan astoa beteta ekarten ebalako. Errira sartu ta beste barik, iñogaz egon barik, merkatu plazara joan zan. Bezeroei itxaroten egon. Eta agertu ala, urtetako lotura eten egiten eban, erdi negarrez, geiagok konturik esateko gogo barik. Ez ekian bezeroen batzuk tartean ziran edo ez. Ez eban jakin nai be. Gizona aretara arteak, ez eutsan lagaten bestelako pentsabiderik eukiterik.

Alperrik bezeroen zuriketak. Alperrik bere alde jarreak be. Ez egoan iñori entzuteko. Adorerik ez. Bere gizonari ori egin bearra!

Plazara abatzen asi ziranak laster asi ziran korrotan. Baserritarrak, beste aldetik, jakin ala euren asarre eta naigabea agertzen asi ziran. Eurak, besteak baiño atzeratutzat eukiarren, ez eben, beste barik, orrelako jokabiderik artuko. Erritarrak be konturatzan asi ziran ekarri zituenen aldetik ezin egon eikeala orrelako jokabide illun eta lotsagarriak.

Baiña ezagutu ezak be jokatu eban bere jokoa naste aretan.

Emeteri'k, bezeroen gorabera amaitu ondoren, Kalixta eta Marta'ren egoera jakiten alegindu zan. Plazaratu ziran andrak ez ekien auren barriak. Ez udaletxean, ez kartzelan. Nun gordeta euki atso zar bi areik?

Ertzaiñak esan eutsen eurak laga zituela bear ziran tokian eta ez ekiela geiagorik.

Nunbaitetik jakin eban gabeko amabietan oraindik alkateagaz egozala.

Alkateak berak kalean laga zitula eta eukiko ebela aterperen bat bestetan iñoiz eukiko eben tokiren baten.

Alako baten be Zaldupe'n egon eikezan azterrena artu eban. Beriala bertara joan eta an ikusi be,

Kalixta ondoez gogorak jota ebillan eta Marta berari bizi eragiteko urak gertuten.

Bata ta bestea ezer jan barik egozan. Eta lorik be egin barik.

Marta, bere kaleko nabarmenkerietan barruak artu eta zirindu egin zan, eta barruko gonak iñor konturatu orduko garbituta eukazan eta legortzeko eskegita.

Bestea, benetan, izerdi otzetan, makal.

Arin ibili zan Emeteri.

Alkatearengana joan zan, baiña berari laneko orduetan baketan lagateko esan eutsan. Geldi ez egoteko lako arazoa zala, baiña arratsaldean ikusiko zitula ta mesedez baketan lagateko.

Abadearengana andik.

Abadeak, karidadeko andren buru egiten ebanaren zuzenbidea emon eutsan, bere aldetik egin bear zana egiteko baimena ba eukela, esanez.

Au, beste lagun bateri deitu, ta beriala gertu zan ikustera. Eta osagillea be artu eben bidean.

Osagilleak Marta ikusi ta beste barik, andik kanpora urteteko agindu eutsan, lenakoak be naiku zirala-ta. Bestela bera ez zala sartuko-ta.

Erdi jantzian egonarren, lenengoz beintzat urten bear izan eban Marta'k.

Gero, zela ala andrak zuritu eben osagillea, lagunak zirala ta zetan ekarri zituen ba ekielako, eta osagilleak be berogarri utsa emoten ebillala ikusi ebanean, sartzen laga eutsen.

Osagilleak, Kalixta ikusiagaz batera, ainbat lasterren zerbaít egin bear zala jakin erazi eban. Andik atara beintzat. Berak ezin eikean aterpe aretan atso a laga. Ospitalean tokirik ba dago, bertara.

- Eta ez ba dago?

- Egin dagiela.

- Noizko?

- Ainbat lasterren.

Eta emakumeak alkarregaz berba egin eta bat abadearengana joan zan. Onek berak lagundu eutsan andreari ospitalera. An gertu eben laster egitekoa.

- Eta alkateak?

- Alkatea, batzarrean, bat da. Besteok boto geiago daukaguz. Eta onelakoetan, osagilleak agintzea naiku da.

Abadea, eskale eta beartsuekin, zíría sartuko eutselakoan zur ibiltan zan a, gaixoa bitarteko zala zirt-zartekoa zan erabagiten.

Lagun geiagoi deitu eta ospitalean gertu egoten zan bideko oea artuta urten eben.

Andik laster, zuri-zuri estalduta, Kalixta Zaldupe'tik atara eta ospitalera jaso eben.

Jende askok, jakitean, lenengotan errukia eta gero negar be egin eben, bezperako gertaerako andratxoetako bat zala zabaldu zanean.

Lotsatu be egin ziran asko, errubakoak izango zíríala konturatzean, eta autortu be bai itsukeri nabarmena izan zala gertatutakoa.

Baiña egiña eginda egoan.

Beste andrea, Marta be, Zaldupe'n egoala zabaldu zan. Osasun bedarren premiñan ibiltan ziranak ba euken bere entzutea, bera baserrietan bakarrik ibiliarren.

Asko izan ziran euren barruko ta gaiñeko jantziak bialdu eutsezanak, bere egoeratzaz zerbait zabaldu zanean.

Egon ziran euren etxetako gela bat eskiñi eutsenak be, an geratzeko premiña ba eukan. Ala beintzat Emeteri'ren bezeroetako bik, orrela euren naigabea erakutsi nairik.

Osagíllea an egoala, andretako batek esan eutsan komeniko zala Marta be gain-gaiñetik ikustea. Onek ez eban nai izan. Baiña osagilleak, bere nortasuna erakutsi nairik, ori bere zeregiña zala esan eban, eta ikusi be bai, eta arek, bere zirinkeria zainduta, ez eukala oraingotan premiñarik.

Emeteri'k ori ba ekian lez, egun berean Armetxa'ra eroango ebala esan eban. Bera oiñez joango zala eta astoa pozago joaten zala lenago be andrazkoa gaiñean eroaten ebanetan.

Alaxe biurtu ziran, alkateak zer esan eikean ardurarik baga.

ETA BEITIZ'EN

Zek itxartu eban Beitiz'ko zarra eta gora-goraka ipini?

Eta zek Beitiz'ko andra gaztea, beretik urtenda, kirioak artuta lenengoan, gero zer egiten eban ez ekiala auzo eta basterrak arakatzen?

Txakurrak zaunkaka entzun zitun zarrak. Bein eta birritan. Belarriak garbitu ta ernai jarri.

Ekin barriro txakurrak.

Ez egoan ezpairik. Zerbait oartzen eben eta ez urrun. Txakurren zaunkada ez da bardiña urrutira begira egin edo inguruan igarten dabenarijarki.

Deika asi zan: Unai! Unai!

Nor dabil atean?

Eta erantzunik ez.

Etxe barruan beste iñoren ibillerarik be igarri edo oartu ez.

Ixilaldia.

Andik amar mínutura, barriro txakurrak dei egiten, etxekoei zerbait iragarten,

Unai! Zein dabil ingurutan?

Joan zaite atera, eta ikusi. Kontuz ibili, arretaz, baiña ikusi.

Eta erantzunik ez.

Artega zarra bere gelan, oean.

Ekin txakurrak.

Ezin egon oean. Argia biztu barik jaiki, leiora urreratu, leiar arte-tik begiratu, eta ezer igarten ez,

Baiña txakurrak ernai, ixilaldi artegatsu txikien ondoren, zaunka egiteari laga barik.

Lo egoan Irene, etxera ezkondutako andra gaztea.

Biargin utsa. Ala zalako, gaberako etenda geratzen zan.

Zarra lotaratu ta laster oeratzen ekian, askotan senarra eta Txeru sukaldean lagata.

Aita zarra gelan sartu zan bere makilla ta guzti, semea an egoa-lakoan, eta zarataka eta deadarka itxartu eragitean, bat bateko esnatze arek ikara zoli bat sartu goitik bera, eta senarra falta zala jakitean, zurbildu eta beretik urtenda laga eban Irene.

Eta Txeru'ren gelara joan eta iñor ez...

Zer ete zan gertaten zana?

Aita eta erraiña zurbilduta egozan.

Beitiz'ko gau a, gau gogoragarria izango zan.

Gizona kanpotik ibiltzen ekiana zan.

Ba ekian gabetan errecondora joaten, urak zelan etozan, arraiñigarteneteeban...

Ba ekian butroiak gertu eta ipinten edo ta angula denporetan ordu batzuk orretan igaroten.

Baiña oraindik ez zan entzuten ortarako zaratarik.

Bestetik urak garbi etozan azpaldi, egunetan euririk ez zalako jausten, eta ur garbitan arraiñiak argi ibiltzen dakie.

Gizona bakarrik falta izan ba litz, ez zan ainbesteko izango, nai eta berak, olakoetan, aurrez beti etxean jakin eragin.

Eta Txeru? Mutiltxoa? Oraindik, egunez ezík, sekula ez eban eroaten orretara.

Eta a be ez egoan etxean. Falta zan.

Oean sartu be barik, oea eginda egoalako.

Orduarian ia ordubat eta erdiak.

Zer esango eben Garoa'n ara joan eta deika asi eta Unai beste edonun ba egoan?

Andrea atera urten eta zelateka asl zan lenengotan, gero bete betean ate aurrera urten.

Ibai egalean ez eban ezelako argirik ikusten. Eta senarra, an ibiltekotan, argi ta guztí ibilíko zan.

Begiratu zitun bere beste tresnak. Linterna ezik besteak an egozan. Eta lintema?

Zetan eta noiz joan eta zan Unai, linterna artuta, umea beragaz eroiala?

Eta Unai kanpoan ígarrita, norbait sartu ba zan Txeru eroaten, len Ana eroan eben lez?

Edo ta Unai eta bíak egonarren, Unai'ri zerbait egin eta bestea eurekandu?

Nor, baiña, orretarako? Zein?

Eta ate inguruan orrelako pentsabidetan egoala, txakurrak biziago asi ziran zaunka, alde batera begira, eta norbaiten itzala igarrí eban berak, etxe atzetik zear, zarrapartadan iges egiten.

Txakurrak zoratuta lez ekitsen, baiña ez zan gogoratu eurak katetik azkatzen. Gogoratu ba litz ausartuko ete zan?

Bereala aitak eta berak etxe ínguru guztia aztertu eben. Atzeko atea ikutu barik egoan. Kortarakoa bardin. Dana dalakoa ez zan etxe barrura sartu.

Ez zan ingurutan berezirik igarten.

Ezelako gauzarik bíllatu be ez.

Kezka a ittogarri zan.

Iramategi'ko bidetik argi makal bat igarten zan.

Lengoarena ete, edo bat baiño geiago ete ziran gau aretan inguru aretan ebiltzanak?

Adi-adi egon, al zan bestean, eta kiritioak lagaten eben ainbestean, eta argia berantz etorralla irudian.

Ezin egon!

- Aita, txakurrak katetik azkatuko?

- Eta Unai ba da?

- Unai'ri ez dautse ezer egingo.

- Gabaz, eta itsu-itsuan zegaitik ez, lendik erdi zoratuta ba dabiltz?

- Ni ezin naz ba egon.

- Txarrago litzake txakurrei eurak astiñaldien bat emon eta gero gugana ba letoz.

Ezetzean gogor aita zarra.

Argiari begiratu ta igarten zan etorrana ziur etorralla, ez etorralla erdi eskutuan lapur lez.

Deika asi zan.

Unai! Unai! Unai zara?

Erantzunik ez zan artzen.

Bear ba da entzun be ez.

Neu joango naz ikustera.

Geldi. Ez egizu sekula olako zorakeririk.

Zorakeri andiago da ezin egonda emen itobearrean egotea.

Geldi, Irene!

Txakurrak barriro kateak apurtu bearrean.

Kezka, ikara, dardara eta ezin egona.

Alako baten etxe buruan etorrenaren deia entzun zan. Unai zan txakurrei deika. Ez ekian berak aita eta emaztea atean egozanik.

Lepoan ekarren Txeru, ezin ibilita, ainka azpi guztiak urratuta.

Atean sartu orduko Irene'k lepotik oratu eutsan senarrari. Eta jan bear. Ezin azkatu. Gogortuta lez, banatu ezin, negar eta intziri eta amas estuka.

Nundik zabiz Unai. Zer gertatu da? Zelan joan zarie ezer esan barik? Nora?

Eta Unai berak be, ezin erantzun itotasunak sama artuta.

Ostu egin al dabe au? Esan, ez ezer be eskutatu, ostu egin al dabe gure Txeru au?

Asi zan Unai berera etorten. Eta egia esaten.

Baiña ez eutsen sinistuten.

Zer zan Unai'ren egia?

MAITASUNAK ERAGINDA

Urrango goizean, Armetxa bietako gizon gazteak alkartu ziranean, besperan bidean ikusitakoagaz gogoratzen asi ziran.

- Ako guz Elordi baiño onuntzagoko bidean, Beitz'ko gizona zala uste genduna nundik ete eioan?

- Bera eta mutiltxo.

- Ezer esan dautsue etxean?

-Ez.

-r Gurean be ez dabe aitatu.

- Beitz'koa ete zan gero?

- Nireztat bai.

- Eta umea? Nungo umea? Nik dakidala areik ez dauke semerik.

- Biok ondo entzun gendun euren jarduna.

- Ori bai. Gogoratzen naz ni be. Ana bizirik egongo ete zanka, kezka eioazan.

- Gure burutapena ez zan izango.

- Biona ain zuzen?

Ana Armetxa'n agertu zala zabaldu zanean, Beitz eta Garoa'ra be eldu zan barri ori.

Poztu ziran angoak, eta itxaropenez gelditu, orrela bazan, Ana txikia laster ikusiko ebela-ta.

Arratsaldean Txeru'k Unai'ri esan eutsan atsegin izango ebala besteak baiño lenago ikustea. Eta bidea ondo jakin ba leu, bakarrik be joango zala, illuntzerako etortekotan.

Unai'k, lan pixkat eragitearren, berak lagunduko eutsala agindu eutsan, baiña etxean ezer esaten ba eban ez eutsela lagako, egun bat edo besteren gorabera izango zalako, eta ixilik eukiteko, ta bederatziak aldian, aita lotara joan ordukoxe, Irene be ordurako loak erreta laster oeratuko zala, eta biak joango zirela, gau-erdi ondorenerako etortekotan, iñor konturatu barik.

Mutilla, egunez, bakarrik be joango zan, berak esaten eban lez, baseririk baserri eskean ibilten oituta egoalako, baiña ez ekian ziur Armetxa nun egoan, gitxi-gorebera konturatuarren.

Sekula ez zan araiño eldu.

Gabaz urten eta laster artu eben goi-aldia.

Bide luzea eginda gero, Kalzakorta'n bere lagunik andiena eukala eta andik joango zerala esan eutsan Unai'k Txeru'ri. Eta au pozik. An zerbait jakingo ebela-ta.

Ara eldu eta erdiak lotan egozan. Orraitio an egoan zarra ta laster deitu eutsan lagunari.

Baiña an barri txarrak baiño ez eutsezan emon. Ertzain eta abar, egunean gertautakoak.

Guzurra zala agertu zana.

Angoak errira eroanda egozala.

Izan eikeala gau aretan eskutuko zaindari batzuk inguru areitan ibiltea, eguneko goraberak beste barik amaitzea gaitz zalako. Eta obe ebela Armetxa'n ezetarako aterik ez jo.

Baiña eskutuan dabillanak luze begiratzen dakí.

Lengo bidetik etorteko egozala, bear ba da iñor billatu ezkeror arrigarriago iruditu eta txarrago izango ebelako Armetxa ondolik zear biurtzea erabagi eben.

Andik iñok ezagutu ezkeror, errian goizean zabaldu zanak eroan zitula esanda itxurotsuago zalakoan.


Alaxe, Armetxa albotik igaro ziran, ia ate ondolik, iñor be konturatu barik, etxerako bidean.

Eta oiñetako egokirik be ez, eta Txeru gixajoa mintzen eta zorzen asi zalako bidean, Unai'k lepoan ekarri bear izan eban azken bide guztian, etxera sasoiz elduteko garretan.

Bezperan gertatua izan ez ba zan, Armetxa'ko gizon gazte biak, umea billatzearen orde edo ortarako bide bat emotearren, eurak ikusi eta entzun ebena agintariei esatera beartu egingo ziran.

Baiña gertatuen ondoren, mutu geratzea erabagi eben, nai ta euren artean susmo ori gorde.

Eta ori mesedegarri izan zan Unai'rentzat, besteen ibillaldia ikusita.



GAROA'N

Beitiz'ko txakurren zaunkadak entzun zituen.

Bertako txakurrak usaínka iñarduen.

Baiña inguruan ez zan ezer igarten.

Gelako leíoa itxi eban barrutik, maratilla ta guzti, Kontze'k.

Marl'ren oe ondora urreratu eta lotan egoan neskatoa laztandu eban eta musuz josi, esnatu eragin arteraiño.

- Zer gertaten da?
- Ezer ez.
- Ta, zu emen?
- Egizu lo.
- Ze ordu da?
- Oraindik goiz.
- Gaberdia igaro da?
- Ointxe amabiak.
- Zetan zagoz jagita?
- Zeu estaldutearren.
- Ondo nago.
- Amesetan ibili zara. Geldi egon eziñik.
- Amesetan ni?
- Bai, zarataka, zure arrebatxoari baketan lagateko-ta.
- Zeuk asmatu dozu.
- Benetan.
- Agertu da?
- Gaba da. Biar agertu lei, egunez.
- Biar noiz da, gero?
- Bai. Ikusteko gogo asko daukazu?
- Askó. Eta zuk?
- Nik be bai.
- Baiña ez da zurerik ezer,
- Etxeko lez.
- Zer dauka zer ikusi etxeak?
- Odolak lez etxeak be maitatu eragiten dau.
- Bera emendik eroan ebelako?
- Jakiña ba.
- Ba dakizu? Lentxuago, il zala amets egin dot.
- Zein Il? Ana?
- Bai.
- Eta ni barari eta amari lorak eroaten joan naizela.

- Atsegin dozuz lorak.
- Asko. Amari atsegin jakozalako.
- Lo egizu, baketan, lora artean.
- Eta ilgo zan?
- Eriotzea amets egin barik be etorten da ta, ez egizu orrelakotan pentsatu.

Eta gelatik urtetera eioala igarri ebanean, deika, urduri:

- Kontze, nora zoaz?
- Egon nasai. Ur billa.
- Zeiñentzako?
- Egarrria kendu daizun.
- Ez daukat egarririk.
- Beroa bai.
- Izerditan egon naizelako.
- Beroa dozulako.
- Gaixotu egingo naz?
- Origaitik ez.
- Eta sukarra batzen ba dot?
- Lorakin amets egizu.

Kontze'k aitzakitizat esan eban ori,

Aitari eta morroiari itanduten joan zan. Ez egoan nasai. Beitiz'ko txakurren zaunkadak artegatuta euken eta ia konturatu ete ziran jakitenjexizan.

Aita, bai, itxartuta euken. Zur egoan a.

Morroia lo egoan.

Gaitzago zan bera egoan lekutik ezer igartea. Leio bako barruko gela baten, atadi barruan lo egiten ebalako. Baiña atean ezer gertaketotan, ateari ikutu edo bultzada bat egin orduko, bera izango zan konturatzen lenena. Orretan zurra zan.

Eta sekula nagirik igarri ez, orrelako gertaera baten, eta bildurrik beez.

Agertu eutsan Kontze'k zer gertaten zan.

Jagi eta ataditik ezer igarten ete zan begira egon zan.

Beitiz'ko zerbait izango zala ta ezer ba zan deituko ebela, txakurren zoroaldien bat izan eikeala, ta or geratu ziran.


Atea ondo itxita ete egoan ziurtatu zan, Kortara be gain gaiñeko begirakada bat egin eban.

Etxean, beiñik bein, gauza berezirik ez egoela ikusi eta ziurtatu ziran.

Eta lotara bialdu eben Kontze.

Gelara igo eta an egoan Mari, bildurti.

- Ba zatoz?
- Zegaitik lorik ez?
- Zure zain nengoan,
- Oraín be bildurrez?
- Ez, Esna egon.
- Zegaitik?
- Neuk be ez dakit,
- Bildurra da ori.
- Lo gurarik ez.
- Zeuk ez dozulako alegiñik egiten.
- Nai dot lo egin.
- Ona begira jarri zaite.
- Ni zuri begira eta zu be bai niri?
- Itxi begiak.
- Eta ura?
- Nire burua! Artu eta beian ez dot laga ba?
- Ez arduratu.
- Billa nua.
- Ez zaitez joan. Ez dot bear.
- Benetan?
- Lo egingo dot. Bai. Agintzen dautsut. Benetan. Zuri begira lo egingo dot.
- Esatea da bat. Bai?
- Zuk be bai, zure oean.



AGINTARIEN ARTU EMONAK

Ertzaiña asarretu egin zan alkateagaz,
berak ekarritakuak ia ardura barik artu zitulako,
beragaz kontatu barik gizonak etxera bialdu zitulako,
ezelako isunik (multarik) ez eutselako ezarri,
bere agiriaren zain ez zalako egon eurakin berba egiteko,
ukabilla jaso eban morroiari iru-lau egunetako kartzela agindu ez
eutsalako,

kartzelan sartu ezik astiñaldi bat emoteko aukerarik berari ez
eutsalako laga,
atso zarrei barriketan nekatu eragin, eta goikoen asarraldia
berarí etor eikiolako.

Alkatea asarratu egin zan ertzaiñagaz,
biaramonerarte agiririk ez eutsalako egin eta bialdu,
baituak iñok agindu barik egin eta ekarri zitulako,
ekarri zitunak erritarrak ziran edo ez kontuan artu barik ekarri
zitulako,

erri barruan zaldi gaiñean ibili zalako,
garai ezaugarritzat ume errukariaren jantzia erabili ebalako,
jantzi ori berari eroan ez eutsalako.

Eta alkatea asarratu egin zan abadeagaz be,
berari deitu barik ospitaleko gauzak erabagi zitulako,
bera lotsatutearren, eta bear ba da asmo orregaz, gaixoa egun
argiz kalez kale eroan ebalako.

Eta abadea asarratu egin zan alkateagaz,
orixegaitik,
asarratzearren asarratu zalako,
bera baiño ulertzen ez ekialako,
berak ezik beste iñok gauza zuzenik egiten ez ebalako.

Eta osagillea asarratu egin zan alkateagaz,
andra areik, egozan lez, gabeko amabiak arte euki zitulako uda-
letxean, eta ordu orretan, ez janik ez aterperik ez eutselako eskiñi.

Eta osagillea asarratu egin zan ertzaiñagaz,
andra areik ekarri zituen eran eta egoeran ekarri zitulako,
euren andratasuna galdu eragin eutselako kalean danen laido
erabiltean,

erria aizetzen ebalako ekarzan baituen aurka,
atsegin artu ebalako erri zoroa bere alde jarri zalakoan,
goizean ez zalako arduratu bere baituen egoeraz.

Eta eskumatar erria asarratu egin zan alkateagaz,
gaberdian algaretean laga zitulako besterik ezean urteakaitik
lotsa merezi eben atso jatorrak,
itaunak egin eta lenengotik ospitalean janaritu ta atsedenduteko
aukerarik emon ez eutselako,
beti lez erriaren premiñen gain bere arrokeria ipini ebalako,
ertzaiñari, errian sartuz batera, galoiak kendu ez eutsazalako,
arrautza jaurti eta erria berotu eban emakumea nor zan jakiten
eta zigortzen koldarti izan zalako.

Eta ezker erria asarratu egin zan alkateagaz,
goizean ez zalako arduratu bere mende egozan baituen egoe-
raz,
berak agindu barik egin zalako, ospitalekoei egin eutsen
murruskadagaitik,
eleiza tartean sartzan laga ebalako, erriak lenengotik egin bear
zitun gauzetan,
abadeak irabazi zitulako erriak irabazi bear zitun puntuak,
eta alkate izanik bere ogibidea ipiñi ebalako erriaren premiñen
gain.

Orrez gaiñera, buruan azkatasuna eta ezker-eskumakeria ainka-
pean erabilten zitula esaten ekian Patxi Erri, alkateagaz eta ertzaiña-
gaz asarratu zan,

azkenean burua makurtu bear izaten dabena erria izaten dalako,
eta zapladak artzen dituna be, erria izaten dalako,
egiten diran gauzakaitik,
eta egiten ez diranakaitik.

Orajngotan, abadea eta osagillea ertzean geratu ziran Patxi'ren
salakuntzetan, asarraldi barrirarte.

Asarratuak ez ziran orreik bakarrik.

Ba egoan beste bat be ziria sartzeko gertu.

Berari egokion geien bat orrelako auzi eta gertaeretan sartu eta
kontu artzea.

Erriko epaikaria, jueza.

Gañera, berari baiño gorakoari ziurrago, goragoko maillakoari:
Markina'koari.

Eta onek be bere asarre bizi ta zorrotza erakutsi nai izan eutsen
beste guztiei berbaz eta idazkiz.

Ala alkateari,

ertzaiñari,

abadeari. Daneri.

Osagillerik ez eban aitatu, eta adiskidea zan lez, besteak uste izan eben aren ziria izango zala, erriko agintariak nundik lotsatu eta laidotu ibiltzen zalako.

Ordez, bere asarrea ikusi ta alkateak esan eban bizi ezin zan Petrikillo aren orrelako jokabidea egoki eta jator ikusten ebala berak, beste gertaera batzutan jokatu eban lez.

Areri ziraunarena gertaten jakola: "Itsua nazan legez ba nitz argia, galduko neuke nik mundurik erdia".

Baiña ziraunak ezin eban lez, osagillea gixajo bat zala, eta or amaitzen zala bere gurari guztia.



ZEREGIN GITXI, BAIÑA...

Agintariak giro orretan, ta gain gaiñeko arduradun ezagun eta eragille bat barik, ez da gaitz igarten umearen arazoa bertan bera galdu edo ixilduko zana.

Lenengotako beratasun eta alegiña itzaldu eta makaltzen eioan. Billatze kontuan iñor ez.

Ezer agertzen ba zan, entzun. Itxaropen barik entzun be, a, onezkero, beste nunbaiten toki ziur eta egokian egongo zala-ta.

Gañera azken egunetan ikusitakoak ikusi ondoren...

Itota egotekotan, agertuko zan egun batzutara. Urak euren goraberetan atarako eben bere aztarrena. Itoak, egun batzuk igaro orduko, azalera agertzen dakie.

Gañera ibaian arrantzan edo beste zeregiñetan egunero ebiltzarak, ez eben egalak begiratzeari lagako.

Ingurutako baserriarrak be, antxe gertatu zalako, ez eben bedartza eta munarik aztertu barik igaroko areitatik iblltean.

Ori orrela, baiña billatzen ibili, beste zeregin barik aren billa ibili... ori lagata egoan.

Bizi eta errian egon ba litz, gaitz zan lenengotan eskutuan eukia- rren zela-ala ez agertzea.

Arrisku eta lokune andia zan edozein etxentzat, aren gertaera zabalzan lez, eta gerokoak entzun edo jakinda, nunbaiten gorde edo eskutatuta eukitea.

Erri nausien ingurutan bizi ziran ijitoen txabola eta egontokiak ikusi eta arakatu zituen lenengo egunean bertan ango zaindariak.

Areitakon bat izatekotan, Madalena'ren senideren batzuk edo aregaz traturen bat eukitakoak izango zirala pentsatea zan bidezko, Baiña Madalena, bera ijito edo motxale bizitza lakoa eroaten ibilia- rren, ez zan olakoeekin batzen, eta iñoiz areik Zaldupe aldera ager- tzen ziranetan, or gelditu eta ekurutzen ziran bi edo iru egunetan, bera baserrietatik zear joaten zan, umeak beragaz eroan eta erabili- ta.

Ez eban eurekin ezelako artu emonik.

Geiago, bildur eutsen, batez be euren tratu zikin, berbeta, kora- pillatze, narrazkeri eta ke-usañoagaitik, eta bera, bere bizimodu bal- darrean be, garbi eta itxuraz ibiltzen oitua zan.

Ezagutzen eben baserri eta familiak, ez eben arretarik eukiten bera atadian ikustean, an lagaten.

Umeak be alaxe erakutsita eukazan.

Ostu sekula be ez, esaten eutsen. Jateko bear zan frutua, sasoiari, ori ez zan lapurreta, artzen zan unean baliatzeko bakarrik artuta. Ortik gora ez.

Alaz eta garbi nai zintzo izan, Madalena'k eta bere umeak, alako beratasun bat euken errian, beste erritarren aurrean. Baztertuen beratasuna. Nortasun eza. Edo ta ala nai ba da, euren nortasun edo ezaugarri berezi ta ukatu eziña.

Zaldupe bera errian egiten dan lez; baztarreko aterpe zar bat. Alaxe ziran eurak: erri bazterrekuak.

Origaitik, agintarientzat be, orrelakoak iñoiz erriarentzako burukomin izango ziran kezka eta ardura sortzen eben. Erriaren lepotik zaindu bearraren ardura, eurak erriari ezelako onurarik emon edo laga barik.

Beartsuen artean be giro berezi bat sortzen eben. Tartetako emonaldiak egiten ziranean, lagunarteko eskintza eta oparoak, askok uste eben orrelakoak kentzen eutsela batzen zanaren geiena. Ala alargun, berezko beartsu, gaixo edo ezin besteko famili ziranak, ez ziran olakoetan gogo onez agertzen.

Erritarrak izan barik, erriari sekula ezer opa barik, onelakoak kentzen baiño ez ekiela, esaten zan.

Egia esateko orrelakoen bizimodua besteen girora eta maillara ekarteko, erri giroan sartu eragiteko, alegiñik ez zan egiten. Ez irakaskintza, langintza eta beste arazoetan sartu erazteko alegiñik be. Gero, erriko lan bear zikiñetarako bearezkero... orduan lenenak.

Eurentzako karidadea or amaitzen zan. Azaleko janari batzun banatze eta etxeetan batutako ezegokitutako jantzien zabaltze eta eskintzetan.

Ori bai, eurak ba ekien, egun berezietan orretarako errukigarri eta premiñadun agertzen.

Giro onetan Zaldupe'ko umearen gertaeraren gomuta laster ixilduko zan, norbaitek, ez jakin zegaitik, beste umeak ebiltzan ingurutant, estualdi eta kezkaldiak sortzeko oitura erabili ez ba leu.

Bakoitzak bere opillari su, esaten da.

Ba ebillan, emen be, norbait, eguneroko oroitzari itzaldutako edo amataten laga nai ezean.

ZALDUPETIK ETOZAN URAK...

Andik etozan urak.

Eta ez gargi-garbiak, nai eta bertakoak metalezko ur garden eta onak izan.

Ba egoan norbait loitzen alegintzen zana. Iturrian loitzen. Eta gero basaz beteta zabaldu eragin.

Garoa'ko morroia mutil jatorra zan.

Urteak eroiazan Garoa'n.

Bere zeregiña iñoren aitzaki eta esan bear barik beteten.

Umoretsua, zapatu eta jai bezpera gabetan taberna zalea, aku-laria, lagun artekoa benetan.

Baserrietako morroiak euren kidetasuna euki eta zainduten dabe.

Etxean ondo eta etxeko lez egonarren, ba dakie morroi izaten dirala. Ez dirala etxe barruko.

Eta jolasetan, erromerietan, nai edozelako batzar eta jai usaiñetan, morroi lez erakusten dabe euren burua, morroi lez azaldu eta morroi lez ibili.

Eta beste edozein lez gizon diran lez, ba dakiez eskutuko maitekeri eta bizitza epel baten urratsak euki ta gordeten.

Ingurutakoak danak ezagutzen dira.

Eurentzako ez dago mugarik.

Mendarotarra, len esana dan lez, Garaa'ko morroía.

Naparroa'ko errien baten, Baztan aldean, Auñamendien mugan, maite edo nobiatzako bat euki ei eban.

Nobia a erdi ijito edo antzerakoa izan zala.

Iñoiz errira etorri zala eta batzuntzat ezaguna zala.

Madalena zanagaz adiskidetasun onean ezagutzen zala.

Aren senide ete zan be zabaldu zala.

Madalena'ren lenengo umea arena zala, eta Madalena'k artu eutsala, beretzat ondo etorkiolako, bestea errian ez zikintzearren, eta morroiak lagunduko eutsalako txiki zan artean.

Morroiak ondo ekiala ori.

Lenengo gabeen, umea falta zan egunean, morroiak, beste iñori laga barik, berak joan nai izan ebal txanelera, eta bera izan zala ango ondoren guztia eratu eta asmatu ebana.

Garoa'ko zarrak be zezegaitik nai izan ebal gertaera ori egun batzutan ixilik eukitea, zerbait jakingo ebalako.

Ain zuzen ez txakurrik eta ez beste iñor umearen ostueraz ez konturatzea, etxekoa zalako zala.

Orrelako esan-mesanak bolo-bolo asi ziran.

Morroiak ez eutsan kartarik egiten bere "maiteari", nai eta zearo aztuta euki ez.

A, zela-ala agertu zan.

Zaldupe bídean ikusi eben eta laster ziran barriketak.

Norbaitek esan eban morroiaren antxiñako laguna zala ta... inguruko andrak istori osoa, sits eta birs, atara eben kaletako jardunetara. Eta bereala Ana txikia gogoratzen asi.

Ana'ren begi-ondo eta matrail ingurua bere-bereak zirala esaten asi ziran. Gero... morroiaren bekokia eta begi-ingurua be ba eukala ume arek, atara.

Batak pixkat eta besteak geitxuago, fitxa osoa egin eben.

Beste kontu barriak be ugaritu ziran:

Sekulakoak igaro zirala Beitiz'en gaberdian.

Andik ibili ziranak ez zirala urrutikoak izango.

Ikusten zala Beitiz'en artuta dauken mutiltxoak be ostu egin nai dabela,

Beitiz'ko Unai eta Garoa'ko morroia ez dirala alkarregaz ondo ikusten, arek onen susmoa artuta eukalako.

Oraingoan be gabaz, gaberdian nai ebela umeagaz zerbait egin.

Morroiak, umeagaitik tabernan nun ete egoan itaundu eutsenan, daukanak ba daki, erantzun ebala soil-soil. Eta orí baserritarren arteko berbete eta agerpenetan, asko esatea dala.

Andrea Zaldupe'tik Zaldu'ra igo zan.

Ba eukan an laguna. Lenagotik be ezagun eta adiskidetzakua.

Naiago eban lenengotik gauzak zeatz jakin.

Gañera, morroia "zuritzeko" be, lenengo mandataria bearko eban.

Garoa'n, lenago be, ez eben begiko, Origaitik aurrez beste nunbaiten ikustea naiago eban.

Ezkontzeko egon ziranean Naparroa'ra joateko aasmotan ebiltzala eta bizibidea ikazgiñan atarateko. Garoa'ko zarrak ori jakin ebanean, burutik kendu nai eutsola morroiari eta lortu be egin ebala. Eta andregaiá asarratu egin zan angoekaz, jokabide ori iñoren onik ikusi nai ez eta guzurrezko eta egokitasunezko aitatasuna zala-ta.

Egia esateko, morroiak ez eukan lanerako atzerarik, baiña andrea artu eta gabetan mendietan ikazgiñan arpegi zikiñez eta narru baltzez ibilteko gogo andi ez txikirik be ez.

MARKIÑA'KO AUZITEGIAN

Ondarroa'n erdi lo be égozan, Markiña'ko auzitegiko epaikaria ez egoan orretarako.

Arako izentatzen dituen errialde edo inguruko epaikariak, euren burua argitu eta anditu nai izaten dabe, goragoko erreskadan ainbat lasterren sartzeko.

Eta esanda eta jakin eraginda eukan, berari aztarren txíki bat emon orduko, laster brtuko ebala orko argitasuna.

Napar andre a Zaldu bidean ikusiagaz batera, norbaitek alkateari deitu eutsan,

Alkateak, lengoak ikusita, berak eskuak garbitu nai zitula eta Markiña'ra salatzeko.

Pozik artu eban deia Markiña'ko epaikariak.

Denporarik galdu barik, eta iges egin baiño len, bereala bialdu zitun zaindari bi, andre a begirapen eta lotsa guztiagaz, baiña ezelako aitzakiekin laga barik, beragana eroateko-ta. Ez alkateari ez beste iñori jaramoník ez egiteko, eta urak lekuko geratzen ba ziran be, aintzat ez artzeko.

Eta beste zaindari bí, beste bidetik joateko aginduagaz, Garoa'ko morroiaren billa, andreagaz berbatzeko aukerarik emon barik, eta al ba zan, alkar ikusi barik.

Markiña'ko zaindariak errían ikusi ziranean, bolo-boloka zabaldu zan, eta noren billa etorzan jakin arte, bildurra lakoa egon zan, baiña zein zan zabaldu zanean, nunbaitetik atarako ebela arrastua eta ez zan iñor gora-goraka asi.

Oraingotan Garoa'ko morroia uste zan lapur, Eta andre a, bere maitea zala esaten zan napar andre a ízango zan, ziurretik, ume eskutatzaile.

Erriarentzat gauza argi egoan.

Zain egoan epaikaria ondarrutarrak noiz elduko.

Neska izan zan lenengo eroan ebena.

Bereala artu eban, mutilla, eldu ala, alboko gela baten sartu ta an eukiteko aginduta.

Karneta eskatu eutsan neskari.

Ez eukan.

- Izena?
- Kleta.
- Abizenak?
- Done Mari.

- Bestea?
 - Orain arte orregaz konpondu izan naz.
 - Zeregiña?
 - Artzain.
 - Zelako artzain?
 - Zeaztu bear al da?
 - Al dan bestean.
 - Ardi, bildots, aari, aker eta antxumeena.
 - Urteak?
 - Auskalo!
 - Aita?
 - Mitxel ei zan.
 - Zein Mitxel?
 - Eztakit. Ni kontrabandoan egin ei nindun ta zer izango zan?
 - Ama?
 - Done Mari'ko Mari.
 - Zelan?
 - Entzun ez?
 - Done Mari'ko Mari.
 - Abizena?
 - Done Mari'ko.
- Abizena diñot.

Ez al dago garbi? Familia Done Mari ba da, ama ez al da Done Mari'ko?

- Nungo?
- Done Mari'ko.
- Txunga gitxiago.
- Aita Done Mari'ko ba zan, ama ere Done Mari ta ni Done

Mari'n jaio, zer esatea nai?

- Geiegi dakizu, andrea.
- Jakin nai.
- Done Mari nungoa da?
- Euskaldunen erreinukua, jauna.
- Nungua?
- Euskaldunen arten erreinu bat baiño geiago al dagoz?

Noiztik?

- Zetan zegozan Ondarroa'n?
- Kontuak esaten.
- Zetara etorri ziñan?
- Kontuak jakitera.

- Zer daukazu Zaldupe'n?
- Maitasun zar baten bidea.
- EtaZaldu'n?
- Maitearen mandataria.
- Eta maitea nun?
- Morroi.
- Zetan?
- Izerditan.
- Izena?
- Kirtsanda.
- Zer da ori?
- Izena.
- Ipurdi gizona, errekontxo! Zelako ízenak daukazuez euskaldu-
nak?
- Kontxo ta errekontxo! Kirtsandaa ba da zer nai dozu esatea,
Alpontxo?
- Zenbat ume daukazuz?
- Zeíñenak?
- Zureak.
- Birgiña eta martiri.
- Bi?
- Birgiña eta martiri naz, jauna, esanak esan, esaten eta esan-
go.
- Zer dakizu Ana dala ta?
- Zein Ana, nungo Ana eta zelako Ana?
- Ni nabil itaunka. Zuk erantzun bakarrik, mesedez. Ni naz epai-
kari, ez zu.
- Zaldupe'ko Ana.
- Zaldupe'n ez dago Ana'rik.
- Madalena'ren alaba.
- Oleta'n jaio zan eta ez Zaldupe'n.
- Oleta ez dago erririk.
- Beste iñun be, neskatillak olgetan ibilteko alako tokirik.
- Zaldupe'ko Ana, Madalena'ren alaba diñot.
- Sinisten ez ba dozu, agiria eskatu Amoroto'n.
- Nundik dakizu?
- Ama besuetako izan nitzalako.
- Zein zan aita?
- Ildakoari artu atsa.
- Zegaitik ostu zendun?

- Ostu?
 - Bai, lapurtu, ostu, nai dana.
 - Eskubidea daukat beragan.
 - Zer eskubide?
 - Gurasoak faltatzean amabesutakoa ez al da beartuten umearen jaube egitera?
 - Beraz zuk daukazu umea?
 - Eskubidea.
 - Nundik artuta?
 - Nik diñot niri dagokidala beragaz arduratzea.
 - Ba daki zure Alpontxo'k zuk daukazula umea?
 - Zelan jakingo dau ez ba daki emendik nabillena?
- Epaikariak zaindariari deitu ta gela batera sartzeko agindu eutsen eta morroia ekarteko.

Eta barruko pozagaz esan eutsan: Kaiolan dago txoria.

Morroia sartu, jarri eragin eta asi zan:

- Alpontxo?
- Ni?
- Bai, zu.
- Ez.
- Zure maiteak esan dau Alpontxo zareala.
- Nik dakidan maiterik ez daukat.
- Eta Done Mari'ko Mari zer da?
- Laguntzarra.
- Zer da ori?
- Nik dakidana dakidan legez esatea ez al da naiko? Ikasiak argitu dagiela gaiñerakoa.
- Zin egiten dozu Alpontxo ez zareala?
- Zenbat bidar?
- Guzurretan be zin egiteko gertu?
- Egitan, bear dan guztitan.
- Zein da zure izena?
- Nik dakidala Kirtsanda.
- Ba dago izen orretako santurik?
- Santuak ala izenak dira lenengo?
- Elizako gauzak dira orrek, ez epaikaritzakuak.
- Niri izatearren ipíniko eusten.
- Aurrera. Egia esango dozu?
- Komeni dan guztian, nire mesedean eta ez iñoren kaltean.
- Zer dakizu Ana dala-ta?

- Ezer ez.
- Zure alaba zan?
- Nik lapitzik ez dot zorroztu orretan,
- Zure maiteak esan dau bere alaba dala.
- Beretzat okerrago, ni ez naizelako bigarren eskuko gauzen zale.


- Ez dot olakorik itandu.
- Berak jakingo dau, orretara, aita nor eban.
- Ezkondua zara?
- Isopoagaz ala isopo barik?
- Lotsa, mesedez.
- Zer esan nai zendun, eleizaz ala mendiz?
- Nun dozue umea?
- Oraindik sortzeko gurea.
- Eta Ana?
- Arek emoten dausku danori lana.
- Noiz ikusi zendun azkenengoz?
- Ametsetan bart.

Zirt-zart eten eban orria epaikariak.

- Olgetako gauza dala uste dozue?
- Konturatzen zarie, uste doguna egia ba da, kartzelan joango jatzuezala ezkontzeko denporak?

Gaur olgetan ba zabize, biar ibili bearko dozue benetan. Ormak erakutsiko dausue zelan erantzun bear dan epaikarien tratuetan.

Eta biak kartzelan sartzeko agindu eban, gela banatan, eta jarraituko ebala urrengo goizeko bederatzietan.



ANGO BARRIAK

Illuntze ordurako artu ziran errian Markiña'tik erdi eskutuan bialdutako barriak.

Zabalena au izan zan: ango epaikariak esan ebana: Txoria kaio-lan egoala.

Ori jakitean gauza argitu zala ta baretu lez egin zan erria.

Itxura baten Ana ito edo iltea baztertuta geratzen zan beiñik-bein.

Morroiak eta bere adiskideak edo laguntzarrak ezkondu nai ebela eta lenengotik umedun etxea ipini?

Euren ardurako zan ori. Beste norbaitek ez eban jaso bearko ba?

Egite ori zuritzen asi ziran laster batzuk. Legez egin ebela ori, be, esan zan, morroiaren laguna bere ama besuetako ba zan, eleizak, gurasorik baga gelditzean, ardura ori besutakoei agintzen dautselako.

Zaindariak ikusi eta baserritarren aurka zerbai esaten jardun eben emakume eta bestelakoak be, poztu egin ziran.

Orko zarata, eskutuko eta gorabera guztiak gauzak ixillean egin naian izango zirala lenengotan, lotsaririk ez eroatearren, pekatu zarrik ez agertzearren...

Gaiñera, luzeago joaten ziranen esanetan, Madalena koitaduak milla mesede egin zitun:

Umerik ez euken Beitiz'en, biar edo etzirako baserria aurrera eroan al izateko mutilla.

Ien be angoak kalean ez dabiz ba lanean, ao askontzako janik an ez dagola-ta?

Kaleko aizea dabillenak izango dira. Bestela baserrian mazusta utsak janda be bizi lei.

Bestentzat, Garoa'n be zorioneko egozan. An euken baba lorea lakoxe neskatoa, besteak, itxuraz, antzututa egozan eta indar barriko mutillen bat bertara begira ipinteko ondo etorkiena.

Eta morroiak, ainbeste urteko atzerapenez zertarako bizi?

Izan be Madalena lako andra koitadak, sekula iñoren okerrik nai izango al eben?

Garoa'ko zarrak berak nai izan eban errira agertu, morroia etxetik eroan eutsenean.

Zer ez eban jokatuko arek, morroiak orretan ez eukala artu-emonik ziurtatzen?

Ori nai ba eben, zetarako komedietan ibili?

la ogetamar urte etxean erioazan morroiak, zegaitik eta zetarako orrelako jokabide bat, ez bakarrik bere aurka, bai eta bizi zan etxearen aurka?

Ezagun bat ikusi eban Zaldu-bideko tabernan.

An batzen ziran auzoko arrantzale zar batzuk, eta domeketan, meza ostean, Gorozika aldeko baserritarrik geienak.

Erdi baltzituta bialtzen zituen batzuk andik; besteak arda u gozo ta gozokiak janda joaten ba ziran be.

- Zerbait jakin nai?

- Sorginkeriak amaitu bai.

- Ba dakizu Markiña'tik zer jakin eragin daben?


- Eskribadu asko dago an eta akikulu asko andik.

- Txoria kaiolan dagola.

- Eta txori kaka Artibai erre kara jaurtiten dabela. Zeiñek ukatu ori?

- Igarrita zengozan?

- Ni ikasita au nago: Markiña'n, lenago be, errekaiziai brix esaten dautsela.



AUZITEGIAN, BIGARREN EGUNEAN

Zorrotz agertu zan epaikaria.

Goiztar. Esan lez, bederatzietan.

Lenengo andrazkoa ekarteko agindu eban.

Bitartean bezperako erantzunak irakurten gelditu zan.

Asko estutu barik agertu zan neska.

- Alpontxo ikusi nai?
- Kirtsanda'gaz be naiku daukat.
- Berbarik egin dozue?
- Lapurrak zabalago eukiten ditue.
- Gaur pozago agurtuko zarie.
- Errekaizeaa nundik dabillen askok ez dakie.
- Zenbat denpora ikusi ez zariela?

Gure urteak, txarrienak lez, san martiñetan beteten dira.

Morroia ekarri eben.

- Neska mutillak agurtu ziran.
- Ba neukan ikusteko gogua.
- Gordeta dakartsut nai dozun musua.
- Emendik?
- Eta zu nundik?
- Ba dakizu zegaitik?
- Eta zu zegaitik?
- Zerbait atara naian izango da.
- Ezer ez dagon tokian patrikara utsa.
- Zetan etorri ziñan?
- Ia ikusten ete giñan.
- Zerbait jakiten?
- Dirudianez, jakin eraziten.

Epaiakariak esan eutsen aulki banatan jarteko.

Eta zenbat eta lenago gauzak argitu, danentzako mesedean izango zala.

Epaiakariak ziurtzat emoten eban umearen jokoa bien artean era-tua izan zala.

- Nun ikusi ziñen orretarako?
- Noiz?

Zegaitik egin zenduen gaez egunez egin zeinkiena?

Zein etxetan dago umea?

Ixiunea.

- Lauretatik batik erantzun nai ez?

Ez batak eta ez besteak?

Morroíak, patxadaz:

Nire aldetik jauna, orra erantzunak:

Zumarraga'n ikusi giñan,

azkenengoz ígaz, santa Luziatan,

gabaz gauza asko egiten dira egunez komeni ez diranak,

amarik ez dauka ta daukanaren etxean,

Eta neskak:

Nik be erantzun bear?

Onek esan lez, Zumarraga'n,

igaz ez, dirala urte biko santa Luziatan,

egunez ez da amesik egin al izaten,

edozetara be ez bere etxean.

Egin daigun, ikusi barik, alkar ikusi barik egin dozuela.

Leíkena da.

Milla era dagoz orretarako.

Ikusi barik berba egin lei, edo ta gauza bat erabagi.

Ori da zeatz ukatzen dozuena.

Besterik ez dozue ukatzen.

- Alegindu gara itaun bakoitzari bere erantzun egokia emoten.

Atsegin edo ez.

- Baiña satorrak lez.

- Satorrak lur azpian.

- Guk argitan, mai aurrean.

Garbí erantzun:

- Bizi da?

- Ez dakigu nun lo egin daben.

- Esku onetan dago?

- Panderua be ez da beti esku onean egoten.

- Ba dakizue, baiña ez dozue esan nai.

- Gizona gizona danak, dakian gauzetan esan bear dau ez edo

bai. Baiña ez ezagutzen ez ditun gauzetan.

Zeregiñak daukadaz.

- Nik etxean biarra.

-Ezin neikejarraitu.

- Guk be ez genduke nai egunik emen luzatu.

- Nik garbi ikusten dot zuen joko au.

- Itsuak bere erara jokutzen dau.


- Arratsaldeak zuekin lotuko nau.
- Arratsaldeak ekarten dau gau.

Neska mutillak asarratu ziran. Gogor egin eutsen epaikariari.
Onek zital erantzun.

Eta erri zaiñari deitu, ta barriro euren gelaetara eroateko agin-
duz, amaitu zan.

Agurtzean, batak besterari:

- Alkarregaz biziteko aukera egokia.
- Txoriak kartzelan be eukiten dabe abia.



ERIO TZ AURRETXOAN

Osagilleak esan eban Kalixta'k aste beterik ez ebala iraungo. Ziur egoala.

Ez eutsen lagaten Marta'ri ospitalean sartzen. Ezetara be ez sukaldean.

Osagilleak emondako agindu zeatzak ziran.

Arek, Kalixta'k, ez eukan urteerarik. Il egin bear eban.

Ez eban lagaten berak, osagilleak, bitartetorik gaixo zaiñean. Gaitzak jotako zugatzak lez, aren bizia agortzen etorran.

Arentzat, Kalixtarentzat, bakea zala onena, bakea bakarrik, ezer erabagiteko ba eukan gogoratu edo bururatu al izateko be.

Boskarren eguna eroian gaixotegían, erríko ospitalean.

Bera be konturatzan asi zan andik ez zala bizirik urtengo.

Marta eskatu eban.

Bere lagun zan Marta'ri gauzatxu batzuk esateko eukazala.

Uste ebala Armetxa aldera joanda egongo zala, azkenengoz bera ta a an egon ziralako.

Laster jakin eben nun egoan.

Plazara etorten ziran baserritarren bidez Kalixta'ren guraria jakin erazi eutsen.

Laster agertu zan, egun erdirik galdu barik.

Astoan ekarri eben Armetxakoak, euren zeregiñak be laga-ta. Etxeko eben Marta, eta etxeko baita Kalixta jostuna.

Arnas estuka asia zan.

Marta, sartu orduko, angó arduradunari esaten asi zan:

Ez dautsazue emoten asmaren aurkako bedarren urik?

Emen osagilleak esaten dabena egiten da bakarrík. Ori bai, agintzen dabena, zeatz.

Baretuko litzake, amasa bígunduko leutsakelako.

Agíndutako osagaiak artu ondoren, beti baketuten da zerbait. Eta gero barriro jausi.

Urteak daukaz eta urteak ez dabe parkatuten.

Eunerako oraindik beste ogei.

Zenbat dira larogeira elduten diranak, au lez?

Agindu zeatzak emon eutsezan Marta'ri. Euren biziari egokiezan kontuak nai aiña esateko. Baiña sasi osakuntza eta antzekoetan asten ba zan, konturatu orduko kalera joango zala eta ez eutsela geiago sartzen lagako.

Lenakoak ikusita eta osagilleagaz eukan ikusi eziña gogoratuta, ez eukan Marta berak orretan asteko gogorik.

Kalixta be bertan berako geiago egoan, bere egoerari bizitasuna billatzeko baiño.

Ba ekian ba eioala.

Origaitik, Marta eldu zanean eta ikusi, biotzari ikutu eta esan eutsan:

- Ana billatu dabe?

- Dakidala ez.

- Nun dagonik be ez?

- Ez.

- Bizi ete da?

- Ezta.

- Korapilloa lakoa daukat.

- Ez estutu.

- Ana gaixoak kezkatuten nau.

- Zegaitik? Zurea al da?

- Baiña bere zaintza gure kontu artu gendun.

- Umerik ez daukenen kontuak. Iñonak artu eta gurasoak baiño geiago eurekin arduratu.

- Naiko neban bat euki.

- Gizonik ezagutu barik?

- Ez zenkien? Ezagutu neban, bai.

- Nun ezkonduta?

- Gaztetako maitasunetan.

- Bai ixilik euki be.

- Aren bizia galtzea, beste baten bizia zaintzeagaz ordaindu nai neuke, zerura kitu joateko.

- Zelan?

- Esango eutsuen.

- Ni ba nua. Ez daukat penarik.

-Zukiraun daikezu.

- Ori ikusteko dago.

- Zuk lortu zeinke.

- Zelan?

Ito bear naz, baiña esango dautsut. Geldi geldi esango dautsut. Markus'egaz gogoratu zaitte.

- Markus il zan.

- Aren irakatsirik ez.

- Zer diñostazu? Zer esan nai?

- Gogoratu, bai, gogoratu.

Monja bat sartu zan.

Ainbeste barbarik ez egiteko. Egoteko nasai, ez estutzeko.

Osagillea be agertu zan.

Marta ikusi orduko zirikalari asi zan:

- Onentzako bedarrik billatuko zenduke?

- Galerazo egin dauste.

- Onentzako bedarrik onena bakea eta bakartadea dira.

- Bestentzako lez.

- Sinistuten ba dau, bere siniskeretan baretu eta arindu daitela, eriotza dator kion artean.

- Baketan laga egiozu.

- Gaitz izango dau bakea artzen, barruko arrik daben artean.

- Eriotz aurreko bakea lortzea baiño osagarri ederragorik nai?

Osagilleak ziur ekian, agindu ezik Marta'k ez ebalu gaixotasunari buruz bere gauzekin eskurik sartuko.

Bitartekoen keixu eta bizi eragin naia izaten zala askotan orrela-koen zerbitsua.

Alaz eta Marta ausartu zan osagillea zirikatzerara:

- Zegaitik ilten laga?

- Legea dalako.

- Ta luzatu ba lei?

- Zer nai dozu, ez orririk eta ez adarrik daukan arbola igar bat lez, bere albotik doazanen arriskuan zutik lagatea?

- Bizia bizia da, eta ez usteldutako irudia.

- Eriotza datorrenean, onen autuan lez, datorrenean, ez dago ez zirin bedarrik, ez bizi ezirik.

- Olakoetan ez dago atzerarik.

- Eriotza datorrenean. Leike.

- Eta aidean dabillanean?

- Ori bakoitzaren kontu da. Baiña ziur egon emen ez dabillala aidean. Emen ikusi egiten da ba datorrela.

- Zenbat egun emoten dautsazuz bizi?

Bi?

- Ez zabiz oker. Irurik ez beintzat.

Eta osagillea Marta'ren lagun egin zan, nortasun bat eukalako.

BIARAMONEAN

Iges egin zendun atzo? Nora?

Ez nitzan iñora joan. Osagilleak, atsedean emotearren, lo eragin eutsun.

Geiago poztuko nitzan, beste ezer baiño, emen daukadan korapilloa eten da.

- Kamamilla nai?
 - Ez da ori.
 - Bizi da?
 - Esan neutsun atzo. Ez dakigu ezer.
 - Ez dabe billatu!
 - Ez dakigu.
 - Iñor ba dabil billa?
 - Ez jakin. Agintariak ibili bear litzakez.
 - Marta, luzatu barik esango dautsut.
 - Nasai esan.
 - Gizon bat salatzea da.
 - Nor?
 - Ba dakit laster ilgo naizana.
 - Ez ain arin.
 - Nire egunak ba datoz.
 - Ez kezkatu. Nasai artuta luzatu egin leikez.
 - Nasaiago ilgo naz neure kezka zuri agertuta.
- Marku'gaz gogoratzen zara?
- Ez neban ezagutu.
 - Ba beragaz gogoratu zaite.
 - Atzo be esan zendun eta ez naz gogoratzen zegaitik.
- Zeiñek esan euskun...
- Zer? Esan... esan...
 - Bai...
 - Gogoratu.
 - Ez bildurtu, esan.
 - ... diabruak eman, diabruak eraman?
 - Zer diñozu?
 - Kontuan euki. Ez aztu.
 - Enaz aztuko.
 - Esan euskuna, a izango da.
 - Ziur? Iltegiko...
- Izerdi larriak mara-mara urten eutsan.

Begiak, erdi zabalik, indar barik begira lez geratu jakozan.
Oraindik biotza ba ebillan.

Arnas zurrua gero ta lodiago.

Baiña geiago berbarik ez eban egin, nai eta arnasak beste egun bitan iraun.



ILLETA

Ospitalean ilten ziranei illetarik andiena, "primerakoa" egiteko oítura egoten zan.

Azaleko itxurak beteta.

Kapa baltzak eta zetroak kalean. Eta zidarrezko kurutza, jai andietan ataraten zana.

Sei kandelera aldarean.

Gaiñerakoa, bardintsu.

Meza, familiak ordaindu ordez, erriaren kontura.

Eta illeta kanpaiak, albakoan edo illuntzeko agurmaritan jo bearrean, eguerdiko amabietan jo.

Ortik gorakoa, eleizaren agerbídetan, bardintsu.

Erriaren agerbídetan, oiturazko zan alkatea eta udaletxeak aurrean joatea, gurasoen utsunea betetan.

Il eta biaramonean egin ziran illeta eta gorpu laguntzera, ia erri guztía joan zan.

Ez-ezagun zan andre arek, erritarren lotsa zirikatu eban.

Iñok ez eban dei berezirik egin; iñor ez zan alegindu eriotzako albistea zabaltzen. Berez arduratu zan erria. Damututa lez. Azkenean, errubakotasuna ezagutzen.

Goi mendietako baserritarrak be etorri ziran. Beste edozein lez ibili kaletan. Iñor konturatu be ez zan egin nortzuk ziran, nai ta egun batzuk aurrerago agirika ibili ziran guztiak an batu.

An ebíllan Arantzamendi'ko morroia be.

Oraindik arpegian ezagun bere urratuak, nai ta begiko baltzunea aragi kolorera etorrita geratu.

Illeta aurrean, kalean zear eioala, andra gazte batek urten eutsan etxeko atadira.

- Gizona, mesedez.

Eta ate egalera sartu eragin eutsan,

- Ba daukat nik zuri zerbait esan bearra.

- Niri?

- Bai...

Eta andreak, lotsatuta lez, burua makurtu eban eta ía negarrez malkotan asi.

Bereala konturatu zan morroia andre a nor zan eta zegaitik izango zan.

Eta negarra eteteko umoretsu esan eutsan:

- Zer nai dozu, arrautzaren ordea? Biar bialduko dautsudaz gaur egindako batzuk.

- Jaungoikoagaitik!

Morroiak ez eban nai, baiña andreak etxeko atea zabaldu eutsan, atadian bertan bizi zalako.

Sartu ta aurreko gela baten, an ebiltzan, alkarri tirrika, lau ume txiki.

- Ikusten?

Eurontzako nekarren arrautza jaurti neutsun, eurokin eta euron antzekoekin gogoratuta, eurok lako ume bat danon artean garbitu zenduelakoan,

Pentsatu bear neban...

Oraingotan malkotan jarri zana morroia zan, andra aren zintzotasuna ikusita.

Eta barbarik ezin asmatuta, ezin esanda beintzat, ume bakoitzari musu bana emoten eutsen.

Nik ez daukat umerik, baiña, andrea, auxe daukat nik umientzat eta ez besterik.

Eta amagintzan aurreratua ikusi eban lez, geitu eutsan:

Ez dago asarrerik.

Eta obeto ikusi daizun, bestea datorrenean, aita besutakotzat naí ba nazue, pozik etorriko naz dozena bat arrautza ta guzti.

- Lebatz denporan izango da ta...

- Etorriko da Maiatza, jango doguna lebatza.

- Umerik ez daukazula? Kontuak ataraten ez zara makala.

- Morroiak ze ikusten dogu ba, etxeak ez ba dira, abereak umegiñan baiño?

Biak pozik geratu ziran, orduko egitadaren errua ez batak eta ez besteak ez eukela konturatzen ziralako.

Eta jaiotza barrirarte agurtu ziran.

Eleizakoa amaitu ondoren, Arantzamendi'ko morroiak, beste askogaz batera, kanposantura joan nai izan eban Kalixta'ren gorpari laguntzen.

Beragaz batean zan Marta. Eta Beitiz'ko seme nausia. Txeru'gaz. Eta Kontze, Garoa'ko neskazarra, Mari'gaz.

Kalixta'ren lurreratzea laster egin zan. Ospitalekoen illobian sartu eben.

Erritarrak urteten asi ziran.

Besteak Madalena'ren illobi ondora joan ziran.

Mari morroiagaz gogoratu zan.

Arek naiko eban etorri, beti esaten ebillan da ama ikustera etorri bear giñala alako baten.

- Noiz laga bear dautse berari etxera joaten?

Danak Madalena'ren illobian, zorioneko umetxoaren amaren illobian otoi egin eben, eta Marta'k eskatu eban lez, kartzelan egozan errubakoak ainbat ariñen etxera biurtzeko.

Lukas, iltegiko zaindari eta lur emolea eurakin batu zan.

- Ez da geiago iñor etorten lora ekarten?
- Negua da ta gaitz.
- Oneik ekarriko dautsez laster.
- Maite zenduen ama?
- Beti beragaz ibilten giñan.
- Eta Ana?

Ez eben erantzun.

Burua makurtu eta negar batek.

Mutillak lagun artetik alde egin eban.

- Besterik ezean nun dagon jakingo ba gendu.
- Ori, jakin beintzat.
- Beste egoera bat eukiko genduke.
- Oneik be jakingo leukie zer egin, zetan jarraitu edo nora jo.
- Nik ez daukat a billatzeko itxaropenik, esan eban Lukas'ek.
- Zegaitik ez?
- Nik lenakoen esana gogoan daukat beti: deabruak eman, deabruak eraman. Ori da orrelako umiekin gertaten dana.

Marta aldendu zan.

Negarrari eutsi ezinda, beste ezer baiño geiago. Eta beste illobi baten gaiñetik klabelin bi artu eta Mari eta Txeru'ri emon eutsezan, maitekiro.

- Ipini egizuez zeuok.
- Ez lotsatu. Danon aurrean ipini.
- Zaldupe'n be ikasten da zer dan maitasuna.

ASMO BARRIAK

Errira eratsi ziranean, Márta'k Kontze'ri esan eutsan bere aita-gaz berba egin bearra eukala.

Nai ta ez.

- Ainbestean?

- Bai.

- Umea zeuri lagateko ez da izango?

- Orain ez.

- Orretarako ez dautsut lagunduko. Nai dozunean joan, baiña nik dakidala ez.

- Ez kezkatu.

- Zetan ba?

- Aitak emondako aolkuak (kontsejuak) indarrrik ba dauke, laster billatuko dogu lapurra.

- Benetan?

- Uste orretan nabil. Eta Kalixta'k be agindu eustan il aurretxoan. Garoa'ra eldu ziran.

- Zer dakizue Markiñatik?, zarrak.

- Barri txarrak.

- Epaikariak diñonez, bera morroia eta bere laguntzakoa diralakoan dago.

- Esan egiozue epaikariari ez dakila nundik dabillen.

Eta didarrez asi zan. Garratz.

Ez daust ardurarik edozeiñek entzunda be.

Esan, arpegira esan, neuk esan dodala.

Beste norbait estutu eta agertu eragitearren errubakorik ezin leikela baitu.

Nai dozuenean esan. Arpegíra.

Antxe egoan Zaldu'ko alaba be. Besterik ez eban esaten:

- Zelan areik izan, Done Marí nigana etorri ba zan, errira eldu orduko, esaten ziranak entzun, eta Garoa baserriko morroia be tartean ebíllala jakín ebala-ta, nik zer esango eta Kirtsanda nundik eta zelan ikusíko?

- Okerrena da, erriak be sinistu egin dabela. Ain zuzen be Done Marí agertu dalako.

- Txoria kaíolan dagola esan ebala epaikariak eta besterik baga sínistu?

- Galoiak emongo dautsez berari, ori esan eta errubakoak barruan eukita?

- Lege gizon bateri deitu bear geunkio.
- Diru ataratzailleak dira danak. Bear ba da orren zain egingo dau.

- Nik morroiagaitik edozer egingo neuke, baiña ez dot orretan nire kontzientzirik saldu nai.

Morroia etxera etorriko da, ez diruz erosita, etorri bear dalako baiño.

Epaikariak ei diño Done Mari eta morrolak, zigor andirik ez dabela eukiko, Done Mari umearen ama besutakoa zala gertaten dalako, eta gurasoen faltan, eleizako legez, aita besutakoak ei dira urrenenak. Baiña umea nun dagon agertu bear ei da, ta or ei dagoz mutu.

- Zelan ez dira egongo mutu, nun dagon ez ba dakie? Orretan ez gabiz danok?

- Zegaitik ez goaz biar Markiña'ra?

- Zetan?

- Epaikariagaz berba egitera.

- Nortzuk?

- Biok joango gara?

- Bai, aita, Marta ta zu, biok joan zaiteze.

Marta'n ez eban geiago esaterik nai izan. Ezer esan ezkeru, bildur zan Garoa'ko zarrak beste erabagien bat artu eikeana.

Etxean emon eutsen oea.

Eta Marta'k, bide batez, bere bedarren onura batzuk erakutsi eutsazan zarrari.

SALAKETA

Markina'h, epaikariagaz egon aurretik ez eutsen laga an egozan baituak ikusten.

Atezaiñak esan eutsenez, epaikariak esana zan, itz egin arte ez zitula azkatuko. Bere esanetan, euren eskuetan egoala zela-alako azkatasun bat, gero epaia auzitan emon artean.

Epaikaria zintzo agertu zan bederatzietan.

Garoa zarrak bere morroiaren azkatasuna eskatu eutsan, errugabea zalako. Milla agerkaí, bear zitun guztiak, berak emongo eutsazala, beragaz etxetik iñora aldendu ez zalako azken denporaldi guztian.

Epaikariak ezetz.

Bigun lenengotan. Jator.

Gero ta gogor eta zítalago biak. Eurenetik urten eta alkarri komeni ez ziran edo gizon arteko ez ziran berbak esaten. Arroa bata, arroxkoa bestea.

Azkenean kanpora urteteko agindu arte.

Ordurarte Marta ixilik egon zan.

Ez eban bestien jardunik eten nai izan.

Eta ausartu zan.

- Gai orretzaz salakuntza zeatz bat egin neike?
- Edozeiñek egin leikena da.
- Nire izenean eta atzo obiratu eben nire lagun Kalixta'ren izenean.

- Ildakoen izeneko salakuntzak ez dabe balio.

Salatuten dabenak jakin bear dau, guzurretako salakuntza ba da, bere gain doazela izen ona kendu leikionak legez eskatu daikiozan kalteen ordaiñak, eta legearekiko gastuak eta abar.

- Orretara ni bakarrik izango naz salatarí. Gertu nago orretara. Asi neike?

- Nai dozunean.

Marta naz. Marta Igarra, ez izenez, ikusten nazuen emakumea, 75 urte betea.

Ondo da, baiña zer da salatuten dozuna?

Nik ba dakidala Ana umearen gorpua nun dagon.

Illa da?

Bai, zoritxarrez.

Garoa'ko zarrak be ez ekian olakorik, eta zotin eragin eutsan jakiteak.

- Il dala?
- Bai...
- Ziur zagoz esaten dozunagaz?
- Salakuntza au barruan dagozanak ataratearren ba da, oindixek esaten dautsut ziurtatu arte ez dodazala azkatuko.
- Nun ziurtatu geinke?
- Ondarroa'ko iltegian.
- Ziur?
- Guzurra ba da etorri daikedana nire lepoan artzeko erabagiz esaten dot.
- Lekuko egon bearko zara bertan.
- Ni be bai, pozik.

Eta beste barik epaikariak kotxe bi atarateko agindu eban.

Epaiaritzako zaindari bigaz sartu zan bera baten. Bestean Garaa zarra eta Marta.

Ondarroa'n ikusi zituenean, kanposantuko bidean gora asi zira-nean be, iñok ez eban uste izan zegaitik eioazan. Bezperan obiratu eben andra zarraren zerbait legearekiko betetera eiozalakuan.

Eta Lukas'eri deitu eutsenean, arek be orrelako zerbait zalakoan agurtu zitun danak.



USTE EZ ZANA

Lukas'ek Markiña'ko epaikari eta zaindaria iltegiaren sartzen ikusi zituztenean, gixtien pentsatuko eban zetara eioazan.

Bestetan deitu egiten eutsan epaikariak, autopsiren bat egin bear zanetan, edo ta babesetako ta asegurantzako etxeak agirien bat jaso eragiten eutsenean.

Oraingotan osagillerik ez *etonen* eurekaz.

Ez egoan autopsirik.

Marta ikusieran, Kalixta'ren zerbait izango zalakoan geratu zan. Kanean euki zituen gorabera, ospitaleko eriotza eta abar, bere uste orren alde etozan.

Eta Garoa'ko zarra?

Dana jakiten eban arrano zar arek, zer eukan iltegiaren gizon arein artean?

Epaikariak, zeinek egiña zan esan barik, salakuntza bat egoala agertu eutsan.

Billatu ezin eben Madalena'ren alaba izan zan Ana umetxoa, iltegi aretan lurra emonda egoala.

- Zeinek lurra emon?
- Ez dakigu.
- Noiz?
- Ez dakigu.
- Nun?
- Ez dakigu,
- Orretara, epaikari jauna, zer nai? Iltegi guztia aztertzea, illobiak zabaldu ta ikustea, lurra erabili ta jasotzea?
- Nunbaiten ezer igarten ba da...
- Igarri... Sarri erabili bear izaten da emen lurra. Illak sartzeko bakarrik ez, azurrak atarateko be bai.
- Zeuk ez dozu emendik inor ikusi?
- Betikoak. Geien be betiko emakumeak.
- Susmorik emon leikenik?
- Gaitz ori jakiten.
- Inok lurrik erabili dabenik?
- Nik ezik beste inork ez dau atxurrik sartzen.
- Beraz, zure ustez, salakuntza guzurra da?
- Zegaitik ez dau salakuntzak geiago zeaztuten? Orrek ziurtasun eza erakusten dau, ez?

Ordurarte epaikari eta Lukas'en artean erabili zan jardunaldi guztia.

Beste guztiak ixilik, entzuten.

Ez ekian Marta'k epaikaria azaleko itaun batzuk egiten ebíllan, salakuntza ainbat ariñen bertan bera lagatearren, edo ta besteari bere erantzunetatik nundik ikutuko billa ete ebíllan.

Baiña azken erantzuna entzun, eta Marta adoretu zan, ia gangortu, eta kiriotsu, baiña argi, epaikariari esan eutsan:

- Ostera bat egin geinke inguruak ikusten?
- Leikena da.
- Danon nasaitasunerako izango litzake.
- Salakuntza nok egiña da? Lukas'ek.
- Nik ba dakit eta oraindik eskutuko da, epaikariak.
- Ez daukat lotsarik esateko. Nik, gartsu, Marta'k.
- Zuk?

- Ez asarratu, Lukas. Guk umea billatzeko gure izena be jokoan ipiniko dogu, gurea len eta orain beste batzuen laidotan dabíllan lez, arazo au argitu naí dogulako.

- Lagundu nai?
- Nora?
- Nik esango dot nora.

Eta Marta Madalena zanaren illobirako bidean asi zan.

Besteak jarraitu eutsen.

Atzetik eioan Lukas.

Bertara eldu, aurrean geratu, eta Marta'k Lukas'eri:

- Ziur zagoz au zeíñen illobia dan?
- Zaldupe'ko Madalena'rena.
- Eta bere egalean dagona?
- Or ez dago illobi batentzat tokirik.

- Emen arrotu dan lurra, azken iru egun oneitan arrotu da. Eta denpora orretan ez da iñor il errian, atzo sartu zana besterik.

Nor dago emen?

Nor dago emen?

Nun dago atxurra?

Eta iñori laga barik, Lukas'eri atxurra kenduta, Marta bera asi zan arro-arro egoan lurra gain-gaiñetik atxurragaz azaletik erabilten, lzerdi likin eta otzetan egoan Lukas.

Ixiltasun garratzean.

Iru-lau azterraldi egin orduko, arrain kaja baten egala agiri zan, Eta plastiku orri zati bat. Eta bereala, plastiku orretan ume bat batu-ta egoala igarri zan.

Atxurra laga eta eskuz asi ziran gaiñeko lurra kentzen.

An egoan Ana txikia zuri-zuri...

Epaikaria marta zarraren ausardi eta betetasunaz arrituta egoan.

Eta esan eban:

- Zati bat argitu da. Illa emen dago. Orain beste zatia billatu bear da. Bizia billatu bear da.

- Bizia?

- Nor da bizia billatu bear dabena?

- Edozein. Danok. Al dabena.

- Gaur baiño urrerago ez dozu eukiko.

- Ni salatuten nazu? urduri Lukas'ek.

- Zeu salatu ziñan.

-Ni?

-Zu, bai, zu...l

Zu salatu ziñan, zeure burua salatu zendun, lenengotik esaeran: "Deabruak eman, deabruak eraman".

Nik ba nekien ume onen deabru sortzaillea nor zan. Zeuk esan zendun lapurra nor zan.

Garoa'ko jauna, Garoa zarra... Marku'k errazoia. Au ixilík egon ba zan, ez gendun jakingo zeñek eroan eban. Orain agirian dago deabru iltzaillea nor dan.

Negarrez asi zan Lukas.

Epaikariak, zaindariei esan eutsen, eskuak lotzeko, kateak ipinteko.

Eta umea alaxe lagateko, plastikoz estalduta, biaramonean auzitegiko osagilleak ikusi eta beste goraberek bete arte.

Zaindari bien erdian Lukas lotuta eroan eben Markiña'tík ekarritako kotxetara. Eta epaikariak bestieí agíndu eutsen berari jarraitzeko.

Gaixotegi (ospital) aurretik igaroeran, ango zaindariak ikusi eban Marta, urreratu eta zer ete ebillen itandu eutsan.

Marta'k, itotasuna ezin gainduta:

- Iltegian dago ilda.

- Ba dakigu. Atzo emon geuntsan lurra.

- Kalixta ez, Ana txikia.

- Ilda?

- Agirian dago. Zaíndu egizue.

Eurak Markiña'ra eldu orduko, Ondarroa erdia ltegi inguruan ebillan, Zaldupe'ko txikienari errukizko omenaldia egiten.

AUTORTZA

Auzitegira eldu eta epaikariak barruan egozanak azkatuteko agindu eban.

Eta denporarik galdu barik, danen aurrean, Lukas'en agerpena artu nai izan.

Onek, lenengo beretik urteerako estutasun eta gogortadak gainduta, epaikariari esan eutsan:

- Ez eidazu ezer itandu.

Nik esango dot dana.

- Orrela egitekotan, zin egin bearko dozu aurrez.

Zin egiten dozu egia esaten dozula, egi utsa?

- Zin egiten dot.

- Ala ba da, asi nai dozunean.

Ixlune labur bat egin zan. Itotasuna. Baiña Lukas, astiro, esaten ebana gogoratzen lez, asi zan:

Ni autortzen naz, eta niregan artzen dot gertaera guzti onen aitatasuna.

Beste iñoren bitartekotasun edo laguntza barik.

Nik eroan neban umea Garoa'tik.

Lenago Zaldupe'tik nai neban. Baiña erdi moskortuta joan nitzan, adorea billatu nairik, eta atea zabaltzen ez neban jakin. Moskorrak illundu nindun.

Iñoiz lenago be Garoa'n sabai aretan lo egiña nintzan, morroía-gaz jaien baten ibili ondoren. Ez neukan zeïnek erakutsi bearrik ango sarrera ta eskuturik.

Nik eroan neban batelean, eta nire etxera ekarri. Eta lotako pastilla emon eta an euki.

Pozik nengoan. Nirea zalako. Nirea zanagaz, beste bat jaubetu aurretik jaubetu nitzalako. Ni nitzalako bere aita.

Baiña lenengo egunetik bakartadeak galdu nindun,

Ni izan nitzan, bere barruko gonea ibaira jaurti nebana, jendeak andik erabiltearren, nik beste bide edo aukeraren bat billatu artean,

Ni izan nitzan Armetxa'n bere gaiñeko jantzia laga nebana. Kalixta eta Marta'gaz gogoratu nitzan. Baiña ez nitzan eurei barbarik egiten ausartu, iñok ez ikustearren, edo iñor ez konturatzearren andik nebillena. Azken orduan bildurtu egin nitzan. Eurak nai nitun bitartekotzat, barriro umea biurtzeko.

Urrengo gabeen ni izan nitzan Beitiz inguruan, ango morroia billatu nairik.

Umea, aurrez, Zaldupe'ra eroan neban eta an laga, gau aretan gero Garoa'ko atean lagateko asmotan. Oraindik bizi zan. Morroiak ez eustan erantzun, eta txakurrak zoratu egin ziran. Azkenean txarto eta estu urten nitzan andik.

Zaldupe'ra biurtu nitzanean, umea estu egoan, goi ta be zirinduta, zerbaitek gaitz eginda. Ez nitzan ausartu an lagaten. Goizaldean umea artu, eta ekarri neban, Kamiñalde, Koskabil'go sagastietatik zear, aurrez erreka oiñez igaro ondoren, iñok ez ikusteko arduraz.

Etxera eldu eta zerbait emoteko sua berotu orduko, ixil-ixilik lo konkorrean geratu zan eta il.

Auxe da egia.

Ez dot il. Il egin jatan.

Eta iñor konturatuko ez zalakoan, amaren egalean sartu neban.

Nik, nik bakarrik artu nai dot erru guztiaren jaubetasuna. Bakarrik ibili nitzalako il jatan.

Nire alaba zan.

Ba nekien.

Nundik?

Madalena'ren azken nai (testamentu) lez Kalixta eta niri egiña, gaixotik ezin atarata ibilli giñanean. Iru umeen aitatasuna agertu nai izan euskun, zerbait igaro arte iñori ez esatekotan.

Gaur, ume bi bizi dira, baiña euren aitak il ziran. Eskutuan geratu bediz izenak. Irugarrena il eta bere aita bizi.

Legeak ezetan lagundu al ba leitsu, "deabruzko" aitatasun ori zin egin daiket.

Amaitu ebanean, epaikariak esan eutsen:


Lekuko lez agiria izenpetzeko eragozpenik?

Ekiguna eta genkiguna autortu dau. Danon mesedean jakin bear zana bere bai.

Ala bedi.

Eta izenpetu ondoren, gerokoak ikusteko, Lukas barrura eta besteak etxera joan ziran, iñun geratu barik, etxeko bakartadearen billa, an negarretan barrua nasaitzeko asmotan.

Egunetara, aidean ibili zan gertaera, bertso eta guzti.



ITZAURRE ORDEZ IRAKUR-ONDORAKO

Oiturazko da irakurgaietan itzaurrea.

Irakurlea gertuteko batzutan, liburua usain-gozoz kutsatu naian beste askotan.

Zailtasunak labantzeko batzutan, beste askotan laudorio kaltegarri ta itsuetan burua berotu eragin naian, balio ez dauanari urre itxura emon guraz.

Eta gero? Gero zer?

Nire liburutxo au gordin-gordin agertu da. Umeak sortzen diran lez maitagarri, baiña garbitu bearrean; bizi-bizi, baiña negarrez. Eta ez jakin gaurko prisetan, zazpiki agertu ez ete dan be.

Ingurukoen gain dago ama eta guraso zeregiñak betetea. Maitasunez onartzea, laztandutea, itxura eta irudi barriak egokitzea.

Ingurukoen gain dago baita be etenik ete daukan ikusi, aztertu eta guritzen alegintzea.

Nik ba dakit mundu txarrera datorrala. Ba dakit ume bat geiagok zelako giroa sortzen dauan gaur gure artean. Ume bat geiago eta antxo txikiduna... lenengotik itxasoral, esango leukie destañez askok.

Au da, ume bat geiago... ta bizkaieraz, bizkaieraz eta etenakin gañera, Agota!

Naparraa'ko Arizkun inguruko Bozate'n gizaldia igaro zituen agotak, eleizetan be bestien artean jaunartzen itxi nai ez da. Ate ondoan eta koruko eskillaretan eta kittu. Erre be egin zituen batzuk Baiona ingurutan. Azken baten Eleiza bera goitik asi bear areik be kristiñauak zirala eta ala ezagutzera beartuten.

Alako giro baten ikusten gara gaur bizkaiera darabilgun asko. Batzuk, uste baiño geiagok, Euskeraren muñik, ez biotzik, ez agerpenik, ez doñurik, ez eragiñik ez daukan gaztelaniar eta prantsez gaikiekin erraztutako konpota bat irunsi eragin naian. Batzuk atea be itxi egiten dauskuez.

Ama Euskalerraren seme ez ba giña lez, askorentzat! Eta okerago, gure familiko legenardun, lepradun antzera...

Irakurle, ba dakit zu be giro au igarrita zabilzala eta minduta.

Nik min ori arintzen lagundu izan nai dautzut. Zuk be zure esku-bidea dozulako sortu eta ezi ziñan ama euskeran zeure irakur sola-

sak egiteko. Orretarako ez bakarrik eskubidedun, duin eta jaubetzat ezagutu bear zaituelako erri arduradun gorenetatik asita.

Nire pozik andiena irakurri dozula jakitea litzake. Gu aurrera guaz, baiña oraindik jende asko geratzen da euskera jatorra, amaren bularretik artua maite dabenen artean eta atsegin izaten dabena tartetan eurak ulertu leiken irakurgarriak eukitea.


Origaitik idatzi dot elabarri txiki au, barruko naste asko barik irakurri al izatekoa, berben zabaltasun, luzapen eta biribiltze andietan ibili barik, aria galdu barik, etenda be, erraz billatu leikiona/

Nai eta ikuspegi, toki, inguru eta abar, erraz iruditzeoak izan, gaia ez da egitsua, irudimenez sortu edo asmatua baiño.

Nik ziri eta zuk mirri, ni kontakizun au idazten jolastu naizen lez zu be irakurten jolastu zaitezala gura neuke.

Azken baten atsegíñez artu ta irakurri ta zabalduaz, euskerari bizia luzatu al izango dautsagu.

Augustin Zubikarai



B.I.A. (BIZKAIKO IDAZLE ALKARTEA) Koa.

NUN-ZER

Orrialdea

Iltegian.....	5
Eriotz aurea gogoratzen.....	7
Legearekiko gora berak.....	9
Lenengo egunak.....	11
Gau aizetsua.....	13
Kezketan.....	15
Lapur makala.....	17
Azken gabea.....	19
Zur jokatu nairik.....	23
Zelan jokatu.....	26
Lora barriak.....	29
Lengotokira.....	33
Txotxiñen asarreak.....	35
Lukas jokoan.....	37
Alkatea urduri.....	41
Goizak argirik ez.....	44
Itaunka.....	49
Beste alderdian.....	57
Kaletarrak.....	60
Ekin daekin.....	62
Morroia aolkari.....	65
Ezaugarri geiago.....	68
Kalixta eta Marta adiskide.....	73
Uste bako mandatariak.....	78
Errirako sarrera.....	84
Alkatearen aurrean.....	89
Estu eta larri.....	93
Baserrirako bidean.....	97

Ertzaiñaren agiria.....	100
Zaldupe'n.....	101
EtaBefitz'en.....	104
Maitasunak eraginda.....	107
Garoa'n.....	109
Agintarien artu-emonak.....	112
Zeregin gitxi, baiña.....	115
Zaldupe'tik etozan urak.....	117
Markiña'ko auzitegian.....	119
Ango barriak.....	124
Auzitegian, bigarren egunean.....	126
Eriotz aurretxoan.....	129
Biaramonean.....	132
Illeta.....	134
Asmo barríak.....	137
Salaketa.....	139
Uste ezzana.....	141
Autortza.....	144
Itzaurre ordez irakur-ondorako.....	146

Liburu onen egilleak

Argitaratutako lanen zerrenda

Kondaira (Istoria)	Motrico	1969	
	Ondarroa baserri giroan	1985	
	Berriatua	1986	
	Ipazter	1987	
	Amoroto ta Gizaburuaga	1988	
	Mendeja	1988	
	Etxebarria	1989	
	Ea Natxitua Bedarona	1989	
	Aulesti	1990	
	Markina Xemein 1	1991	
Markina Xemein II (Irarkolan)	1991		
Eri Jakintza	Kardala	1976	
	Boga ta Zixe	1977	
	Gure Inguruak	1982	
	Bizkaiko Bidetan	1984	
	Treiñeru Estropadak	1987	
	Ondarru, Kantu, Otoi, Orru	1984	
	Itxas Aize	1989	
Elaberri-Nobela	Bale Denborak	1978	
	Anton Guzurretxe	1979	(Txomin Agirre saria)
	Laiñoak Mundakan	1980	(Etxeita saria)
	Ira Usaiña	1981	(Etxeita saria)
	Mon-daka	1981	(Etxeita 2'saria)
	Bizitzako Urratsak	1981	
	Itxastarrak	1985	
	Garratz eta Gordin	1986	
	Zaldupeko Txikiena	1991	
Kontakizunak	Esan eta esango	1979	(Azkue saria)
	Makillen egunak	1983	
	Peru eta Mari Gureak	1985	
	Lugo'ko Ipuiñak	1986	
	Barre ta Irri	1988	(Beste batzukin bateran)
Biografia	Balentin Berrio-Otxoa Deuna	1988	

Euskeratuak	Bizkaiko Batzar Nagusiak	1986	
	(Goyo Monreal, M.A. Larrea, R. Mieza, J.M. Makua, Aurtenetxe)		
	Euskalerriko Historiaren Sarrera	1987	
	(M.A. Larrea eta R. Mieza)		
Antzerki	Gernikako Batzar Etxea	1987	
	(Karmelo Etxegarai)		
	Mixiolari Gogoragarriak	1980	
	(Bitor San Migel, Gotzaiñarena)		
	Bizi Garrantza ta Mendu zarrak	1970	(Gipuzkoa sariak)
	(Lan bi)		
	Aingira Kumak	1976	
	Mendi ta Itxaso	1983	(Markiñako Euskal jaietako saria)
	Artea'ko Itsua ta Lau antzerki	1987	(Bizkai Aldundi saria)
	Gorri ta zuri		
	Arrain sunda		
	Irugarren adiñean		
	Lurrunpean		
	Beste antzerki batzuk "Egan" aldizkarian agertuak dira. Guztira berrogei antzerki inguru.		
Kazetaritza	1937 urtean "Eguna" egunkariko zuzendari orde.		
	1982 tik, Ondarroa urterokoaren zuzendari (Kultur Etxea)		
	1981 'tik, Arranondo illerokoaren zuzendari (Arranondo alkartea. Ondarroa).		

